

GAZTE JUSTIZIAREN VI. PLANA EAEan

2025-2029



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA GIZA
ESKUBIDEEN SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS



AURKIBIDEA

| | |
|--|-----------|
| AURKEZPENA | 7 |
| SARRERA | 13 |
| 1. GAZTE-JUSTIZIAREN ARLOKO TRESNAK: NAZIOARTEA, ESPAINIAKO ESTATUA ETA EAE | 15 |
| 1.1 Nazioarteko tresna nagusiak..... | 15 |
| 1.1.1 Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena (HEH, 1989, NBE)..... | 15 |
| 1.1.2 Nazio Batuen Arauak askatasuna kendu zaien adingabeak babesteko (Beijingo Arauak, 1985)..... | 16 |
| 1.1.3 Adingabeen justiziaren administrazioari buruzko Nazio Batuen arauak (Riadeko arauak, 1984)..... | 16 |
| 1.1.4 Gazte Justiziari buruzko HEHren protokoloak..... | 17 |
| 1.1.5 Tokioko eta Habanako printzipioak eta arauak (NBE)..... | 17 |
| 1.1.6 Haurren Eskubideei buruzko Konbentzio Interamerikarra (AEE, 1994)..... | 17 |
| 1.1.7 AEEren Gazte Justiziaren Printzipioen Arauak:..... | 17 |
| 1.2 Gazte Justiziari buruzko Europako tresna nagusiak..... | 17 |
| 1.2.1 Europako Kontseiluaren gomendioak..... | 18 |
| 1.2.2 Europar Batasunaren tresnak..... | 21 |
| 1.2.3 Giza Eskubideen Europako Hitzarmena..... | 25 |
| 1.2.4 Gazte-justiziarako zeharkako garrantzia duten beste tresna batzuk..... | 27 |
| 1.3 Espainiako estatuko tresna nagusiak..... | 30 |
| 1.3.1 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, Adingabeen Zigor Erantzukizuna arautzen duena (AZELO)..... | 30 |
| 1.3.2 1774/2004 Errege Dekretua, uztailaren 30ekoa, Adingabeen Zigor Erantzukizunari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duena..... | 34 |
| 1.4 EAEko tresna nagusiak..... | 36 |
| 1.4.1 Otsailaren 15eko 2/2024 Legea, Haur eta Nerabeei buruzkoa..... | 36 |
| 1.4.2 163/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, Erakunde laguntzaileak baimentzeari, homologatzeari, ikuskatzeari eta erregistratzeari buruzkoa, EAEko adingabeko arau-hausleei zuzendutako gizarte- eta hezkuntza-jarduerari dagokionez..... | 36 |
| 1.4.3 80/2009 Dekretua, apirilaren 21ekoa, askatasunaz gabetzeko neurriak betearazten dituzten EAEko hezkuntza-zentroei buruzkoa..... | 37 |
| 2. 2020-2024 ALDIRAKO GAZTE JUSTIZIAREN V. PLANA EBALUATZETIK ATERATAKO ONDORIO NAGUSIAK | 39 |
| 2.1 Estatuko Fiskaltza Nagusiaren ondorioak..... | 39 |
| 2.2 Estatistikako Institutu Nazionalaren ondorioak..... | 39 |
| 2.3 Justizia Sailburuordetzaren ondorioak..... | 41 |
| 2.3.1 Talde psikosozialen jarduerari buruzko ondorioak..... | 41 |

| | | |
|------------|--|-----------|
| 2.3.2 | Neurriei buruzko ondorio orokorrak..... | 42 |
| 2.3.3 | Kautela-neurriei buruzko ondorioak..... | 42 |
| 2.3.4 | Neurri irmoei buruzko ondorioak..... | 42 |
| 2.3.5 | Adingabe arau-hausleei buruzko ondorioak..... | 43 |
| 2.4 | Neurriak betearazteko baliabideei buruzko ondorioak: Ingurune irekiko hezkuntza-zentroak eta zerbitzuak | 43 |
| 2.4.1 | Hezkuntza-zentroak..... | 43 |
| 2.4.2 | Ingurune irekiko zerbitzuak..... | 43 |
| 2.5 | Sail bakoitzaren helburu espezifikoiei buruzko ondorioak | 44 |
| 2.5.1 | Segurtasun Sailari buruzko ondorioak..... | 44 |
| 2.5.2 | Osasun Sailari buruzko ondorioak..... | 44 |
| 2.5.3 | Hezkuntza Sailari buruzko ondorioak..... | 44 |
| 2.5.4 | Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari buruzko ondorioak..... | 44 |
| 2.5.5 | Justizia eta Giza Eskubideen Sailari buruzko ondorioak..... | 44 |
| 2.6 | Gazte-justiziako adituei egindako elkarrizketei buruzko ondorioak | 45 |
| 3. | 2025EKO NEURRIEN ESKARIAREN MEMORIA | 47 |
| 3.1 | Sarrera..... | 47 |
| 3.2 | Justizia Zuzendaritzako datu orokorrak..... | 47 |
| 3.3 | Kautela-neurriak..... | 51 |
| 3.4 | Neurri irmoak..... | 54 |
| 3.4.1 | Neurri irmoen eskaria, «Sexua» aldagaiaren arabera..... | 56 |
| 3.4.2 | Neurri irmoen eskaria, «Jaioterria» aldagaiaren arabera..... | 58 |
| 3.4.3 | Neurri irmoen eskaria, «Delitu-egitateak» aldagaiaren arabera..... | 62 |
| 3.4.4 | EAEko eta beste autonomia-erkidego batzuetako neurri irmoen eskaria..... | 65 |
| 3.4.5 | Neurri irmoen eskariaren mota..... | 66 |
| 3.5 | Delitu-egitateak..... | 77 |
| 3.5.1 | Neurri irmoak jaso dituzten delitu-egitateak, «Sexua» aldagaiaren arabera..... | 77 |
| 3.5.2 | Neurri irmoak jaso dituzten delitu-egitateak, «Jaioterria» aldagaiaren arabera..... | 79 |
| 3.6 | Neurrien aldaketak..... | 81 |
| 3.7 | Adingabe arau-hausleak..... | 82 |
| 3.7.1 | Delitu-jarduera..... | 82 |
| 3.7.2 | Arrisku-faktoreak eta babesa..... | 84 |
| 3.8 | Neurriak betearazteko baliabideak: Egoitza-zerbitzuak eta ingurune irekiko zerbitzuak | 92 |
| 3.8.1 | Egoitza-zerbitzuak..... | 92 |
| 3.8.2 | Ingurune irekiko zerbitzuak..... | 94 |
| 3.9 | Ondorioak..... | 96 |
| 3.9.1 | Neurri irmoak eta kautelazkoak: alderdi orokorrak..... | 96 |
| 3.9.2 | Kautela-neurriak..... | 96 |
| 3.9.3 | Neurri irmoak..... | 97 |
| 3.9.4 | Adingabe arau-hausleak..... | 98 |
| 3.9.5 | Neurriak betearazteko baliabideak: Hezkuntza-zentroak..... | 100 |
| 3.9.6 | Neurriak betearazteko baliabideak: Ingurune irekiko zerbitzuak..... | 100 |

| | | |
|------------|--|------------|
| 4 | EAE-KO GAZTE JUSTIZIAREN JOERAK | 101 |
| 5 | JAURLARITZAREN PROGRAMAN SARTZEA..... | 103 |
| 6 | GAZTE JUSTIZIAREN PRINTZIPIOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN..... | 107 |
| 6.1 | Legezkotasunaren printzipioa..... | 108 |
| 6.2 | Zigor-erantzukizuneko eredia: izaera zehatzaile-hezitzailea..... | 109 |
| 6.3 | Sistema berme-emailea: eskubide guztiak zorrotz baino zorrotzago errespetatzea | 111 |
| 6.4 | Erantzukizuna hartzea..... | 112 |
| 6.5 | Behar den gutxieneko esku-hartzea | 113 |
| 6.6 | Goi-mailako interesa: banakako egokitzapena | 114 |
| 6.7 | Erkidegoaren ikuspegiaren normalizazioa | 115 |
| 7 | ILDO ESTRATEGIKOAK | 117 |
| 7.1 | Prebentzioa eta gutxieneko esku-hartzea | 117 |
| 7.2 | Politika publikoen integrazioa..... | 118 |
| 7.3 | Esku-hartzearen kalitatea: ebidentzian oinarritutako tratamendu-programak..... | 118 |
| 7.4 | Erantzukizun publikoa eta kudeaketa-eredua | 120 |
| 8 | HELBURU OROKORRAK..... | 121 |
| 9 | PARTE HARTZEN DUTEN SAILAK..... | 123 |
| 9.1 | Segurtasun Saila | 124 |
| 9.1.1 | Sarrera | 124 |
| 9.1.2 | Gazte Justiziarekin bat datozen ekintzak..... | 125 |
| 9.2 | Osasun Saila..... | 128 |
| 9.2.1 | Sarrera | 128 |
| 9.2.2 | Gazte Justiziarekin bat datozen ekintzak..... | 128 |
| 9.3 | Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila..... | 131 |
| 9.3.1 | Sarrera | 131 |
| 9.3.2 | Gazte Justiziarekin bat datozen ekintzak..... | 132 |
| 9.4 | Hezkuntza Saila..... | 134 |
| 9.4.1 | Sarrera | 134 |
| 9.4.2 | Gazte Justiziarekin bat datozen ekintzak..... | 134 |
| 9.5 | Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila | 136 |
| 9.5.1 | Sarrera | 136 |
| 9.5.2 | Gazte Justiziarekin bat datozen ekintzak..... | 137 |
| 9.6 | Justizia eta Giza Eskubideen Saila..... | 139 |
| 9.6.1 | Sarrera | 139 |
| 9.6.2 | Helburu eta ildo estrategikoaren araberako Ekintzak eta Adierazleak..... | 141 |

| | |
|--|------------|
| 10 KUDEAKETA EREDUA | 159 |
| 10.6 Zuzendaritza koordinatzailea: Justizia Zuzendaritza | 159 |
| 10.7 Gazte Justiziaren VI. Planaren (2025-2029) ebaluazioa | 159 |
| 11 AURREIKUSPEN EKONOMIKO OROKORRAK (2025-2029) | 163 |
| 11.6 Ingurune irekiko programa eta zerbitzuetako gastuak | 163 |
| 11.7 Gazte Justiziako hezkuntza-zentroetako gastuak | 165 |
| 11.8 Gazte Justiziako hezkuntza-zentroetako segurtasun-gastuak | 167 |
| 12 GIZA BALIABIDEAK: ZENTROAK ETA ZERBITZUAK | 169 |
| 12.6 Ingurune irekiko zerbitzuak/programak: Profesionalak | 169 |
| 12.7 Hezkuntza-zentroak: Profesionalak | 170 |

AURKEZPENA

2025-2029 aldirako Gazte Justiziako VI. Plan hau 2026ko apirilaren 22an onartu zen. Ondoren, 2026ko maiatzaren 5ean, Gobernu Kontseiluak aztertu zuen, eta Eusko Legebiltzarrari jakinarazi zitzaion.

Adingabeen lehen babes-auzitegia duela ehun urte baino gehiago sortu zen Bilbon. Denbora igaro ahala, aspaldiko sistemaren gabeziak gainditu dituen gazte-justiziaren sistema moderno bat eraiki dugu apurka. 2020-2024 aldirako aurreko planari esker, 14 urtetik gorako eta 18 urtetik beherako adingabeek egin zituzten delitu-egitateei erantzukizunean eta hezkuntzan oinarritutako erantzuna ematean oinarritutako eredu bat finkatu zen.

2025. urtea ebaluatzeko, datuak biltzeko eta azterketen ondorioak ateratzeko aldia izan da; hori guztia 2020-2024 aldirako V. Planean adierazitako helburuen irismena baloratzeko.

Oraindik ere, gure Gazte Justiziako sistemaren jarraibideak bideratzen eta ezartzen dituen araudia Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa da, eta lege hori honako lege hauek aldatu dute: abenduaren 22ko 7 eta 9/2000 Lege Organikoek, abenduaren 10eko 9/2002 Lege Organikoak, azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoak eta abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak.

Horiei gehitu zitzaizkien uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretua -5/2000 Lege Organikoa garatzeko erregelamendua onartzen duena- eta 8/2006 Lege Organikoa -5/2000 Lege Organikoa aldatzen duena-, 2007ko otsailean indarrean jarri zena.

2008an, irailaren 30eko 163/2008 Dekretua jarri zen indarrean, EAEko adingabe arau-hausleei gizarte- eta hezkuntza-arreta eskaintzeko erakunde laguntzaileak baimentzeari, homologatzeari, ikuskatzeari eta erregistratzeari buruzkoa; eta 2009an, berriz, 80/2009 Dekretua, apirilaren 21ekoa, neurri askatasun-gabetzaileak betearazten dituzten EAEko ikastetxeei buruzkoa. Halaber, araudi hori indartu egin zen, zigor-prozesuetako susmagarri edo akusatu adingabeen prozesu-bermeei buruzko 2016ko maiatzaren 11ko 800/2016 Zuzentaraua barne-zuzenbidera sartzean;

eta, oraindik orain, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean zaintzeko eta modu integralean babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Nerabeei buruzko otsailaren 15eko 2/2024 Legea. Lege horren helburu nagusia da urrats erabakigarria ematea EAEko ordenamendu juridikoa –haur eta nerabeei dagokienez– aplikatzeko den nazioarteko, Europako eta Estatuko esparrura egokitzeko. Esparru hori Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenean oinarrituta eraikitzen da, adingabeak subjektu parte-hartzailatzat jotzea bilatzen du, eta protagonismo gehiago ematen dio familian eta bere inguruko komunitatean duten eginkizunari. Azken batean, gizartearen eraikuntzan aktiboki parte hartzeko legitimazioa duten subjektutzat jotzen ditu; bereziki, eragiten dieten gai guztietan parte hartzeari dagokionez, horien barruan sartzen baitira bere titulartasuneko eskubideei eragiten dieten politika publikoak.

Azkenik, Justizia Zerbitzu Publikoaren efizientziaren arloko neurriei buruzko urtarrilaren 2ko 1/2025 Lege Organikoa berriki onartu da. Lege horrek 8/2021 Lege Organikoaren azken xedapenetako hogeigarrenean ezarritako agindua jasotzen du, indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei arreta emateari buruzkoa; horretarako, organo judizialak eta horietan dihardutenak kausa penalak bideratzen eta epaitzen –adingabeen aurka egindako delituengatik– espezializatu beharko dira.

Aplikatu beharreko araudiak, beraz, jurisdikzio espezializatua duen gazte-justiziako eredu bat bultzatzen du, akusazioa, aukera, gutxieneko esku-hartzea, proportzionaltasuna eta adingabeen interes gorena bezalako printzipioetan oinarrituta. Eredu horretan, helduen zigor-justiziaren pareko eskubide eta bermeak ematen zaizkie adingabeei, gutxienez. Halaxe egiten da, gainera, adingabeen fiskaltzak zeregin garrantzitsua bete ahala.

Neurri zehatzailea nahiz hezitzailea duten adingabeak gutxiengoa dira adin-tarteko biztanleria osoarekiko. Gatazka gehienak neurri judizialak ezarri behar gabe konpontzen dira. Hala ere, arretaz aztertu behar dira hezkuntzaren, familiaren, osasunaren, lanaren eta komunitatearen eremuetan prebentzioaren arloko ahalegina areagotzeko beharra iradokitzen duten askotariko egoerei buruzko datuak.

Izan ere, behar horren adibide argia dira haur eta nerabeen artean genero-indarkeriako egoerak ugaritu izana, Espainian % 87,2 areagotu

baitira 2018. eta 2022. urteen arteko epean; eta, gainera, nerabeen % 79,5ek teknologia berrien bidez jasaten dute indarkeria mota hori (pandemiaren ondoren, kasuen kopurua % 82 igo zen). Adin-talde nagusia 14 eta 17 urte bitartekoa da (% 63,7), baina hamarretik hiruk (% 32,6) adinez nagusiak dira. Erasotzailearen profilari dagokionez, genero-indarkeria dela-eta artatutako nerabeen kasuen % 57an, erasotzailea mutil-laguna da. Horrela dago jasota ANAR Fundazioak egindako «Espainiako nesken aurkako indarkeriaren bilakaera haurtzaroan eta nerabezaroan (2018-2022)» txostenean.¹

En la misma línea, es preciso considerar que se han afianzado las formas de acoso en el entorno digital, consideradas un riesgo emergente en el anterior Plan. La Estrategia BIK+ (Better Internet for Kids, una internet mejor para las personas menores), adoptada en mayo de 2022, sigue siendo el eje central para garantizar que las personas sean respetadas y protegidas en el entorno digital. La Comisión Europea publicó en julio de 2025 el primer informe de evaluación de dicha estrategia, en la que, entre otras cuestiones, se plantea la necesidad de reforzar la verificación de edad y la protección frente a riesgos emergentes (IA, micropagos).

Ildo beretik, kontuan hartu behar da finkatu egin direla ingurune digitaleko jazarpen-moduak; izan ere, jazarpen-modu horiek arrisku berritatz jotzen ziren jada aurreko planean. BIK+ Estrategia (*Better Internet for Kids*, edo 'adingabeentzako Internet hobea') 2022ko maiatzean onartu zen, eta oraindik ere ardatz nagusia da ingurune digitalean pertsonak errespetatzen eta babesten direla bermatzeko. Europako Batzordeak 2025eko uztailan argitaratu zuen estrategia hori ebaluatzeko lehen txostena eta, bertan, besteak beste, adinaren egiaztapena eta sortzen ari diren arriskuekiko babesa indartzeko beharra planteatzen da (Adimen Artifiziala, mikroordainketak).

Testuinguru horretan, nabarmendu behar da Europako Parlamentuak txosten bat onartu zuela 2025eko azaroan, eta, bertan, adingabeen osasun fisikoa eta mentala ingurune digitalean kaltetzen dituzten arriskuekiko kezka adierazten du. Hala, babes handiagoa eskatzen du mendekotasuna areagotu dezaketen, adingabeen kontzentrazio-ahalmena gutxitzen duten, eta lineako

¹ ANAR Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta arriskuan dauden haur eta nerabeei laguntzen die. 1970ean sortu zen, eta arrisku- eta babesgabezia-egoeran dauden haur eta nerabeen eskubideak sustatzen eta defendatzen ditu; eta, horretarako, proiektuak garatzen ditu Espainian eta Latinoamerikan, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenaren esparruan.

edukiekin modu osasungarrian elkarreragiteko gaitasunari kalte egiten dioten manipulazio-estrategien aurka. Era berean, AA Sortzaileko tresnek suposatzen dituzten erronka etiko eta juridikoei (hala nola ultrafalsifikazioak, konpainiako txatbotak, Aako agenteak eta manipulaturako irudiak baimenik gabe sortzen dituzten AAn oinarritutako biluztasun-aplikazioak) aurre egiteko premiazko neurriak ezartzeko beharra proposatzen da.

Adingabe guztiei eragin diezaieketen gaiez gain, kontuan hartu behar dira kalteberatasun bereziko egoeran dauden haurrei eta nerabeei eragiten dieten premia espezifikokoak. Euskadiko Haur, Nerabe eta Familiei Laguntzeko Erakunde arteko V. Plana egiteko oinarri gisa burututako 'egoeraren diagnostikoaren' testuinguruan, desgaitasuna duten, migratzaile diren edo babesik gabe dauden haur eta nerabeez ari gara, hots, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak artatutako pertsonak. Hala ere, migrazio-prozesuek dakartzaten zailtasun gehigarriak direla eta (bereziki, helduen laguntzarik gabe egiten direnean), migratzaileek arreta berezia behar dute.

Gazte-justiziako azken planak aplikatzean, zentroen, baliabide materialen eta giza baliabideen sarea eta funtzionamendu-eredua finkatu ahal izan dira, egungo beharrezanen eta aurreikuspenen arabera. Une honetan, gure ingurunean dauden zailtasunak, horien kausak eta horiei aurre egiteko soluzio posibleak aztertu behar dira. Eusko Jaurlaritza egungo beharrezanetara egokitu da egitura- eta antolaketa-aldaketak ezarriz: 2024ko ekainaren 24tik, Gazte Justizia 'Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren' esku egongo da, helburu honekin: «gazte-justiziaren arloko neurri judizialen betearazpena kudeatzea delituen biktimei arreta emanez, biktimagileak birgizarteratzeko lan eginez, eta pertsona guztiei justiziarako sarbidea bermatuz doako laguntza juridikoa eskainiz». Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko helburua lantzen jarraitzen dugu, eta, hala, prebentziozko orientazioa aplikatu da sail guztien jarduera-eremuetan, baldin eta horien politikak loturarik badute haurren, nerabeen, eta, oro har, gazteen gainean.

Horretarako, kontuan hartu behar dira beste sail batzuen gomendioak, bereziki Herriaren Defendatzailearenak; izan ere, berriki emandako gomendioetan adierazi du «protokolo zehatz bat ezarri behar dela zentroan sartu aurretik jasandako indarkeriari buruz ikertzeko eta nahitaezko erantzun terapeutikoa eta babesa emateko. Indarkeriaren biktima diren haur eta nera-

been birgaitze fisiko, psikiko, psikologiko eta emozionala sustatzeko behar diren neurri guztiak hartzeko irizpide orokorra betearazteko, ezinbestekoa da jasandako indarkeria goiz detektatzea (Haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Legearen 4.2 artikulua). Neurriak hartu behar dira erabateko askatasuna ez duten lesbiana, gay, bisexual eta transgeneroen eskubideak babesteko eta sustatzeko, eta haien behar espezifikoak erantzuteko; hala, neurri horiek ezin dira diskriminatzailetzat jo». Neurri egokiak hartu ahal izateko, ezinbestekoa da arazoa agerian jartzea eta horri buruzko datuak izatea.

Azken hamarkadetan zehar antzeman ahal izan denez, apurka-apurka jaitsi egin da gazteen delinkuentzia. Halaber, azken urteetan, oro har, egingandako arau-hausteen kopuruak joera nahiko egonkorrari eutsi dio eta neurrien eskariak apur bat igo dira.

Gazte-justiziaren sistemaren funtzionamenduak halako gertaeren bilakaeran duen eragina zehaztea ausartegia izan daitekeen arren, hezkuntzarloan egiten ari den lana eraginkorra izaten ari dela baieztatu genezake, aldaketa nabarmenak egiaztatu baitira adingabeen jarreran. Berrerortzeari gagozkiola, neurri judiziala amaitu ondoren, berrerortze globaleko tasa % 15 baino baxuagoa da.

Badaude beste datu esanguratsu batzuk ere: ingurune irekiko esku-hartzeen eredia finkatu egin da, neurri irmoen aldean kontziliazio eta konponketarako prozesuen ehuneko garrantzitsu bat finkatu da, eta beste erakunde batzuen jarduerak eragina izan dute gazte-justiziako prozesuetan (hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, enplegua, osasuna, atzerriartasuna...).

Gazte Justiziako VI. Planak (2025-2029) honako helburu hauek ditu: adingabeen epaitegien ebazpenak garaiz betearaztea; kontziliazio eta erreparaziorako programetarako sarbidea erraztea eta erantzuna pertsona bakoitzaren arabera egokitzea, eskariari jarraikiz egokitzen diren programan bidez; adingabeen arau-haustek prebenitzea eta murriztea; gazte-justizian parte hartzen duten agenteei prestakuntza ematea; informazioa biltzeko sistema hobetzea, eta gazte-justiziako sistemaren mekanismoak ebaluatzea.

Haur, nerabe eta gazteengan eragina duten erakunde eta agente guztien arreta osoa eta koordinatua da VI. Plan honen gakoetako bat.

Hori dela eta, helburu orokorrez gain, sailen arabera beste helburu batzuk ere badaude, ekinbide askotan banakatuta, eta Eusko Jaurlaritzako honako sail hauek inplikatzen dituztenak: Segurtasuna, Osasuna, Ekonomia, Lana eta Enplegua, etab.

Neurri horien arabera, haurrekin eta nerabeekin nahiz haurrentzat eta nerabeentzat lan egiten duten eremu instituzionaletan prebentzioa landu beharra dago, bai hezkuntza-eremutik, bai familiarik edo osasunetik, bai eta familiarren, hezkuntzaren eta gizarteratzeko nahiz laneratzeko laguntzaren gainean ere. Guztia, betiere, oro har adingabeekiko prebentzio-ikuspuntu batetik begiratuta, baita babesgabekiko edo arrisku-egoeran dauden adingabeekiko edo portaera arau-hauslea dela-eta jada zehazpen bat jaso duten adingabeekiko ere.

Gainera, Gobernu honen konpromiso eta ekinbideetako askok eragin zuzena dute gazte-justiziak arrakasta izan dezan. Horren adibide dira gazte-enpleguko eta lanbide-heziketako planak, gizarteratzeko eta gizarte-zerbitzuetako planak, etxebizitza eskuratzeko, osasuneko eta genero-indarkeriaren aurka egiteko planak eta beste batzuk.

Bestalde, Gazte Justiziako VI. Planak adingabeen jurisdikzioaren arloko bitartekaritza-prozesuak sustatzeari eusten dio neurri irmoen alternatibagisa, eta, era berean, adingabeen zerbitzuentzako erantzukizun publiko eta kudeaketa mistoko egungo ereduari eusten dio, titulartasun eta kudeaketa publikoko zerbitzuen gune batekin, hirugarren sektorea titulartasun publikoko zerbitzu jakin batzuetan itundurik eta beharrezkoak diren beste zerbitzu batzuen laguntzaz.

Azken batean, gure asmoa da plan hau tresna ezin hobea bihur dadila gizarte-alarmak desaktibatzeke, aniztasunari balioa emateke, estereotipoak gainditzeko, eta, zelan ez, tolerantzian aurrera egiteke.

SARRERA

2025-2029 aldirako Gazte Justiziaren VI. Plan hau (behin-behineko agiria) seigarren plana da, Eusko Jaurlaritzak 1996. urtean adingabe arau-hausleak gizarteratzeko eskuduntza hartu zuenetik.

Plan honek argi eta garbi jarraitzen du lehen ere 2020-2024ko V. Planean zehazten zen zeharkakotasunaren joera. Hala, ezartzen diren lerro estrategiko, helburu eta ekintzen garapenak berariaz konprometitzen eta lotzen ditu adingabeekin zerikusia duten gaietan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako hainbat sail, hala nola Segurtasun Saila, Hezkuntza Saila, Osasun Saila eta, jakina, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Beste hitzetan, horiek guztiak lotzen dituen elementua da plana.

2025-2029ko VI. Plana Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren 2020-2024ko V. Planaren Ebaluazioaren ondorio nagusietatik sortu da. Ebaluazio hori Euskal Herriko Unibertsitateak egin berri du, erakunde publikoa eta Eusko Jaurlaritzatik kanpokoa bera. Horrez gain, kontuan hartu dira gure ingururik hurbilenean gazte-justiziaren arloan antzeman eta egiaztatu diren joerak, bai eta gainerako erkidegoetan eta urrunagoko beste errealitate batzuetan antzeman eta egiaztatutakoak ere, elkarlanean egindako nazioarteko ikerketa-lanen, jarduera-memorien, nazioarteko kongresu eta foroetako partaidetzaren eta abarren bidez.

Hauk dira 2025-2029ko VI. Plana egituratzen duten hamabi atalak:

Lehenik eta behin, gazte-justiziarekin eta gizarte-arriskuan dauden adingabeekin zuzenean lotutako nazioarteko, estatuko eta autonomia-erkidegoetako arau-tresna nagusiak hautatu dira. 2025-2029 VI. Planaren, eta, azken batean, EAEn arau-hausle adingabeekin egiten diren ekintza guztien ardatz diren oinarrizko erregelamenduak.

Ondoren, Gazte Justiziaren V. Planaren (2020-2024) ebaluazioaren eta Gazte Justiziaren Zerbitzuaren 2025eko Memoriaren laburpenak aurkeztu dira, funtsezko elementuak baitira datozen urteetan gure inguruko gazte-justiziaren arloaren lan-ildoak zehazteko.

Horrelako plan batean, beharrezkoa da gaia Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean txertatuta egotea, bai eta EAEko gazte-justiziaren printzi-

pio eta ildo estrategikoak ezartzea ere. Izan ere, ezinbesteko elementuak dira 2025-2029ko VI. Plana egiteko prozesuan.

Beste atal handi bat plan honetan inplikaturako sail bakoitzeko helburu orokorrei eta helburu espezifikoiei buruzkoa da. Era berean, funtzio-namendu-jarduera eta hobekuntza-ekintza batzuk aurkeztu dira, guztiak ere gauzatze-egutegi baten inguruan egituratuta, berariaz ebaluatu behar diren kontzeptuak baitira.

Azkenik, plan honen kudeaketa-eredua zehaztu da, aurreikuspen ekonomikoen, giza baliabideen eta baliabide materialen atalekin batera, garrantzi berezia emanik plan honen kanpo-ebaluazio publikoari.

1. GAZTE-JUSTIZIAREN ARLOKO TRESNAK: NAZIOARTEA, ESPAINIAKO ESTATUA ETA EAE

Adingabe arau-hausleei buruzko nazioarteko, estatuko eta autonomia-erki-degoetako tresna ugari daude. Hori dela eta, oso garrantzitsua da gazte-justiziar buruzko politikaren plangintzan horien guztien edukia kontuan hartzea.

Atal honetan, EAEko Gazte Justiziaren VI. Planaren (2025-2029) oinarrian dauden nazioarteko, estatuko eta autonomia-erkidegoko araudi nagusien ikuspegi laburtua azaltzen da.

1.1 Nazioarteko tresna nagusiak

Gazte-justiziarekin lotutako nazioarteko lege-tresna nagusiak dira legearekin gatazkan dauden adingabeen eskubideen, prozesu-bermeen eta tratamenduaren gutxieneko estandarrak ezartzen dituztenak, Nazio Batuen Erakundeak eta Amerikako Estatuaren Erakundeak (AEE) onartuak. Honako hauek dira zeharkako printzipio nagusiak nazioarteko tresna guztietan: adingabearen interes gorena (funtsezko kontsiderazio gisa), errugabetasun-presuntziorako eta adinera egokitutako prozesu egokia jasotzeko eskubidea, askatasunaz gabetzeko zigorra azken baliabidea izatea, atxilotuta dauden heldu gazteak bereiztea, hezkuntza, prestakuntza, osasun-arreta eta aisialdia jasotzeko aukera izatea, kalteberatasun-egoeretan (guda, sexu-esplotazioa, etxeko indarkeria) dauden biktimei eta adingabeei arreta berezia ematea, eta ikuskapen independentea eta abusuen aurkako salaketa-mekanismoak bermatzea. Hona hemen garrantzitsuenak:

1.1.1 Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena (HEH, 1989, NBE)

NBEren Batzar Nagusiak onartu zuen, eta munduko ia estatu guztiek berretsi zuten. Eskubideak aitortzen dizkie 18 urtetik beherako pertsona orori, eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak barne.

Gazte-justiziaren printzipio garrantzitsuak:

- Haurren interes gorena (3. art.).
- Tortura eta zigor krudel, anker edo umiliagarrien aurkako babesa (37. art.).

- Prozesu egokia eta lege-laguntza jasotzeko eskubidea (40. art.): Errugabetasun-presuntzioa, Karguei buruzko informazioa jasotzeko eta defendatzeko eskubidea, Adinari eta birgizarteratzeari egokitutako prozesuak jasotzeko pribilegioak.
- Askatasun-gabetzea ordeztzeko neurriak eta hezkuntza- eta errehabilitazio-ikuspegia sustatzea.

1.1.2 Nazio Batuen Arauak askatasuna kendu zaien adingabeak babesteko (Beijingo Arauak, 1985)

Gazte-justizia mundu-mailan aplikatzeko gida praktikotzat erabiltzen dira, eta askatasuna kendu zaien adingabeak tratatzeko eta atxilotzeko gutxieneko arauak eta baldintzak –hurrenez hurren– ezartzen dituzte. Hona hemen horien funtsezko printzipioak:

- Askatasuna kentzeko neurria azken baliabidea izatea, eta ahalik eta denbora laburrenean aplikatzea.
- Helduengandik bereiztea.
- Hezkuntzarako, lanbide-heziketarako eta aisialdirako eskubidea.
- Isilpeko espediente pertsonalak.
- Osasun fisikoa eta mentala artatzea, mendekotasunak prebenitzeko eta tratatzeko programak barne.

1.1.3 Adingabeen justiziaren administrazioari buruzko Nazio Batuen arauak (Riadeko arauak, 1984)

‘Gazte Justiziari buruzko Nazio Batuen Arauak’ ere esaten zaie. Adinera egokitutako gazte-justiziako sistemetarako estandarrak ezartzen dituzte, eta honako hauek sustatzen dituzte:

- Adingabeei zuzendutako prozedura espezializatuak.
- Zehapen alternatiboen erabilera.
- Gutxieneko esku-hartzearen eta esku-hartze proportzionalaren printzipioa.
- Epailleen, fiskalen eta espetxeko langileen trebakuntza espezializatua.

1.1.4 Gazte Justiziari buruzko HEHren protokoloak

Adingabeak babesteko printzipioak indartzen dituzte –batez ere gatazka- edo abusu instituzionaleko testuinguruetan–, eta nazioarteko salaketa- eta gainbegiratze-mekanismoak bermatzen dituzte.

- Hurrek gatazka armatuetan parte hartzeari buruzko aukerako protokoloa (2000).
- Haurren Eskubideen Batzordeari zerbait jakinarazteko prozedurari buruzko aukerako protokoloa.

1.1.5 Tokioko eta Habanako printzipioak eta arauak (NBE)

Gazte-justiziarako erreferentzia-esparru globala osatzen dute Beijingo eta Riadeko Arauekin batera, eta giza eskubideetan eta errehabilitazioan oinarritzen dira. Tokioko Arauek (1990) askatasuna kendu zaien adingabeak tratatzeko printzipioak ezartzen dituzte, eta Habanako Arauak (1990), berriz, askatasuna kentzen ez duten eta gizarteratzen laguntzen duten neurrietan oinarritzen dira.

1.1.6 Haurren Eskubideei buruzko Konbentzio Interamerikarra (AEE, 1994)

Adingabeen babes integrala indartzen du, eta salbuespenezko atxilotzeari, errehabilitazioari eta birgizarteratzeari buruzko arauak jasotzen ditu.

1.1.7 AEEren Gazte Justiziaren Printzipioen Arauak:

Nazioarteko estandarrekin bat datoz, eta neurri alternatiboak, adingabearen parte-hartzea eta haren eskubideen errespetua sustatzen dituzte zigor-arloko prozesuetan.

1.2 Gazte Justiziari buruzko Europako tresna nagusiak

Gazte-justiziaren Europako esparrua honako hauek osatzen dute nagusiki: Europako Kontseiluaren Gomendioek, Europar Batasunaren tresnek, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak eta zeharkako garrantzia duten Europako Kontseiluaren beste tresna batzuek. Tresna horiek gazte-justiziaren sistemarako estandar komunak ezartzen dituzte, eta hezkuntzan, birgizarte-

ratzean, proportzionaltasunean eta berme prozesalean oinarrituta daude. Hona hemen garrantzitsuenak:

1.2.1 Europako Kontseiluaren gomendioak

Europako Kontseiluak hainbat arau-tresna garatu ditu, eta tresna horien xedea estatu kideak orientatzea da, eskubideak errespetatzen dituzten, delituak eraginkortasunez aurreikusten dituzten, eta adingabe arau-hausleak gizarteratzean oinarritzen diren gazte-justiziako sistemak sor ditzaten. Gomendio horiek juridikoki lotesleak ez badira ere, onarpen nabaria duten estandarrak dira, eta eragin nabarmena dute Europako herrialdeetako lege-rian eta politiketan. Hauek dira garrantzitsuenak: CM/Rec(2008)11 Gomendioa, R(87)20 Gomendioa, Rec(2003)20 Gomendioa, Rec(2000)20 Gomendioa eta R(88)6 Gomendioa.

Zehapenak edo Neurriak jaso dituzten Gazte Delitugileei zuzendutako Europako Arauak (CM/Rec(2008)11)

Gomendio hau gazte-justiziari buruzko arau-esparrurik osoena da Europan. Adingabe arau-hausleak tratatzeko printzipio orokorrak ezartzen ditu, eta hezkuntzan, garapen pertsonalean eta birgizarteratzean oinarritutako erantzuna sustatzen du –ez soilik zigorrean oinarritutakoa–. Gomendioak ezartzen duenez, adingabeei zuzendutako esku-hartze orok legezotasunaren, proportzionaltasunaren eta gutxieneko esku-hartzearen printzipioak bete behar ditu, eta neurri komunitarioak lehenetsi behar ditu askatasuna kentzen duten neurrien aurrean.

Testuak ezarritakoari jarraikiz, prozedura judizialak adingabearen adinera, heldutasunera eta egoerara egokitu behar dira, eta informazio ulergarria jasotzeko, prozesuan aktiboki parte hartzeko eta laguntza juridiko eraginkorra izateko eskubideak bermatu behar dira. Banakako ebaluazioen garrantzia azpimarratzen du, ikuskapeneko, hezkuntza-laguntzako, tratamendu psikologikoko edo esku-hartze sozialeko programa espezifikoak diseinatzea ahalbidetzen baitute.

Era berean, askatasuna kentzen ez duten zehapenei buruzko estandarrak ezartzen ditu, hala nola zaintzapeko askatasuna, bitartekaritza, kal-

te-ordaina eta gizartearentzako lanak. Askatasuna kentzen duten zehapenei dagokienez, Gomendioak muga zorrotz bat ezartzen du: azken baliabide gisa erabili behar dira soilik, ahalik eta epe laburrenean, eta berariaz adingabeentzat diseinatutako instalazioetan. Zentro horiek ingurune segurua eta hezkuntza oinarritutakoa eskaini, derrigorrezko eskolatzea eta lanbide-heziketa bermatu, osasun fisikoa eta mentala zaindu, eta familiarekiko lotura sustatu behar dute. Halaber, diziplinari, indarraren erabilerari eta hertsadura-neurrii buruzko irizpide zorrotzak ezartzen ditu; izan ere, irizpide horiek salbuespenezko egoeretan, modu proportzionalan eta norbaitek gainbegiratuta aplikatuko dira.

Zigor askatasun-gabetzaileak jaso dituzten adingabe arau-hausleentzako Europako arauak (R(87)20)

Gomendio hori 2008koa baino lehenagokoa da, eta adingabeak atxilotzeko gutxieneko estandarrak ezartzen ditu. Adingabeak eta helduak bereizteko eskakizuna nabarmentzen da, betiere adingabeari mesede egiten dion ezohiko egoeraren bat ematen ez bada. Zentroek hezkuntza eta berreziketa izan behar dituzte ardatz; hala, bizi-baldintza duinak bermatu behar dituzte, eta arreta mediko egokia, jarduera fisikoak eta aisialdikoak egiteko ahalmena, ikasteko aukerak eta lanerako prestakuntza eskaini behar dituzte.

Testuak azpimarratzen duenez, zigorrak giza duintasuna errespetatu behar du, eta erregelamendu argien mende egon behar du. Isolamendu-neurriak salbuespenez eta kontrol zorrotzaren pean baino ezin dira aplikatu. Halaber, Gomendioak azpimarratzen du, alde batetik, kalteberatasun-egoeretan dauden adingabeekin lan egiteko gaitasuna duten langileak behar direla; eta, bestetik, langile horiek pedagogia eta gatazken kudeaketarekin lotutako prestakuntza jaso behar dutela.

Rec(2003)20 Gomendioa, gazte-delinkuentzia tratatzeko modu berriei buruzkoa

Gomendio horrek adingabe arau-hausleak tratatzeko ikuspegi berritzailea txertatzen du, eta zigor-arloko prozesu tradizionala ordeztzeko metodoen garrantzia nabarmentzen du. Jardunbide errestauratiboen erabilera sustatzen du –hala nola biktimaren eta arau-hauslearen arteko

bitartekaritza eta kalte-ordainetarako akordioak-, eta horien onurak adierazten ditu adingabeak ardua hartzeari, biktimen gogobetetasunari eta berrerortzea murrizteari dagokienez.

Dokumentuak gomendatzen duenez, Estatuak erantzun estrajudizialen erabilera zabaldu beharko lukete –larritasun txikiagoko kasuetan, bereziki-, eta trebetasun sozialetan, familia-laguntzan eta berrerortzeen prebentzioan oinarritutako programa komunitarioak garatu beharko lituzkete. Gizarte-, hezkuntza- eta osasun-zerbitzuak koordinatzearen garrantzia nabarmendu du adingabearen premiei modu integralean erantzun ahal izateko.

Rec(2000)20 Gomendioa, Esku-hartze sozialak Gazte-delinkuentziaren Prebentzioan duen Eginkizunari buruzkoa

Gomendio horrek prebentzioa du ardatz, eta, horren arabera, gizarte-zerbitzuek, eskolek, familiek eta tokiko komunitateek funtsezko zeregina dute. Bertan defendatzen denez, gazte-delinkuentzia ez da zigor-gaitzat soilik jo behar; aitzitik, gizarteratze-politikak, arriskuan dauden familientzako laguntza, lotura komunitario sendoagoak eta hezkuntza- eta lan-aukera ho-beak eskatzen duen fenomeno sozialtzat jo behar da.

Testuak esku-hartze goiztiarrak –bereziki testuinguru kalteberetan- eta arrisku sozialaren zantzuak, eskola-absentismoa, familia-gatazkak edo substantzien kontsumoa pairatzen dituzten adingabeei zuzendutako programak sustatzen ditu. Nabarmetzen denez, erantzun koherenteak eta etengabeak bermatu ahal izateko, erakundeen arteko koordinazioa ezinbestekoa da.

R(88)6 Gomendioa, gizartearen erreakzioari buruzkoa gazte-delinkuentziaren aurrean

Gomendio honek erantzun sozial proportzionalen, hezigarrien eta adingabearen etorkizunera bideratutakoen alde egiten du. Gehiegizko zigorrak eta arazoa larriagotu dezaketen esku-hartzeak saihesteko gonbita egiten du. Neurri komunitario eta hezkuntza-neurrien sorta zabala proposatzen du adingabeak erantzukizuna har dezan (sistema penalak adingabe arau-hauslea estigmatizatu gabe).

Gomendioak, halaber, nerabeekin lan egiten duten langileen pres-takuntzaren, ebaluazio zientifikoko irizpideak erabiltzearen –programa era-

ginkorrak zehazteko-, eta datuak sistematikoki biltzearen -politika publikoak hobetzeko- garrantzia azpimarratzen du.

Ondorioz, esan dezakegu Europako Kontseiluaren Gomendioek esparru koherentea ezartzen dutela, non adingabeak eskubideak eta bere adinetik eta garapen-prozesutik eratorritako premia espezifikoak dituen. Hezkuntzan, proportzionaltasunean, gutxieneko esku-hartzean, prebentzioan eta birgizarteratzean oinarritutako gazte-justiziaren alde egiten dute. Tresnek honako hauek sustatzen dituzte: sistema judicial espezializatua, zehapen alternatiboak, baldintza duinak barneratze-zentroetan, langileen lanbide-gaikuntza eta ikuskapen-mekanismo independenteak. Tresna horien eragina nabarmena da, Europako gazte-justiziaren sistemak eredu humanitarioagoetara, errestauratiboagoetara eta haurrei zuzendutakoetara pixkanaka igarotzen ari baitira.

1.2.2 Europar Batasunaren tresnak

Zigor-prozeduretan inplikaturako adingabeen oinarritzko eskubideen babesa indartzeko eta estandar komunak ezartzeko (berme prozesalen, delituen prebentzioaren eta biktimentzako laguntzaren arloetan) tresna juridiko, estrategiko eta programatikoen multzo bat garatu du Europar Batasunak. Gazteen zigor-arloko justizia estatu kideen oinarritzko eskumena bada ere, EBk ekarpen erabakigarria egin du gutxieneko estandarrak harmonizatzeko eta haurren eskubideetan oinarritutako ikuspegi integrala sendotzeko.

Zigor-prozesuetako susmagarri edo akusatu adingabeen prozesu-bermeak (2016/800 [EB] Zuzentaraua)

Tresna hori gazte-justiziaren arloko arau garrantzitsuena da Europako esparru juridikoaren barruan. Gutxieneko berme komunak ezartzen ditu Estatu kideetako zigor-prozeduretako adingabe susmagarri edo akusatu guztientzat.

Printzipio nagusien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Adingabearen kalteberatasun berezia aitortzea, eta, hala, adinera eta heldutasunera egokitutako prozedura-egokitzapenak eskatzea.
- Informazio argia eta ulergarria jasotzeko eskubidea, eskubide prozesalak eta akusazioen izaera berehala jakinaraztea barne.

- Abokatu baten laguntza izateko eskubidea prozeduraren lehen faseetatik, instrukzio osoan zehar eta epaiketan.
- Adingabearen parte-hartze eraginkorra, prozesua ulertzen duela eta bere jarrera adierazteko gaitasuna duela ziurtatzen duten neurriak aplikatuz.
- Banakako ebaluazioa gauzatzea premia zehatzak, inguruabar pertsonalak eta arriskuak identifikatzeko eta, ondoren, neurri judizialak edo hezkuntzakoak bideratzeko.
- Askatasuna kentzeko neurria zorrotz mugatzea; izan ere, neurri hori azken baliabide gisa, ahalik eta eperik laburrenean eta heldu arau-hauslerik gabeko instalazio bereizietan soilik aplikatu ahal izango da.
- Guraso-ahalaren titularra bertan egoteko eskubidea, betiere hori adingabearen interes gorenaren aurkakoa ez bada.
- Pribatutasunaren babes indartua; hala, debekatu egiten da datu pertsonalak publikoki zabaltzea (salbuespenezko egoeretan izan ezik).

Zuzentarauari esker, aurrerapauso handia eman da prozesuetako estandarrak bateratzeko bidean, eta adingabe guztiak duintasunez tratatuko direla eta edozein Estatu kideetan defentsa egokia jasoko dutela bermatzen da.

Biktimen eskubideak (2012/29/EB Zuzentaraua)

Zuzentarau honek, adingabe arau-hausleetara mugatzen ez bada ere, biktima guztiei zuzendutako zeharkako babes-esparru bat ezartzen du (delituak jasan dituzten adingabeen berariazko babesa barne, zuzeneko edo zeharkako biktima gisa).

Gazte-justiziarako funtsezko xedapenak ditu, esaterako:

- Adinari egokitutako tratu espezializatua jasotzeko eskubidea.
- Babes-premia espezifikoa identifikatzeko xedea duten banakako ebaluazioak egiteko betebeharra.
- Birbiktimizazioa debekatzea, eta, ondorioz, beharrezkoak ez diren erasotzailearekiko harremanak saihestea eta ingurune seguruak sortzea deklarazioak egin behar direnean.
- Laguntza psikologikoko eta birgaikuntzarako zerbitzuak eskuratzeko bermea.

Tresna horrek eragin sakona izan du aldez aurretik eraturako frogaren arauketari dagokionez, adingabeen deklarazioen grabazioei dagokienez, eta haurrentzako areto atseginak sortzeari dagokionez.

Haurren Eskubideei buruzko EBren Estrategia

Europar Batasunak hainbat estrategia eta ekintza-plan hartu ditu, eta berriena Haurren Eskubideei buruzko EBren Estrategia da (2021-2024). Estrategia horrek irismen zabala du, eta sistema judizialekin harremanetan dauden adingabeei –biktima, lekuko edo arau-hausle gisa– zuzendutako ardatz bat barne hartzen du.

Hauk dira haren xede nagusiak:

- Hurrei egokitutako eta haien duintasuna errespetatzen duten justizia-sistemak sustatzea.
- Adingabeekin harremanetan dauden epaile, fiskal, polizia eta profesionalen prestakuntza hobetzea.
- Gatazkak konpontzeko eredu errestitutiboak eta metodo alternatiboak sustatzea.
- Haurrentzat atseginak diren epaitegiak bermatzeko neurriak sustatzea, epaitegi horiek ikus-entzunezko baliabideak, laguntza profesionala eta ingurune seguruak eduki ditzaten.

Adingabeak esan beharrekoa berari eragiten dioten prozedura guztietan entzuteko duen eskubidea finkatzea.

Europako Segurtasun Agenda eta Gazte Delinkuentzia Prebenitzeko Programak

Orain, EBren prebentzio-politika orokorrak gazte-delinkuentzia barne hartzen du. Delitua Prebenitzeko Europako Sarearen (EUCPN) bidez, honako hauek sustatzen dira:

- Prebentzio goiztiarra gauzatzeko jardunbide egokiak eskoletan, auzoetan eta gizarte-zerbitzuetan.
- Arriskuan dauden gazteei, eskola-absentismoari, berdinen arteko indarkeriari eta substantzien kontsumoari buruzko programak.
- Familiak, tokiko komunitateak eta zerbitzu publikoak integratzen dituzten ikuspegi komunitarioak.

Testuinguru horretan, gazteen delinkuentzia faktore anitzak uztartzen dituen gizarte-fenomenotzat jotzen da, eta, hala, zeharkako esku-hartzeak –eta ez soilik zigorrekoak– eskatzen ditu.

Zigor-arloko lankidetzak judizialeko tresnak (Eurojust, Europol eta Atxilotzeko eta Entregatzeko Europako Agindua)

EBko lankidetzak judiziala nagusiki helduei zuzenduta badago ere, honako hauek adingabeak ere babesten dituzte zeharka:

- Europolek eta Eurojustek koordinatutako mugaz gaindiko jarduketetan adingabeak babesteko protokoloek.
- Atxilotzeko eta Entregatzeko Europako Aginduaren (DDEB) arau zehatzek (adingabearen interes gorenaren azterketa indartua eskatzen dutenak entrega baimendu aurretik).
- Prozesuaren fase guztietan adingabeak tratatzeko Europako estandarrik errespetatzeko betebeharrak, baita beste Estatu kide baten erabakiak gauzatzen direnean ere.

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna

Gutuna loteslea da 2009tik, Europako legeri osorako erreferentzia-esparru gisa dihardu zigor- eta prozesu-arloan –adingabeei eragiten dienean–, eta berariaz aitortzen du:

- Adingabearen eskubidea babesa izateko eta osasun-egoera onean egoteko behar dituen zainketak jasotzeko (24. art.).
- Haren interes gorena kontuan hartzeko betebeharra (funtsezko kontsiderazio gisa).
- Familia-harremanak izateko eta esan beharrekoa entzuteko eskubidea.
- Tratu anker edo umiliagarriak debekatzea eta bere askatasuna mugatzen duen neurri oro adingabearen duintasuna errespetatzen duen baldintzetan gauzatzeko betebeharra.

Azken batean, Europar Batasunaren tresnen multzoak esparru sendo bat eratzen du, eta esparru horrek, berriz, Estatuak gazte-justiziaren arloan duten jarduna barne hartzen du. 2016/800 (EB) Zuzentaraua da horren oinarria, zeinak gutxieneko berme komunak ezartzen dituen Estatu kideetako

zigor-prozeduretako adingabe susmagarri edo akusatu guztientzat. Biktimen Zuzentarauarekin, Oinarrizko Eskubideen Gutunarekin eta hainbat lan-kidetza-estrategia eta -mekanismoekin batera, EBk oinarrizko eskubideen errespetuan, adingabearen kalteberatasunetik eratorritako babes berezian, proportzionaltasunean, gutxieneko esku-hartzean eta birgizarteratzean oinarritutako gazte-justiziaren ereduak sustatzen du.

Tresna horiek Estatu kideek justizia-sistema homogeenagoak, humanizatuagoak eta adingabearen interes gorenera bideratuak bereganatzeko joera indartzen dute; eta, aldi berean, delituaren prebentzioa eta arrisku-egoeran dauden edo zigor-arloko prozesuetan inplikaturik dauden gazteei laguntza integrala ematea sustatzen dute.

1.2.3 Giza Eskubideen Europako Hitzarmena

Gazte-justizia berriaz arautzen ez badu ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak egindako interpretazioak doktrina-gorputz sendoa garatu du, eta gorputz horren ondorioz, Estatuak tratu indartua eskaini behar die legearekin gatazkan dauden adingabeei. Funtsezko printzipioen artean, honako hauek nabarmentzen dira: askatasun-gabetzearen salbuespena, atxilotze-baldintza duinak, adinari egokitutako berme prozesalak, pribatutasunaren babesa, eta gazteen zigor-sistema hezkuntzara eta birgizarteratzera bideratuta egotea. Estandar horiek adingabearen eskubideak zigor-arloan babesteko Europako nukleoa dira, eta eragin erabakigarria izan dute Estatu kideetako gazte-justiziaren sistemen bilakaeran.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak berretsi du adingabeek babes indartua izan behar dutela zigor-arloko prozeduraren fase guztietan. Printzipio hori Hitzarmenaren 3., 5., 6. eta 8. artikuluetatik dator, eta bertan adierazitakoari jarraikiz: Estatuaren edozein jarduketa (atxiloketa, galdeketa, epaiketa edo neurrien betearazpena) adingabearen interes gorenera bideratu behar da, haren duintasuna bermatu behar da, haren heziketa erraztu behar da, eta zigor-arloko prozesuaren ondorio kaltegarriak minimizatu behar dira.

3. artikulua bereziki garrantzitsua da gazte-justiziaren arloan. Auzitegiak Hitzarmenaren aurkakotzat jo ditu:

- Adingabeak atxilotzeko baldintza desegokiak (gela osasungaitzak, pilaketa, hezkuntza- edo jolas-jarduerarik eza eta helduekiko bereizketafalta barne).
- Indarraren gehiegizko erabilera edo erabilera bidegabea, gehiegizko diziplinazko zigorrak eta adingabea luzaroan bakartzea.
- Adinari egokitutako arreta mediko eta psikologikorik eza.

Jurisprudentziak ezartzen duenez, adingabe baten askatasuna mugatzen bada, helduen kasuan baino babes-maila handiagoa aplikatu behar da. Auzitegiak eskatzen duenaren arabera, adingabeak atxilotzen direnean:

- Neurria guztiz salbuespenezkoa izan behar da, eta azken baliabide gisa erabiliko da soilik.
- Legeak babestu behar du neurria, eta adingabearen interes gorenean oinarrituta egon behar da.
- Adingabea helduengandik bereizi behar da, betiere euren arteko bizi-kidetza gaztearentzat onuragarriagoa ez bada.
- Kontrol judizial azkarra, eraginkorra eta eskuragarria aplikatu behar da.

Adingabeak atxiloketaren legezotasuna aurkaratu ahal izango du, eta, horretarako, laguntza juridiko egokia izan beharko du eskura.

6. artikulua modu indartuan interpretatzen da akusatua adingabea denean. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak honako hau eskatzen du:

- Adinari egokitutako galdeketak egitea abokatuaren eta -kontrakoa adierazi ezean- gurasoen presentziarekin.
- Karguei eta eskubideei buruzko informazio ulergarria ematea.
- Epaketan modu eraginkorrean parte hartzeko eskubidea, prozedura konplexuegiak edo larderiazkoak saihestuz.
- Adingabearen esposizio mediatikoa saihestea, bizitza pribaturako eskubideari jarraikiz (8. art.).

Epaia emateko, kontuan hartu behar dira adingabearen ulermen-ahalmena eta birgizarteratzeko duen ahalmena.

Bizitza pribatuaren babesak barne hartzen ditu:

- Adingabearen datuen konfidentziasuna.
- Epaketaren publikotasuna zorrotz mugatzea.

- Atxiloketak irauten duen bitartean familiarekin harremanetan egoteko eskubidea, betiere neurri hori adingabearen interes gorenaren aurkakoa ez bada.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak adierazi duenez, zigor-arloko prozesuetan akusatua jendaurrean jartzeak –eta horri lotutako estigmatizazioak– 8. artikulua urratzen du.

Auzitegiak azpimarratzen du gazte-justiziak izaera hezitzailea izan eta birgaitzera bideratuta egon behar duela, eta ez dela soilik neurri errepresiboetan oinarrituta egon behar; azken batean, zeharkako ikuspegia izan behar du. Ezarritako neurri orok, delituaren arabera ez ezik, adingabearen adinaren, heldutasunaren eta beharren arabera izan behar du ere.

1.2.4 Gazte-justiziarako zeharkako garrantzia duten beste tresna batzuk

Europako Kontseiluak, gazte-justiziarari berariaz zuzendutako gomendio eta arauetz gain, lege-tresna batzuk garatu ditu. Izan ere, tresna horiek ez dituzte soilik adingabe arau-hausleak barne hartzen, baina eragin nabarmena dute gazteen eskubideak babesteari dagokionez sistema judizialaren barruan eta gizartean oro har. Horien artean, nabarmentzekoak dira: Tortura Prebenitzeko Europako Hitzarmena, zeinaren arabera zentroak ikuskatu eta giza eskubideak errespetatu behar diren; Lanzaroteko Hitzarmena, zeinak sexu-esplotazioaren aurkako babes indartzen duen eta biktima adingabeei egokitutako prozedurak sustatzen dituen; eta Istanbulgo Hitzarmena, zeinak gazteei zuzenean edo zeharka eragiten dieten genero-indarkeriaren aurkako prebentzio- eta babes-neurriak bermatzen dituen. Tresna horiek gazte-justiziako arau-esparru espezifikoak osatzen dituzte, babes-estandarrak bermatzen baitituzte atxiloketa-, esplotazio- eta indarkeria-testuinguruetan.

Tortura Prebenitzeko Europako Hitzarmena (1987)

Tortura eta Tratu edo Zigor Anker edo Umiliagarriak Prebenitzeko Europako Hitzarmenak nazioarteko gainbegiratze-mekanismo bat ezartzen du, eta, horren bidez, hitzarmenean parte hartzen duten Estatuak aldizkako bisitak baimentzen dituzte askatasuna mugatzeko lekuak ikustatzeko xedez. Helduak eta adingabeak barne hartzen baditu ere, bereziki garrantzitsua da

adingabeak atxilotzeko zentroi dagokienez, gune horiek tratu duinaren eta giza eskubideen errespetuaren nazioarteko estandarrak beteko dituztela bermatzen baitu.

Prebentziorako mekanismoak Tortura Prebenitzeko Europako Batzordearen (TPB) bidez funtzionatzen du, eta batzorde horrek ikuskapenak egin ditu –aldez aurretik abisatu gabe–, atxiloketa-baldintzak berrikusten ditu, barneratuekin eta langileekin hitz egiten du, eta gomendioak ematen dizkie Estatuei. Gazteen testuinguruan, TPBaren arabera, askatasuna kendu zaien adingabeak:

- Helduengandik bereizita egon behar dira, salbuespenezko egoeretan izan ezik.
- Beren adinerako egokiak diren higiene-, elikadura-, ostatu- eta segurtasun-baldintzak izan behar dituzte.
- Hezkuntza, jolas-jarduerak eta laguntza psikologikoa jasotzeko aukera izan behar dute.
- Ez dute tratu txarrik, hertsadura bidegaberik edo haien garapen fisiko edo mentala arriskuan jar dezakeen zigorrik jasango.

Hitzarmenak eragin zuzena izan du gazteen barneratze-zentroetako estandarrak hobetzeari dagokionez, ikuskapen independenteak, prozeduren gardentasuna eta tratu txarren edo zabarkeriaren aurrean kontuak ematea bermatzen baitira.

Lanzaroteko Hitzarmena (2007)

Adingabeak sexu-esplotazioaren eta -abusuaren aurka babesteari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena ('Lanzaroteko Hitzarmena' izenez ezaguna) haurren sexu-esplotazioa eta adingabeen sexu-abusua prebenitzeko, zehatzeko eta desagerrarazteko esparru integrala ezartzen duen nazioarteko lehen tresna da. Bere jarduera-ildo nagusia gazte-justizia ez izan arren, zeharkako eragina du adingabeen –biktimak zien arau-hausleak– gaineko esku-hartze judizialean.

Bere osagai nagusien artean, honako hauek daude:

- Adingabeen aurkako sexu-delituen definizio argia, ingurune digitale-tako eta lan-inguruneetako esplotazioa barne.

- Estatuek prebentzio-neurriak hartzeko duten betebeharra, hala nola kontzientziazio-kanpainak, hezitzaileen eta polizien lanbide-presakuntza eta Internet bidezko babes-programak.
- Biktima adingabeak babesteko beharra, haienzako laguntza psikologikoa, legala eta soziala eta haien adinera egokitutako prozedura judizialak ziurtatuz.
- Adingabeen aurkako sexu-delituak jazartzeko nazioarteko lankidetzak, arau-hausleak bidegabeko atzerapenik gabe ikertu eta zehatuko direla bermatuz.

Lanzaroteko Hitzarmenak eragina izan du gazteak epaitzen dituzten sistema judizialean; izan ere, esplotazioaren biktimak diren adingabeak babesteko neurriak sustatu ditu, haien kalteberatasunera egokitutako prozedurak bultzatu ditu, eta prozesu judizialak eragindako bigarren mailako biktimizazioa prebenitzen lagundu du.

Istanbulgo Hitzarmena (2011)

Emakumearen aurkako Indarkeria eta Etxeko Indarkeria Prebenitzeko eta horien aurka Borrokatzeko Hitzarmenak ('Istanbulgo Hitzarmena' ere esaten zaio) genero-indarkeriaren biktima diren edo familia-indarkeriaren lekuko diren adingabeak babesteko xedapen espezifikoak jasotzen ditu. Tresna horrek zeharkako eragina du gazte-justizian, arrisku-egoeran dauden haur eta nerabeentzako babes-, prebentzio- eta laguntza-neurri espezializatuak bermatzeko betebeharra ezartzen baitie Estatuei.

Honako hauek dira gazteak babesteko nabarmentzen diren ekarpen nagusiak:

- Etxeko indarkeria jasaten duten adingabeak identifikatzeko eta babesteko betebeharra, eta behar bezalako laguntza psikologiko, sozial eta legala jasotzeko eskubidea ziurtatzea.
- Ingurune seguruak eta zerbitzu espezializatuak ematea (babeslekuak eta birgizarteratze-programak barne).
- Adingabeekin lan egiten duten profesional judizial, polizial eta sozialak nahitaez gaitzea indarkeria-egoerak identifika ditzaten eta haurraren eskubideen arabera jardun dezaten.

- Birbiktimizazioa saihestuko duten eta erabaki administratibo edo judicial guztietan adingabearen interes gorena bermatuko duten politika integralak sustatzea.

Beraz, Istanbulgo Hitzarmenari esker, indarkeria jasaten duten adingabeen babesak lehentasuna izango du gazte-justizia eta gizarte-zerbitzuentzat, esku-hartze goiztiarrerako eta arreta integralerako estandar argiak ezartzen baititu.

1.3 Espainiako estatuko tresna nagusiak

Espanian, arau-haustek egiten dituzten adingabeak heztera eta birgizarteratzera bideratutako arau eta neurri espezifikoek arautzen dute gazte-justizia. Bi tresna nagusi daude. Alde batetik, Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa; izan ere, lege hori formalki penala baina materialki zehatzaile eta hezitzailea da, eta bera-riaz aitortzen ditu adingabearen oinarritzko bermeak eta eskubideak.

Eta, bestetik, uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretua, lantalde teknikoen funtzionamenduari, ikastetxeen kudeaketari eta neurriak betearazteko prozedurei buruzko alderdi praktikoak garatzen dituena.

1.3.1 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, Adingabeen Zigor Erantzukizuna arautzen duena (AZELO)

Gure herrialdean adingabe batek, 14 eta 18 urte bitartean dituen adingabe batek, Zigor Kodean edo lege berezietan delitu gisa tipifikatuta dagoen egitatea eginez gero, urtarrilaren 12koa 5/2000 Lege Organikoa (Adingabeen Zigor Erantzukizuna arautzen duena) aplikatzen da; lege hori 2000ko urtarrilaren 12an eman zen, eta hurrengo urteko urtarrilaren 13an jarri zen indarrean.

Urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa printzipio orokor batzuei jarraikiz egin zen:

- Adingabe arau-hausleei aplikatzekoak diren neurrien eta prozeduraren izaera formalki penala eta materialki zehatzaile eta hezitzailea.

- Eskubide konstituzionalen eta adingabearen intereseko eskaera berezien errespetutik ondorioztatzen diren berme guztien esanbidezko errekonozimendua.
- Adingabe arau-hausleen kategoriako prozesuko eta zehapeneko ondorioetarako tarteen bereizketa.
- Malgutasuna kasu zehatzaren egoerek gomendatutako neurriak hartzeko eta betearazteko.
- Adingabeen erreformarekin eta babesarekin lotutako erakunde autonomikoen eskumena, epaian ezarritako neurriak betearazteko.
- Betetze horren kontrol judiziala.

Adingabeen zigor-erantzukizunak, helduenaren aurrean, izaera hezitzailea du, funtsean, eta «adingabearen interes nagusia» prozeduraren eta hartzen diren neurrien elementu zehatzaile gisa nagusitzen da.

AZELoren 7. artikuluari jarraikiz, Eusko Jaurlaritzaren Justizia Zuzendaritzak aplikatzekoak diren neurrien kasuan, erreformaren mende dagoen adingabe subjektuari aplika dakizkiokeen neurriak honako hauek dira:

1. Barneratzea: neurri honek arriskugarritasun handiagoari erantzuten dio, egitateen izaera larriak erakusten duen bezala, kasurik nabarmenetan indarkeria, larderia edo pertsonentzako arriskua ezaugarri direla. Neurriaren helburu nagusia da hezkuntza-baldintza egokiak ematen dituen giroa izatea, adingabeak bere jokabide antisoziala ekarri duten xedapen edo urritasunak berriro orientatu ahal izan ditzan, baldin eta, horretarako, behintzat aldi baterako, arau-hauslea bere askatasuna fisikoki murrizten duen erregimenean dagoela ziurtatu behar bada.

a) Erregimen itxiko barneratzearen helburua da adingabeak gizarte-gaitasunerako nahiko baliabide eskuratzea, erkidegoan jokabide arduratsua eduki ahal izateko, kontrol-kudeaketaren bidez giro murriztailean eta pixkanaka autonomoan.

b) Erregimen erdi-irekiko barneratzean, hezkuntza-proiektua dago; proiektu horretan, hasieratik, funtsezko helburuak erkidegoko beste pertsona eta erakunde batzuekin harremanetan egiten dira, eta adin-

gabeak egoitza zentroan du, horren programa eta barne-erregimenean.

c) Erregimen irekiko barneratzean, adingabeak hezkuntza-proiektuko jarduera guztiak gauzatuko ditu inguruneko zerbitzu normalizatuetan, zentroan biziko dela, ohiko bizileku gisa.

2. Barneratze terapeutikoa aurreikusten da adingabeek, alkoholarekiko edo drogekiko duten mendekotasunagatik edo psikismoan duten disfunczio esanguratsuengatik, testuinguru egituratua behar dutenean, programazio terapeutikoa egiteko, alde batetik, adingabearengan edo bere ingurunean tratamendu ambulatoriorako baldintza egokiak ematen ez direlako eta, beste alde batetik, adingabeari erregimen itxiko barneratzea aplikatzeko eskatzen duten arrisku-baldintzak daudelako.

3. Tratamendu ambulatorioa da mendekotasun-prozesuak edo psikismoaren disfunczio esanguratsuak gainditzeko laguntzeko programa terapeutikoen onurak jasotzeko bizi-baldintza egokiak dituzten adingabeei ezartzen zaien neurria. Alkoholarekiko edo drogekiko mendekotasuna duten eta erkidegoan trata daitezkeen adingabeentzat aurreikusita, tratamendu ambulatorioan asistentzia mediko eta psikologikoko mota desberdinak konbina daitezke. Oso egokia da barneratzerik gabe arreta jaso dezaketen desoreka psikologikoaren edo psikismoaren nahasmenduaren kasuetarako. Gizarte-eta hezkuntza-zereginarekin dagoen bereizketa argiena da horren bidez gaitasuna lortu nahi dela, hau da, ikaskuntza bat lortu nahi dela, metodologia bat erabiliz, ez hain klinikoa, baizik eta psikologia eta hezkuntzara bideratuagoa.

4. Eguneko zentro batera joatean, adingabeak erkidegoan erabat integratuta dagoen zentro batera joaten dira; bertan, beren gizarte-gaitasunari laguntza emateko hezkuntza-jarduerak egiten dira. Neurri horrek egunaren zati handi batean ingurune egituratua eskaintzen die; ingurune horretan, gizarte-hezkuntzako zenbait jarduera egiten dira, familia-giroko gabeziak konpentsatzeko. Eguneko zentroan adingabearen gizarte-hezkuntzako proiektuaren mamia gauzatzen da; horixe da, hain zuzen ere, eguneko zentroaren

ezaugarria. Dena den, adingabeak beste toki batzuetan ere erabil ditzake aisialdiko nahiz kulturako beste baliabide batzuk.

5. Asteburuko egonaldia da adingabe batek ostiral arratsalde edo gauek igande gauera arte etxean geratzeko beharra ezartzen duen neurriak zehazten duen adierazpena, epaileak esleitutako gizarte- eta hezkuntza-zereginak egiten dituen denbora salbu. Neurri hau egoki gerta daiteke adingabe jakin batzuekin, horiek asteburuetan txikizio-egintzak edo eraso arinak burutzen dituztenean.

6. Ezarritako neurria zaintzapeko askatasuna denean, adingabea zaintza eta jagotzapean dago epaian ezarritako denboran zehar. Langileria espezializatuak burutzen ditu zaintza eta jagotza horiek, adingabeak trebetasun, gaitasun eta jarrera egokiak beregana ditzan, gizabanako moduan eta gizartearen barruan bere nortasuna behar bezala gara dadin. Zaintzapeko askatasunak dirauen bitartean, adingabeak bete beharko ditu, orobat, epaileak AZELOrekin bat etorritik ezar diezazkiokeen betebeharrak eta debekuak.

7. Pertsona, familia edo hezkuntza-talde batekin bizitzea adingabeei gizarteratze-giro positiboa emateko neurria da; giro hori lortzen da bizikidetzaren bidez, epaileak zehaztutako epe batez, pertsona batekin, berea ez den familia batekin edo berengan gizarte- eta afektu-urratsak garatzeari dagokionez familiaren funtzioa betetzeko bere burua eskaintzen duen hezkuntza-talde batekin.

9. Gizartearentzako lanen neurri horren bidez aurretik finkatutako saio kopuruan egiten dute jarduera bat, dela gizarte orokorraren, dela edozein arrazoirengatik urritasun-egoeran dauden pertsonen onuragarri. Ahal dela, dena delako neurriari dagokion jardueraren izaera adingabeak gauzatutako egitateek kaltetutako ondasun juridikoekin lotuta egon dadin saiatuko da. Neurri honen berezitasuna da ulertaraztea bere jokabidearen ondorioz talde edo pertsona batzuek bidegabeki ondorio kaltegarriak jasan dituztela. Subjektuak ulertu behar du okerretara jardun zuela, gizartearen gaitzespen for-

mala merezi duela, eta berari eskatutako lanak kaltea konpontzeko egintza zuzenak direla.

10. Gizarte- eta hezkuntza-zereginak betetzea da adingabeak bere gizarteratzea bideratuko duten hezkuntza-educiko jarduera bereziak egitea. Neurri hau autonomia, edo, osterantzean, beste neurri konplexuago baten osagarria izan daiteke. Neurria autonomia izanez gero, horren xedea da beharrizan zehatzak asetzea, halako beharrizanak igarri direlako eta beharrizan horiek haren oso-osoko garapena oztopatzen dutelako. Izan daiteke erkidegoan dagoeneko badagoen programa batera joatea edo bertan parte hartzea, edo neurria betearazteko ardura duten profesionalak ad hoc sortutako batera joatea. Gizarte- eta hezkuntza-zereginen adibide gisa, honakoak aipa daitezke: zereginetarako tailer batera, konpentsazio-hezkuntzako gela batera edo enplegua prestatzeko ikastaro batera joatea; gizarte-kulturaren sustapenerako jardura egituratuetan parte hartzea; gizarte-gaitasuna ikasteko tailerretara joatea eta abar.

AZELOn jasotako neurrien izaera aztertu ondoren ikusten den bezala, lege hau inflexio-puntua izan zen zigor-arloko arau-haustek egiten dituzten adingabeak tratatzeko ereduari. Gazte-justiziaren eredu tradizionala alde batera utzi –protektionistagoa edo paternalistagoa dena– eta modu esanguratsuan sustatzen da hezkuntza-erantzulearen eredu. Adingabearen erantzukizuna funtsezkoa da prozesuan eta egitatean, bai eta bere hezkuntza-beharrak ere; horiek biak izango dira prozesua eta aplikatu beharreko neurriak markatuko dituzten bi tesiak.

1.3.2 1774/2004 Errege Dekretua, uztailaren 30ekoa, Adingabeen Zigor Erantzukizunari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duena

1774/2004 Errege Dekretuak, uztailaren 30ekoak, 5/2000 Lege Organikoa honako hiru gai hauen inguruan garatzen du, zati batean: Polizia Judizialaren eta talde teknikoaren jarduna, kautela-neurrien eta behin betikoen betearazpena eta zentroen diziiplina-erregimena.

Polizia Judizialaren eta talde teknikoaren jarduketari buruzko II. kapituluak bi kolektibo horien esku-hartzea arautzen du. 2. eta 3. artikulua Polizia Judizialaren jarduketari buruzkoak dira; Polizia Judiziala funtzionalki Fiskaltzaren eta Adingabeen epailearen mendekoa da, eta arreta berezia eskaintzen dio adingabeen atxiloketarako moduari. 4. artikulua talde teknikoaren jarduketari buruzkoa da (psikologoak, hezitzaileak, gizarte-langileak, adingabea atxilotzen dutenetik asistentzia emateko arduraduna, adingabeen epaileei asistentzia emateko arduradunak eta Fiskaltzari asistentzia emateko arduradunak eta bitartekaritzan esku hartzeko arduradunak).

“Neurriak betearazteko arauak” deritzan III. kapitulua hiru apartatutan banatzen da: Arau komunak araubidea dela eta, neurrien eta adingabeen eskubideak gauzatzeko oinarri izan behar duten printzipioak dira. Gainera, erakunde publikoaren jarduketa arautzen du, askatasuna kentzeko eta ez kentzeko neurrien kasuetan. Adingabeak kaltea konpondu nahi duen eta biktimarekin adiskidetu nahi duen kasuetan arautzen da, eta zeregin hori erakunde publikoari esleitzen zaio; erakunde publikoak izango du bitartekaritza egiteko ardura. Bestalde, askatasuna ez kentzeko neurriak betearazteko arau bereziak aurreikusten ditu, bai eta betearazteko programa indibidualizatua egiteko beharra ere. Azkenik, askatasuna kentzeko neurriak direla eta, sartzeko, adingabeari asistentzia emateko, komunikazio-erregimenerako eta abarrerako neurriak eta izapideak arautzen ditu, eta xedapenak jasotzen ditu barneratze-erregimenei (23-29, 34. eta 53. art.), zentroen funtzionamenduari (30., 33., 35. eta 53-58 art.), adingabearen sarrerari eta askatasunari (31., 32., 34. eta 36. art.), adingabeari asistentzia emateari (37., 38. eta 39. art.), jakinarazpenei (40-44 art.) eta irteera eta baimenei buruz (45-52 art.).

Azkenik, zentroen diziplina-araubideari buruzko IV. kapitulua zenbait gai-multzotan banatzen da: 59. eta 60. artikuluetan oinarria eta aplikazio-eremua eta diziplina-ahala arautzen dira. Diziplina-hutsak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke, eta 61. artikulutik 64.era bitartean arautzen dira. Zehapen orokorrak eta zalantzagabeak 65. artikulutik 69.era bitartean arautzen dira. Zehapenak ezartzeko prozedurak 70. artikulutik 80.era bitartean arautzen dira; eta, azkenik, zehapenei (gauzatzea eta betetzea, murrizketa, etetea eta ezabatzea, iraungitzea eta preskripzioa) eta pizgarri edo sariei buruzko arau bereziak 81. artikulutik 85.era bitartean jasotzen dira.

1.4 EAEko tresna nagusiak

Euskal Autonomia Erkidegoan ere araudi propio ugari dago adingabeak babesteko (zentzu zabalean). Zehazki, atal honetan, legearekin gatazkan dauden neska-mutilekin lotura zuzenena duena nabarmenduko dugu, labor-labor.

1.4.1 Otsailaren 15eko 2/2024 Legea, Haur eta Nerabeei buruzkoa

Adingabeei zuzendutako kalitatezko eta erreferentziatzeko esparru juridiko egonkor berria ezartzen du. Horrek esan nahi du segurtasun juridikoa indartuko duen araudi berri bat egongo dela erabilgarri, Estatu zein autonomia-erkidego mailan dagoen arau-zatiketari amaiera emateko xedez.

2/2024 Legearen hiru xedeak lehenengo artikuluan zehazten dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren edo bertan dauden adingabe guztiei ordenamendu juridikoak aitortzen dizkien eskubide eta askatasunak benetan balia ditzaketela bermatzea.
- Erantzunkidetasun-betebeharra oinarritzat hartuta, aurreko atalean ezarritako helburua lortzeko euskal botere publikoek ekintza publikoaren sektore-eremu guztietan garatu behar dituzten ekintzak zehaztea.
- Jarduketa-printzipioak definitzea, sustapen-, prebentzio-, arreta- eta babes-jarduketa guztiei dagokien eskumen-esparrua ezartzea, eta koordinazio-, lankidetzatza- eta partaidetzatza-egiturak eratzea.

Aztergai dugun gaiari dagokionez, VII. tituluak zigor-legearekin gatazkan dauden adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta ematea du ardatz. Ezarritako aurreikuspenak zigor-legea urratzen duten jokabideak prebenitzera bideratuta daude (haurren eta nerabeen ongizatea sustatzeko ekintzen esparruan).

1.4.2 163/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, Erakunde laguntzaileak baimentzeari, homologatzeari, ikuskatzeari eta erregistratzeari buruzkoa, EAEko adingabeko arau-hausleei zuzendutako gizarte- eta hezkuntza-jarduerari dagokionez

163/2008 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko adingabe

arau-hausleei gizarte- eta hezkuntza-arreta eskaintzen dizkieten erakunde laguntzaileen baimena, homologazioa, ikuskapena eta erregistroa arautzen ditu. Neurri judizialak ingurune irekian betearazten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuek eskatzen diren kalitate-, segurtasun- eta profesionaltasun-estandarrak betetzen dituztela bermatzea da Dekretuaren helburu nagusia. Hala, antolamendu-egiturari eta langileen prestakuntza eta kualifikazioari buruzko baldintza zehatzak eta administrazio eskudunaren aldizkako kontrol- eta ebaluazio-prozedurak ezartzen ditu.

Era berean, dekretuak gazte-justiziako zerbitzuen eta erakunde laguntzaileen arteko koordinazio eraginkorra bermatzen du, eta, beraz, adingabe bakoitzaren beharretara egokitutako hezkuntzako esku-hartze indibidualizatua sustatzen du. Dekretuak organo judizialek ezarritako neurrien plangintza, jarraipena eta ebaluazioa egiteko protokolo argiak ezartzen ditu, gazte-justiziaren helburu nagusia lortzen lagunduz: adingabe arau-hausleen gizarteratzea eta hezkuntza-sisteman berriro txertatzea; hori guztiori proportzionaltasun-printzipioei jarraikiz, adingabearen interes gorena bermatuz, eta haien oinarrizko eskubideak babestuz.

1.4.3 80/2009 Dekretua, apirilaren 21ekoa, askatasunaz gabetzeko neurriak betearazten dituzten EAEko hezkuntza-zentroei buruzkoa

Apirilaren 21eko 80/2009 Dekretuak (askatasunaz gabetzeko neurriak betearazten dituzten EAEko hezkuntza-zentroei buruzkoak) helburu du hezkuntza-zentroek bete beharko dituzten eskakizun materialak, funtzionalak eta langileenak arautzea, 5/2000 Legean aurreikusitako askatasunaz gabetzeko neurriak betearazteko. Horrela, adingabeen neurrien betearazpenaren printzipio gidariak, eskubideak eta betebeharrak jasotzen dira, bai eta hezkuntza-zentroetan lan egiten duten profesionalen eskubide eta betebeharrak ere. Bestalde, hezkuntza-zentroetan hartutako pertsonen arreta emateko eta horiekin esku hartzeko arloak ere arautzen ditu, bai eta hezkuntza-zentroen ezaugarriak, tipologia eta antolaketa, zaintzari eta segurtasunari buruzko kontuak, baimenak, diziplina-araubidea eta kexak eta ikuskaritza ere.



2. 2020-2024 ALDIRAKO GAZTE JUSTIZIAREN V. PLANA EBALUATZETIK ATERATAKO ONDORIO NAGUSIAK

2.1 Estatuko Fiskaltza Nagusiaren ondorioak

Ebaluatutako aldian, 11 751 **arau-hauste** egon dira: 9784 delitu eta 1967 delitu arin. Delituei dagokienez, hiru ohikoenak ebasketak izan dira (2277, % 23); bigarrenik, lesioak (1967, % 20); eta hirugarrenik, etxeko indarkeria eta genero-indarkeria (1182, % 12). Bestalde, ebaluatutako aldian, delitu arinak nahiko antzera mantendu dira, 2023. urteko kasua salbu, urte hartan ez baitzen ezein delitu ari egon. 2021ean izan ziren delitu arin gehien: 535.

Bestalde, guztira 3611 **neurri** ezarri dira. Ebaluatutako aldian, neurri ohikoena zaintzapeko askatasuna da (1560, % 43), eta, ondoren, barneratzeak (656, % 18) eta gizartearentzako lanak (451, % 13). 349 neurri-aldaketa gertatu dira. Ohikoena (% 59) urraketari dagokiona da (50.2. artikulua).

Epaietan, 222 absoluzio-epai eta 2.738 kondena-epai izan dira (385 adostasunik gabe eta 2.353 adostasunarekin, % 14 eta % 86, hurrenez hurren). Fiskalaren errekurtsioak oso urriak izan dira (9 ebaluatutako aldi osoan).

Azkenik, **atariko eginbideei** dagokienez, ikus daiteke hasitako eginbideek gorakada izan dutela 2020. urtearen (2.245) eta 2022. urtearen (2.885) artean, hau da, % 22ko igoera. Guztira, 12 883 espediente hasi dira.

Erreforma-espedientei dagokienez, ikusten dugu hasitako espedienteek gora egin dutela 2020 (985) eta 2021 (1357) artean, COVID-19aren pandemiaren ondorioz. Gainerako urteetan, antzeko datuak jaso dira, urte batetik bestera zertxobait aldatzen badira ere. Guztira, 6022 erreforma-espediente hasi dira.

2.2 Estatistikako Institutu Nazionalaren ondorioak

Sexuaren araberako arau-hauste kopuruari dagokionez, mutilak nagusitzen dira. Ebaluatutako aldi osoan, neskak % 16 dira EAEn, eta % 18 beste autonomia-erkidego batzuetan.

Arau-hausleen **adinaren araberako arau-hauste kopuruari** dagokionez, 16 eta 17 urtekoen taldea da ebaluatutako aldi osoan arau-hauste gehien egin dituen, bai EAEn, bai gainerako autonomia-erkidegoetan (% 60ko batez bestekoarekin Espainia mailan, eta % 64 EAEn).

Adingabe arau-hausleen **nazionalitatearen araberako neurri kopuruari** dagokionez, ebaluatutako aldi osoan, atzerritarren ehunekoa nabarmen handiagoa da EAEn (% 30 batez beste) gainerako autonomia-erkidegoetan baino (% 22).

Arau-hausleen **adinaren araberako neurrien kopuruari** dagokionez, 16 eta 17 urtekoen taldea da ebaluatutako aldi osoan neurri gehien dituen, bai EAEn, bai gainerako autonomia-erkidegoetan (% 60ko batez bestekoarekin Espainia mailan, eta % 64 EAEn).

Adingabe arau-hausleen **nazionalitatearen araberako neurri kopuruari** dagokionez, ebaluatutako aldi osoan, atzerritarren ehunekoa nabarmen handiagoa da EAEn (% 32 batez beste) gainerako autonomia-erkidegoetan baino (% 22).

Azkenik, **sexuaren araberako neurri kopuruaren** azterketak erakusten du neskak % 17 direla bai EAEn, bai gainerako autonomia-erkidegoetan, ebaluatutako aldi osoan, eta % 18 estatu mailan.

Sexuaren arabera banatutako arau-hausle ezberdinen kopuruari dagokionez, ebaluatutako aldi osoan, neskak ugariagoak dira bai EAEn (% 20), bai gainerako autonomia-erkidegoetan (% 18).

Adinaren araberako pertsona ezberdinen kopuruari dagokionez, 16 eta 17 urtekoen taldea da ebaluatutako aldi osoan neurri gehien dituen, bai EAEn, bai gainerako autonomia-erkidegoetan (% 58ko batez bestekoarekin Espainia mailan, eta % 61 EAEn).

Adingabe arau-hausleen **nazionalitatearen araberako pertsona ezberdinen kopuruari** dagokionez, ebaluatutako aldi osoan, atzerritarren ehunekoa nabarmen handiagoa da EAEn (% 28 batez beste) gainerako autonomia-erkidegoetan baino (% 20).

Azkenik, **arau-hauste penalen kopuruaren araberako pertsona ezberdinen kopurua** kontuan hartuta, arau-hauste penal bakarra egiten duten pertsonak dira talde nagusia. Hala ere, ehuneko hori askoz handiagoa

da beste autonomia-erkidego batzuetan EAEn baino (% 61 Espainiako batez bestekoan, eta % 51 EAEn).

Azkenik, **ezarritako neurrien kopuruaren arabera pertsona ezberdinen kopurua** kontuan hartuta, ez da alde esanguratsurik ikusten EAEn eta Espainiako gainerako lekuetan hartutako neurrien kopuruaren artean, eta bi taldeetan batez bestekoa % 68 ingurukoa da neurri bakar bateko taldean.

2.3 Justizia Sailburuordetzaren ondorioak

2.3.1 Talde psikosozialen jarduerari buruzko ondorioak

Talde psikosozialak jasotako **txosten-eskaera** gehienak Talde teknikoak adingabe arau-hausleei buruz egindako txostenekin lotuta daude, eta, guztira, 8318 eskaera dira (kontuan hartu behar da kasu batzuetan txosten bat baino gehiago egin behar direla). Era berean, txostenen eskarian ikus daitekeen alderik nabarmenena 2020 (1334) eta 2021 (1974) urteei dagokiena da, COVID-19aren pandemiaren eraginez.

Bestalde, 2020-2024 aldian egindako **bitartekaritza** guztietatik (2.470) 1.800ek (% 73) emaitza positiboa izan zuten, eta beste 670ek (% 27) negatiboa. Nolanahi ere, bitartekaritza-prozesuek gero eta presentzia handiagoa dute EAeko Adingabeen Epaitegietan; izan ere, jarduketa guztietatik (5.965 ebaluatutako aldian), bitartekaritzak % 41 dira (2.470), neurrien % 59ren aldean (3.495).

Azkenik, bitartekaritza-prozesuetan parte hartzen duten adingabeei lotutako **arrisku- eta babes-faktoreak** kontuan hartuta, ikus daiteke kasu gehienetan gizona dela (kasuen % 73), EAEn jaioa (% 74 batez beste ebaluatutako aldian), eta bere jatorrizko familiarekin bizi dela (% 82 batez beste aztertutako urteetan). Ikasketei dagokienez, nolabaiteko aldakortasuna dago aztertutako aldian; izan ere, 2020an eta 2023an, ehuneko handiena lanbide-heziketa egiten ari zen, eta, gainerako urteetan, arau-hausle gehienak DBH ikasten ari ziren. Ebaluatutako aldian, batez beste, aztertutako kasuen % 78an, bere lehen delitu-egitatea izan zen.

2.3.2 Neurri buruzko ondorio orokorrak

Neurri irmoen eta kautela-neurrien eskaria, guztira, 2020ko urtarrilaren 1aren eta 2024ko abenduaren 31ren arteko aldiaren, 3.955ekoa izan da. Horietatik 3495 (% 87) irmoak izan dira eta 460 (% 11) kautelazkoak.

Neurrietan igoera egon da: 2020an 592 neurri hartu ziren, hurrengo urteetan are gehiago, eta gehieneko kopurua 2023an eman zen (876 neurri).

2.3.3 Kautela-neurri buruzko ondorioak

460 kautela-neurri ezarri dira aldi osoan (226 zaintzapeko askatasun, 201 barneratze eta 33 bizikidetzaren hezkuntza-taldean).

Ebaluatutako aldi osoan kautela-neurri gehien dituen urtea –erregistroen arabera– 2022a izan da (122 neurri), eta, horren atzetik, 2021a (105 neurri). Hala ere, 2020an eta 2023an jaso dira kautela-neurri gutxien (76 eta 73 hurrenez hurren). Ezarri egin dira.

2.3.4 Neurri irmoei buruzko ondorioak

Neurri irmoak aztertuta (3495 guztira), ikus daiteke horietako gehienak 2023an ezarri zirela (803 neurri). Hala, 2020tik aurrera (erregistroen arabera neurri gutxien izan zuen urtea [516]), goranzko joera egon da 2023ra arte; eta 2024an, berriz, joera horrek behera egin zuen (676 neurri).

Neurri ohikoena zaintzapeko askatasuna da (1561 neurri, % 39), eta, horren atzetik, barneratzeak (656, % 17), gizartearentzako lanak (488, % 12) eta gizarte- eta hezkuntza-zereginak (437, % 11).

Era berean, ingurune irekiko neurriak (2.668) neurri irmo guztien % 76a izan dira. Neurri ohikoena zaintzapeko askatasuna da, eta, horren atzetik, gizartearentzako lanak eta gizarte- eta hezkuntza-zereginak.

Hezkuntza-zentroko 827 neurri egon dira, hau da, neurri irmo guztien % 24. Hezkuntza-zentroetan gehien jarri den neurria barneratzeak izan dira, eta, horren atzetik, asteburuko egonaldiak eta hezkuntza-taldearekiko bizikidetzak.

2.3.5 Adingabe arau-hausleei buruzko ondorioak

Ebaluatutako aldian, 2020an neurriak ezarri zitzaizkien 436 neska-mutili, 2021ean 636ri, 2022an 601i, 2023an 572ri, eta 2024an 553ri.

Ebaluatutako aldian, neurri irmoen proportzioa % 1,42koa da adingabe bakoitzeko.

Azkenik, ikusi da aztertutako aldian adingabe arau-hausleei lotutako arrisku- eta babes-faktoreak ez direla nabarmen aldatu: gizonetako nerabea, hezkuntza-maila baxua duena, substantzia toxikoak kontsumitzen dituen, eta familia-ingurune kalteberetatik datorrena. Nolabaiteko hobekuntzak hobetu badira ere (eskola-uzte txikiagoa, jarrera positiboa esku-hartze judizialan eta parte-hartze handiagoa lan-prestakuntzan), oraindik ere arreta mezezi duten erronka handiei aurre egin behar zaie ikusitako arazoaren kopurua prebenitzeko eta murrizteko: substantzien kontsumoa, osasun mentaleko arazoak, aisialdi osasungarri urria eta familia-prekarietatea. Beraz, familia-laguntzan, hezkuntza-sisteman berriz txertatzean, adikzioen tratamenduan, arreta psikologikoan eta prebentzio komunitarioan oinarritutako estrategia integrala gauzatzea gomendatzen da, ingurune irekian betetzeko neurrien alde eginez.

2.4 Neurriak betearazteko baliabideei buruzko ondorioak: Ingurune irekiko hezkuntza-zentroak eta zerbitzuak

2.4.1 Hezkuntza-zentroak

Aztertutako aldian (2020-2024), ez da aldaketarik erregistratu plaza kopuruan ezein hezkuntza-zentrotan (urte guztietan 131 plaza izanik).

Hezkuntza-zentroetako lanpostuei dagokienez, bere horretan mantendu dira ebaluatutako bost urteetan: 10 zuzendaritza-lanpostu, koordinazio teknikoko 27 lanpostu, 181 hezitzaile, tailerreko 29 irakasle eta zerbitzu- eta administrazio-lanetan diharduten 8 langile.

2.4.2 Ingurune irekiko zerbitzuak

Zerbitzu horien barruan, eguneko zentroak daude (eguneko zentroetara joateko neurriak betetzeko) eta ingurune irekiko taldeak (neurri hauek

betearazteko: zaintzapeko askatasunak, gizarte- eta hezkuntza-zereginak, gizartearentzako lanak, tratamendu ambulatorioak eta asteburuak etxean ematea).

Guztira, 29 langile egon dira ingurune irekian: 16 Bizkaian, 8 Gipuzkoan eta 5 Araban. Eguneko zentroi dagokienez, zerbitzu horietan lan egiten duten pertsonen banaketa ez da aldatu aztertutako aldian: 8 pertsona Bizkaian eta 6 Gipuzkoan (Arabakoak ez dira atal honetan kontuan hartzen, langileak Uribarri Hezkuntza Zentroak barne hartzen baititu).

2.5 Sail bakoitzaren helburu espezifikoetako buruzko ondorioak

2.5.1 Segurtasun Sailari buruzko ondorioak

Ebaluatutako aldian (2020tik 2024ra), zazpi ekintza zeuden aurreikusita; eta, horietatik: bi bete dira, bat ez da bete, eta, gainontzeko lau ekintzei dagokienez, ez dago ebaluazioa egiteko informazio nahikorik.

2.5.2 Osasun Sailari buruzko ondorioak

Ebaluatutako aldian (2020tik 2024ra), bederatzi ekintza zeuden aurreikusita; eta, horietatik: zazpi bete dira, bat ez da bete, eta, gainontzekoari dagokionez, ez dago ebaluazioa egiteko informazio nahikorik.

2.5.3 Hezkuntza Sailari buruzko ondorioak

Ebaluatutako aldian (2020tik 2024ra), bost ekintza zeuden aurreikusita; eta, horietatik: hiru bete dira, eta bi ez dira bete.

2.5.4 Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari buruzko ondorioak

Ebaluatutako aldian (2020tik 2024ra), bi ekintza zeuden aurreikusita; eta, horietatik: bat bete da eta, gainontzekoari dagokionez, ez dago ebaluazioa egiteko informazio nahikorik.

2.5.5 Justizia eta Giza Eskubideen Sailari buruzko ondorioak

Ebaluatutako aldian (2020tik 2024ra), hogeita hemeretzi ekintza zeuden aurreikusita; eta, horietatik: hogeita sei bete dira, zortzi ez dira bete, eta,

gainontzeko bost ekintzei dagokienez, ez dago ebaluazioa egiteko informazio nahikorik.

2.6 Gazte-justiziako adituei egindako elkarrizketei buruzko ondorioak

Faktore anitzeko faktoreak direla eta, **arau-hausteen larritasunak eta judizializazioak** gora egin dute.

Hezkuntza-neurriak –oro har– **modu positiboan baloratzen dira**, eta horien eraginkortasuna nabarmentzeko modukoa da modu indibidualizatuan eta adingabearen beharrekin bat etorritik gauzatzen direnean.

Hainbeste ez bada ere, **emakumeen parte-hartzeak gora egin du** gazte-delinkuentziaren alorrean.

Osasun mentala da erronka larrienetako bat.

Teknologia berriak zeharkako faktorea dira gazteen delitu-profila eraldatzerako orduan.

Bidaiderik gabeko adingabe atzerritarrei dagokienez, eta erantzunek nabarmentzen dutenaren arabera, kultura-aniztasuna errespetatzen duten eta gizarteratzea sustatzen duten politikak eta programak behar dira egiturazko aldeak saihesteko.

Azkenik, hobetu daitezkeen funtsezko arloak identifikatzen dira **gazte-justiziaren sisteman**, besteak beste: hezitzaileen prestakuntza eta egonkortasuna, baliabide espezializatuen hedapena, erakundeen arteko koordinazioa eta prozesu judizialak arintzea. Neurrien etengabeko ebaluazioa, berrikuntza metodologikoa eta ikuspegi birgizarteratzailea ezinbesteko oinarriak dira eredu gizatiarragoa, hezigarriagoa eta eraginkorragoa finkatzeko.



3. 2025EKO NEURRIEN ESKARIAREN MEMORIA

3.1 Sarrera

2025. urtean, Gazte Justiziaren V. Planaren (2020-2024) ekintzak luzatu dira; horien ebaluazioa aurreko atalean aurkeztu da.

Hurrengo epigrafeetan, Justizia Zuzendaritzako Gazte Justiziako Zerbitzuak 2025. urtean izan duen neurri-eskaerari buruzko datu garrantzitsuenak aurkezten dira, ezagutu eta azter daitezten. Izan ere, neurri horiek urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean betearazi egin dira.

3.2 Justizia Zuzendaritzako datu orokorrak

Aztertutako neurriek bai Euskal Autonomia Erkidegokoan, bai beste autonomia-erkidegoetan hasitakoak barne hartzen dituzte. Neurriok Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren adingabeei buruzkoak dira, 5/2000 Lege Organikoaren 45. artikulua araberakoak. Justizia Zuzendaritzak gauzatu beharreko neurriak honako hauek dira²:

- Hezkuntza-zentroetan betearazten diren neurriak:
 - Zentroetako barneratze irmoak eta kautelazkoak, edozein erregimen eta modalitatetan.
 - Hezkuntza-taldearekiko bizikidetzak (irmoa eta kautelazkoa).
 - Asteburuko egonaldiak.
- Ingurune irekiko zerbitzuetan eta eguneko zentroan betearazten diren neurriak:
 - Eguneko zentrorako joatea.
 - Tratamendu ambulatorioa.
 - Zaintzapeko askatasuna (irmoa eta kautelazkoa).
 - Gizarte- eta hezkuntza-zereginak egitea.
 - Familiar biziitzea.
 - Gizartearentzako lanak.
 - Asteburuetan bizilekuan egon beharra.

² Kargu hartzeko, urruntze-aginduetako eta administrazio-izaerako neurriak –besteak beste, gidabaimeak eta armak–, berezko izaeragatik eta edukiagatik, ez zaizkio Justizia Zuzendaritzari bidaltzen, neurriak betearazteko eskumena duen erakunde publikoa den aldetik.

Neurri motak aztertuz gero, ondoriozta daiteke neurri irmoen prebalentzia handiari eusten zaiola –guztizkoaren % 89 baitira–, baina jaitsiera txiki bat eman dela aurreko urtearekin alderatuta (% 92 2023an). Aitzitik, kaute-la-neurriek gora egin dute zertxobait, 2023an % 8 izatetik 2024an % 11 izatera igaro baitira; beraz, 2023an izandako beherakada handia ez da berriz eman.

Aurreko txostenetan adierazi zenaren ildoan, 2020ko eta 2021eko datuak zuhurtziaz interpretatzen jarraitu behar dira pandemiaren eragina eta urte horietan neurriak ezartzea baldintzatu zuten konfinamendu-aldiak direla eta.

| NEURRIAK | 2020 | | 2021 | | 2022 | | 2023 | | 2024 | |
|------------------------------|------------|--------------|------------|--------------|------------|--------------|------------|--------------|------------|--------------|
| <i>Irmoak</i> | 516 | % 87 | 762 | % 88 | 738 | % 86 | 803 | % 92 | 676 | % 89 |
| <i>Kautelazkoak</i> | 76 | % 13 | 105 | % 12 | 122 | % 15 | 73 | % 8 | 84 | % 11 |
| NEURRIAK, GUZTIRA | 592 | % 100 | 867 | % 100 | 860 | % 100 | 876 | % 100 | 760 | % 100 |

Taula 1. Neurri irmoen eta kautelazkoen eskaria (2020-2024). Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza

Neurri-motak xehatzen dituen 2. taulako datuak behatuz gero, antze-man daiteke zaintzapeko askatasunaren neurriak ohikoena izaten jarraitzen duela neurri irmoen taldean (% 46, 2022an bezala eta 2023ko % 40 baino handiagoa); hala, bere pisu erlatiboa berreskuratu du aurreko urteko jaitsieraren ondoren. Horren atzetik daude:

- Gizarte- eta hezkuntza-zereginak (% 16, azken lau urteetako zifrarik altuena).
- Barneratzea (% 16ra jaitsi da, 2023ko % 24aren ondoren).
- Gizartearentzako lanak (% 13, 2023ko % 11 baino zertxobait handiagoa).
- Eguneko zentrora joatea (% 6, goranzko joera sotilari eutsiz).
- Asteburuko egonaldiak (% 2); izan ere, neurri hau nabarmen jaitsi da aurreko urtearekin alderatuz gero (% 5).
- Tratamendu anbulatorioa (% 1, presentzia berreskuratu du, 2023an ez baitzen ezarri).
- ‘Bizikidetzak’ izeneko neurria ez da aurten aplikatu.

Gehien ezarri diren lau neurrien batura (Zaintzapeko askatasuna, Bar-

neratzea, Gizarte- eta hezkuntza-zereginak eta Gizartearentzako lanak) neurri irmo guztien % 91 da, eta horrek esan nahi du 2023an baino gehiago ezarri direla (% 88). Gainerako neurriak % 9 baino ez dira, eta horrek islatzen duenez, aplikatutako neurrien aniztasuna murriztu egin da.

| NEURRIAK | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|------------------------------------|----------------------|----------------------|----------------------|----------------------|
| Zaintzapeko askatasuna | 341 % 45 | 339 % 46 | 323 % 40 | 311 % 46 |
| Barneratzea | 138 % 18 | 121 % 16 | 196 % 24 | 108 % 16 |
| Gizarte- eta hezkuntza-zereginak | 88 % 12 | 88 % 12 | 101 % 13 | 106 % 16 |
| Gizartearentzako lanak | 114 % 15 | 121 % 16 | 90 % 11 | 86 % 13 |
| Eguneko zentrora joatea | 31 % 4 | 30 % 4 | 44 % 5 | 41 % 6 |
| Asteburuko egonaldiak ³ | 31 % 4 | 29 % 4 | 37 % 5 | 21 % 2 |
| Bizikidetza | 14 % 2 | 8 % 1 | 12 % 2 | --- |
| Tratamendu ambulatorioa | 5 % 1 | 2 % 1 | -- | 3 % 1 |
| NEURRI IRMOAK, GUZTIRA | 762 % 100 | 738 % 100 | 803 % 100 | 676 % 100 |
| Zaintzapeko askatasuna | 53 % 50 | 59 % 48 | 37 % 51 | 43 % 51 |
| Barneratzea | 43 % 41 | 53 % 43 | 32 % 44 | 39 % 46 |
| Bizikidetza | 9 % 9 | 10 % 8 | 4 % 5 | 2 % 3 |
| KAUTELA-NEURRIAK, GUZTIRA | 105 % 100 | 122 % 100 | 73 % 100 | 84 % 100 |
| NEURRIAK, GUZTIRA | 867 | 860 | 876 | 760 |

Taula 2. Neurri irmoen eta kautelazkoen eskariaren banaketa (2020-2024). Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza

Kautela-neurriei dagokienez, apur bat gehiago aplikatu egin dira (73tik 84ra). 2023an, honako hau ondoriozta dezakegu talde horren barruan:

- Zaintzapeko askatasuna da gehien ezarri den neurria (% 51, aurreko urteko ehuneko bera).
- Barneratzea % 46ra igo da, eta bere goranzko joera finkatu du (% 44 2023an, eta % 43 2022an).

3 Asteburuko egonaldietako bat etxean betetzekoa izan da. Gainerakoak, ikastetxean betetzekoak.

- Bizikidetzaren neurriak, ordea, behera egiten jarraitzen du (% 3, aztertutako aldietako txikiena).

2024an eman den kautela-neurrien igoera hori –Barneratzeak, batez ere– larritasun handiagoko profil edo egoera jakin batzuei aplikatu beharreko erantzun instituzionala izan liteke, neurrien guztizkoak 2021ekoa edo 2022koa baino txikiagoa izaten jarraitzen duen arren.

3.3 Kautela-neurriak⁴

2024an, Justizia Zuzendaritzak 84 kautela-neurri jaso ditu, eta horrek esan nahi du igoera txiki bat eman dela aurreko urtearekin alderatuta (73 2023an); dena den, aurreko urteekin alderatuta, kopuru horrek baxua izaten jarraitzen du (122 2022an edo 105 2021ean). Betetze motaren arabera banaketari dagokionez, banaketa orekatua da: % 49 hezkuntza-zentroan betetzeko neurriak dira, eta % 51 ingurune irekiko neurriak. Horrek esan nahi du 2023ko banaketa bere horretan mantentzen dela.

Gehien ezartzen den neurria Zaintzapeko askatasuna da oraindik ere (43, guztizkoaren % 51); eta, horren atzetik –eta oso hurbil–, Barneratze-mota ezberdinak (39 neurri, guztizkoaren % 46). Hezkuntza-taldearekiko bizikidetzaren oso gutxitan ezartzen den neurria da berriz ere (2 kasu, guztizkoaren % 3). Hala, bi neurri nagusiek (Zaintzapeko askatasuna eta Barneratzea) guztizkoaren gehiengo handi bat izaten jarraitzen dute; zehazki, ezarritako kautela-neurrien % 97.

⁴ 5/2000 Lege Organikoak, 28. artikuluan, adingabeen epaitegiek kautelaz ezar ditzaketen neurriak ezartzen ditu: barneratzeak (edozein erregimenekoak), zaintzapeko askatasuna, beste pertsona, familia edo hezkuntza-talde batekin bizitzea, eta urruntzea (azken hori polizia-kidegoek gainbegiratu edo kontrolatu behar dute). Eusko Jaurlaritzak, erakunde publikoa den aldetik, lehenengo hirurak betearazten ditu.

| KAUTELA-NEURRIAK | Guztira | |
|---|-----------|--------------|
| Barneratze terapeutikoa | 16 | |
| Barneratze erdi-irekia | 16 | |
| Hezkuntza-taldearekiko bizikidetza | 2 | |
| Barneratze itxia | 7 | |
| Hezkuntza-zentroetan betetzeko neurriak, guztira | 41 | % 49 |
| Zaintzapeko askatasuna | 43 | |
| Ingurune irekian betetzeko neurriak, guztira | 43 | % 51 |
| GUZTIRA | 84 | % 100 |

3. Taula. Kautela-neurrien eskaera 2024an. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza

Sexuaren aldagaiari dagokionez, mutilei ezarritako neurrien nagusitasuna mantentzen da: 71 neurri (% 85), neskei ezarritako 13 neurriren aurrean (% 15). Beraz, neurri-kopuruak behera egin du 2023. urtearekin alderatuta (urte horretan neskak guztizkoaren % 23 baitziren), eta aurreko urteetan ikusitako hazkunde-joera alderantzikatu egin da (% 17 2022an, % 14 2021ean).

Neskek neurri mota bakoitzean duten presentziari erreparatuz gero, honako hau ondoriozta daiteke:

- Zaintzapeko askatasunean, neskak % 21 dira.
- Barneratzeetan, % 10.
- Hezkuntza-taldearekiko bizikidetzan, berriz, ez da neska bakar bat ere erregistratzen.

| KAUTELA-NEURRIAK/HAUEI EZARRITAKOAK: | | | | Guztira |
|---|----------------|-----------|--------------|-------------------|
| Zaintzapeko askatasuna | Mutilak | 34 | % 79 | 43 (% 51) |
| | Neskak | 9 | % 21 | |
| Barneratzeak | Mutilak | 35 | % 90 | 39 (% 46) |
| | Neskak | 4 | % 10 | |
| Hezkuntza-taldearekiko bizikidetza | Mutilak | 2 | % 100 | 2 (% 3) |
| | Neskak | --- | --- | |
| GUZTIRA | Mutilak | 71 | % 85 | 84 (% 100) |
| | Neskak | 13 | % 15 | |

4. Taula. Kautela-neurrien eskaria 2024an, «Sexua» aldagaiaren arabera. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza

«Jaioterria» aldagaiari dagokionez (5. taula), ikusten da 2024an kautela-neurrien % 64 EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako pertsoneri ezarri zaizkiela, eta % 36, berriz, atzerritarrei; horrek esan nahi du igoera txiki bat eman dela aurreko urteko datuarekin alderatuta (% 30).

Atzerritarren gizataldearen barruan, Latinoamerikan jaiotako adingabeak nagusitzen dira, atzerritarrei ezarritako 28 neurrietatik 13 (% 46) jasotzen baitituzte, aurreko urteetan ikusitako joera hori sendotuz. Gainerako neurriak Magrebeko herrialdeetako (7), Ekialdeko Europako (1) eta beste herrialde batzuetako (7) pertsoneri aplikatzen zaizkie.

| KAUTELA-NEURRIAK | EAE | GAI-NONTZEKO AUTONOMIA-ERKIDEGOAK | LATI-NOAM. | MAGREBEKO HERRIALDEAK | EKIALDEKO EUROPA | BESTE BATZUK | GUZTIRA |
|---|-----------|-----------------------------------|------------|-----------------------|------------------|--------------|---|
| Zaintzapeko askatasuna | 28 | 2 | 4 | 2 | --- | --- | 36 |
| | 30 | % 83 | | 6 | | % 17 | |
| Barneratzea | 17 | --- | 9 | 5 | 1 | 7 | 39 |
| | 17 | % 44 | | 22 | | % 56 | |
| Hezkuntza-taldearekiko bizikidetza | 2 | --- | --- | --- | --- | --- | 2 |
| | 2 | % 100 | | --- | | --- | |
| GUZTIRA | 47 | 2 | 13 | 7 | 1 | 7 | 77⁵ (% 100) |
| | 49 | % 64 | 28 | | % 36 | | |

5. Taula. Kautela-neurrien eskaria 2024an, «Jaioterrria» aldagaiaren arabera. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza

3.4 Neurri irmoak

5/2000 Lege Organikoaren 7. artikulua ezarri du adingabeen epaileek epaie-tan ezar ditzaketen neurrien katalogoa. Eusko Jaurlaritzak, neurri horiek be-tearazteko erakunde publiko eskuduna den aldetik, horien ardura hartzen du, dagokion adingabeen epaitegiak hala eskatuta. Justizia Zuzendaritzan sarrera izan duten neurri irmoak aztertuko ditugu atal honetan, 2024an be-tearaztekoak zirenak. Bilboko adingabeen 1 eta 2 zenbakiko Bilboko, Donos-tiako eta Gasteizko epaitegiak eta beste autonomia-erkidego batzuetako or-ganoek eman dituzte neurri horiek, EAEn bizi diren adingabeen kasuan edo, salbuespen gisa, beste autonomia-erkidego batzuetako adingabeen kasuan, baldin eta, zenbait arrazoirengatik, neurria ezin bazen zegokien autonomia erkidegoan betearazi.

5 Guztira 84 kautela-neurri izan arren, taulan 77 islatzen dira; hots, jaioterrri aitortua duten pertsonei apli-katutako neurrien guztizkoa.

6. taulak hezkuntza-zentroan edo ingurune irekian bete beharreko neurrien kopuruari eta ehunekoari buruzko informazio garrantzitsua ematen du. 2024an, ikusten denez, ingurune irekian bete beharreko neurri irmoen kopurua hezkuntza-zentroetan bete beharrekoak baino askoz handiagoa da (lehenak % 81 eta bigarrenak % 19). Alde hori 2023an erregistratutakoa baino are handiagoa da (% 69 vs. % 31), eta horrek ingurune irekiko neurriak lehenetasunez hartzeko joera sendotzen du.

Hezkuntza-zentroan bete beharreko neurrien artean, ohikoena –berriz ere– barneratze terapeutikoa izan da (% 43), ondoren, barneratze erdi-irekia (% 32), eta, gero, asteburuko egonaldiak (% 16). Bestalde, barneratze itxia eta barneratze irekia ehuneko txikiagoak dituzte (% 8 eta % 1, hurrenez hurren). Guztira, bost neurri horiek 129 kasuri aplikatu zaizkie.

Bestalde, ingurune irekian bete beharreko neurriei dagokienez, zaintzapeko askatasuna da gehien ezarri dena berriz ere –gainontzekoekiko alde handiarekin–, 2024an neurri irmo guztien % 57 baitzen (2023ko % 58 baino handiagoa). Ondoren, gizarte- eta hezkuntza-zereginak (% 19ra arte egin dute gora), eta gizartearentzako lanak (% 16an mantentzen dira) daude. Horien atzetik Eguneko zentrorra joatea (% 7) eta Tratamendu ambulatorioa (% 1) daude. Neurri horiek, guztira, 547 kasu biltzen dituzte, eta, esan bezala, argi eta garbi islatzen dute askatasuna hainbeste mugatzen ez duten neurriak lehenesteko estrategiak aurrera jarraitzen duela.

Banaketa horrek EAEko gazte-justiziaren esku hartzeko sistemaren eredu indartu egiten du; izan ere, sistema horrek ingurune irekietako hezkuntza- eta laguntza-neurriak lehenesten ditu, eta barneratzea eta askatasunaz gabetzeko neurriak egoera larriagoetarako edo berrerorleetarako gordetzen ditu.

| NEURRI IRMOAK | Guztira | |
|----------------------------------|------------|---------------------|
| Barneratze terapeutikoa | 55 | % 43 |
| Barneratze erdi-irekia | 41 | % 32 |
| Asteburuko egonaldia | 21 | % 16 |
| Barneratze itxia | 10 | % 8 |
| Barneratze irekia | 2 | % 1 |
| Guztira Hezkuntza-zentroa | 129 | % 19 (% 100) |
| Zaintzapeko askatasuna | 311 | % 57 |
| Gizarte- eta hezkuntza-zereginak | 106 | % 19 |
| Gizartearentzako lanak | 86 | % 16 |
| Eguneko zentrora joatea | 41 | % 7 |
| Tratamendu ambulatorioa | 3 | % 1 |
| Guztira Ingurune irekia | 547 | % 81 (% 100) |
| GUZTIRA | 676 | % 100 |

6. Taula. Neurri irmoen eskaera 2024an. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza

3.4.1 Neurri irmoen eskaria, «Sexua» aldagaiaren arabera

2024an ezarritako neurri irmo guztietatik, 129 (% 19) neskei ezarri zaizkie, aurreko urtean baino zertxobait gehiago (% 18 2023an, eta % 16 2022an).

Ehuneko hori modu desberdinean banatzen da bi betetze-moten artean:

- Ingurune irekian bete beharreko neurrien kasuan, neskak % 21 dira, eta horrek azken urteetako goranzko joera islatzen du.
- Aldiz, hezkuntza-zentroan bete beharreko neurriei dagokienez, % 10 baino ez zaizkie neskei aplikatzen; hala, eremu horretako genero-arrakala goratu egin da, 2023ko ehunekoa % 13 baitzen jada.

| NEURRI IRMOAK / MUTILEI/NESKEI EZARRITAKOAK | | | | Guztira |
|---|----------------|------------|-------------|------------|
| Barneratzea | Mutilak | 96 | % 89 | 108 |
| | Neskak | 12 | % 11 | |
| Asteburuko egonaldia | Mutilak | 20 | % 95 | 21 |
| | Neskak | 1 | % 5 | |
| Guztira Hezkuntza-zentroa | Mutilak | 116 | % 90 | 129 |
| | Neskak | 13 | % 10 | |
| Zaintzapeko askatasuna | Mutilak | 241 | % 77 | 311 |
| | Neskak | 70 | % 23 | |
| Gizarte- eta hezkuntza-zereginak | Mutilak | 81 | % 76 | 106 |
| | Neskak | 25 | % 24 | |
| Gizartearentzako lanak | Mutilak | 69 | % 80 | 86 |
| | Neskak | 17 | % 20 | |
| Eguneko zentrora joatea | Mutilak | 37 | % 90 | 41 |
| | Neskak | 4 | % 10 | |
| Tratamendu ambulatorioa | Mutilak | 3 | % 100 | 3 |
| Guztira Ingurune irekia | Mutilak | 431 | % 79 | 547 |
| | Neskak | 116 | % 21 | |
| GUZTIRA | Mutilak | 547 | % 81 | 676 |
| | Neskak | 129 | % 19 | |

7. Taula. Neurri irmoen eskaria 2024an, «Sexua» aldagaiaren arabera. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza

Ingurune irekiko taldearen barruan, neskek bakarrik hartzen baditugu erreferentziazat, honako hau ikus daiteke:

- Gizarte- eta hezkuntza-zereginak dira neurri ohikoena (kasuen % 24).
- Ondoren, zaintzapeko askatasunak (% 23).
- Gero, gizartearentzako lanak (% 20).
- Eguneko zentrora joatea (% 10).
- «Tratamendu ambulatorioa» neurriari dagokionez, aurten ez da erregistratu neskei aplikatutako neurririk.

Hezkuntza-zentroan bete beharreko neurriei dagokienez, mutilen eta nesken arteko aldea oso handia da oraindik ere:

- Barneratzei dagokienez, % 89 mutilei ezartzen zaizkie, eta % 11 soilik neskei.
- Asteburuko egonaldien % 95 mutilek jasotzen dituzte, eta % 5 apenas neskek.

Datu horiek islatzen dutenez, neurri irmoetan nesken presentzia nahiko egonkorra bada ere (apur bat igo da aurreko urteekin alderatuta), aldeak nabarmenagoak dira oraindik ere Barneratze-neurriei dagokienez; izan ere, sistemak neurri murriztaileenak mutilei ezartzen dizkie batez ere. Aitzitik, ingurune irekian, nesken presentzia handiagoa eta askotarikoagoa da, nahiz eta oraindik gutxiengoa izan.

3.4.2 Neurri irmoen eskaria, «Jaioterria» aldagaiaren arabera

Neurri irmoak jasotzen dituzten neska-mutilen jaioterriari dagokionez, atzerritarrei ezarritako neurrien ehunekoa (neurri guztien % 33) apur bat jaitsi da 2024an; EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoak, berriz, guztizkoaren % 67 dira. Zifra horrek 2023. eta 2022. urteekiko beherakada islatzen du, orduko ehunekoa % 40koa baitzen.

Datuak neurri motaren arabera aztertzen baditugu (8. taula), ikus daiteke hezkuntza-zentroan bete beharreko neurrien % 44 atzerritarrei ezarri zizkizkiela, eta % 56, berriz, EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoei. Horrek aurreko urtearekiko (% 57) beherakada berresten du, eta 2023an hasitako joera finkatzen du.

Ingurune irekian betetzeko neurriei dagokienez, berriz, atzerritarrei ezarritako neurriek ere behera egin dute apur bat iazko datuekin alderatuta (% 33tik % 30era), eta Estatuan jaiotako adingabeei ezarritako neurriak nagusi dira oraindik ere.

Dena den, neurri murriztaileen barruan (hala nola barneratzeko neurriak edo asteburuko egonaldia), atzerritarrek presentzia handia izaten jarraitzen dute. Barneratzeen kasuan, % 44 atzerritarrei ezartzen zaizkie; eta asteburuko egonaldiei dagokienez, berriz, % 43. Ehuneko horiek 2023koak

baino zertxobait txikiagoak badira ere (% 60 eta % 59, hurrenez hurren), oraindik ere ikusten da gizatalde horrek askatasuna gehien mugatzen duten neurriak proportzio handiagoan jasaten dituela.

| NEURRI IRMOAK / JAIOTERRIA | | | | Guztira |
|----------------------------------|---------------------------------------|------------|-------------|------------------|
| Barneratzea | EAE + beste autonomia-erkidego batzuk | 60 | % 56 | 108 |
| | Atzerria | 48 | % 44 | |
| Asteburuko egonaldia | EAE + beste autonomia-erkidego batzuk | 12 | % 57 | 21 |
| | Atzerria | 9 | % 43 | |
| Guztira Hezkuntza-zentroa | EAE + beste autonomia-erkidego batzuk | 72 | % 56 | 129 |
| | Atzerria | 57 | % 44 | |
| Zaintzapeko askatasuna | EAE + beste autonomia-erkidego batzuk | 205 | % 69 | 296 ⁶ |
| | Atzerria | 91 | % 31 | |
| Gizarte- eta hezkuntza-zereginak | EAE + beste autonomia-erkidego batzuk | 67 | % 68 | 98 ⁷ |
| | Atzerria | 31 | % 32 | |
| Gizartearentzako lanak | EAE + beste autonomia-erkidego batzuk | 59 | % 74 | 80 ⁸ |
| | Atzerria | 21 | % 26 | |
| Eguneko zentrora joatea | EAE + beste autonomia-erkidego batzuk | 28 | % 70 | 40 ⁹ |
| | Atzerria | 12 | % 30 | |
| Tratamendu ambulatorioa | EAE + beste autonomia-erkidego batzuk | 2 | % 67 | 3 |
| | Atzerria | 1 | % 33 | |
| Guztira Ingurune irekia | EAE + beste autonomia-erkidego batzuk | 361 | % 70 | 517 |
| | Atzerria | 156 | % 30 | |
| GUZTIRA | EAE + beste autonomia-erkidego batzuk | 433 | % 67 | 646 |
| | Atzerria | 213 | % 33 | |

8. Taula. 2024an EAEn, beste autonomia-erkidego batzuetan edo atzerrian jaiotako adingabeei ezarritako neurri irmoen eskaera. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

6 Guztira 311 Zaintzapeko askatasuneko neurri izan arren, taulan 296 islatzen dira; hots, jaioterri aitortua duten pertsonen aplikatutako neurrien guztizkoa.

7 Guztira 106 gizarte- eta hezkuntza-zereginen neurri badira ere, taulan 98 islatzen dira (aurreko kasuan gertatzen den moduan).

8 Guztira 86 Gizartearentzako lanen neurri badira ere, taulan 80 islatzen dira (aurreko kasuan gertatzen den moduan).

9 Guztira 41 Eguneko zentrora joateko neurri badira ere, taulan 40 islatzen dira (aurreko kasuan gertatzen den moduan).

Jarraian agertzen den taulak adingabe atzerritarren jatorrian zehatz sakontzeko aukera ematen du. 2024an, Magreben jaiotako pertsonak dira oraindik ere talde handiena atzerritarren artean (neurrien % 59 jasotzen dituzte). Ondoren, Latinoamerikan jaiotako pertsonak (% 28), Ekialdeko Europatik etorritakoak (% 3) eta «Beste batzuk» kategoriakoak (% 10) daude.

Gainera, Magrebeko kolektiboak jasotzen ditu neurri gehien ia kategoria guztietan:

- Zaintzapeko askatasunean, atzerritar guztien % 58 dira.
- Barneratzeetan, % 47.
- Gizarte- eta hezkuntza-zereginetan, % 65.
- Gizartearentzako lanetan, % 81; eta asteburuko egonaldietan, % 63.
- 'Eguneko zentrora joatea' neurrian ere dira nagusi (% 50).

Datu horiek aurreko urteetako ondorioa indartzen dute: Magreben jaiotako pertsonak, atzerriko gizatalderik ugariena izateaz gain, gazte-justiziaren sistemaren barruan neurri irmoen kopuru eta aniztasun handiena jasotzen dutenak ere badira.

| NEURRIAK | MAGREB | LATINOAM. | EKIALDEKO EUROPA | BESTE BATZUK | GUZTIRA |
|----------------------------------|---------------------------|--------------------------|------------------------|--------------------------|------------------------------|
| Zaintzapeko askatasuna | 53 % 58 | 26 % 29 | 1 % 1 | 11 % 12 | 91 (% 44) |
| Barneratzea | 21 % 47 | 14 % 31 | 2 % 4 | 8 % 18 | 45 (% 22) |
| Gizartearentzako lanak | 17 % 81 | 2 % 9 | 1 % 5 | 1 % 5 | 21 (% 10) |
| Gizarte- eta hezkuntza-zereginak | 20 % 65 | 10 % 32 | 1 % 3 | --- | 31 (% 15) |
| Asteburuko egonaldiak | 5 % 63 | 1 % 37 | --- | --- | 8 (% 4) |
| Eguneko zentrora joatea | 6 % 50 | 4 % 33 | 2 % 17 | --- | 12 (% 5) |
| Tratamendu ambulatorioa | 1 % 100 | --- | --- | --- | 1 (% 0) |
| GUZTIRA | 123 % 59 | 59 % 28 | 7 % 3 | 20 % 10 | 209 (% 100) |

9. Taula. Neurri irmoen eskaerak 2024an, atzerritarrei dagokienez. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza

3.4.3 Neurri irmoen eskaria, «Delitu-egitateak» aldagaiaren arabera

Jarraian aurkezten dugun taulak neska-mutilek jasotzen duten zigor-erantzunari buruzko informazio garrantzitsua islatzen du, egindako delitu-egitateen motaren arabera. Adingabeen artean ohikoa den bezala, zehatutako delitu asko dago; eta, beraz, gutxienez % 3ko pisua duten egitateak baino ezin dira kategorizatu. Hala ere, «Beste batzuk» kategoriak pisu handia izaten jarraitzen du (gutzizkoaren % 32), eta, berriz ere, talde horri ezarritako zigor-erantzuna ingurune irekiko neurriek osatzen dute batez ere (neurri guztien % 81).

Delitu ohikoenei dagokienez, bi mota hauek dira ohikoenak 2024an:

- Lesioak: 143 kasu (% 21).
- Indarkeriaz edo larderiaz eginiko lapurretak: 143 kasu (% 21).

Horren atzetik, pisu txikiagoa duten beste delitu batzuk daude:

- Ebasketa eta familia-indarkeria: 58 eta 45 kasu, hurrenez hurren (biak % 9).
- Mehatxuak: 40 kasu (% 6).
- Indarrezko lapurreta: 34 kasu (% 5).

Azkenik, «Beste batzuk» kategorian bildutako delitu minoritarioen kopuruari eutsi zaio: 213 kasu (% 32), eta talde ugariena da. Horrek agerian uzten du gazteen zigor-eremuan tipifikatutako jokabideak ugariak eta anitzak direla.

Delituaren arabera ezartzen den neurri motari dagokionez, ondoriozta dezakegu delitu-egitate gehienak ingurune irekiko neurriekin zehatzen direla, aurreko urteetako joerari eutsiz. Hala ere, delitu jakin batzuei hezkuntza-zentroan betetzeko neurrien proportzio nabarmena esleitzen zaie:

- Indarkeriaz edo larderiaz eginiko lapurretetan, neurrien % 32 hezkuntza-zentroan betetzekoak dira.
- Familia-indarkerian, kasuen % 13 barneratze- edo antzeko beste neurri batzuen bidez ebazten da.
- Kopuru horiek baino ehuneko txikiagoak dituzte indarrezko lapurretek (% 9), lesioek (% 6) eta ebasketek (% 5).

Ehuneko horiek 2023an behatutakoak baino txikiagoak badira ere (adibidez, hezkuntza-zentroan bete behar ziren indarkeriazko lapurreten aurkako neurriak % 49 ziren, eta familia-indarkeriari aurre egitekoak, berriz,

% 39), nabarmentzekoa da indarkeria fisikoa edo larderia osagai duten delituei erantzun judizial murriztaileagoak ezartzen zaizkiela oraindik.

Laburbilduz, 2024an berretsi egin da gazte-justiziaren sistemak ingurune irekiko hezkuntza-neurriak lehenesteko duen joera, delitu-egitatearen izaerak esku-hartze egituratuagoa eskatzen duen kasuetan izan ezik (egoera fisikoa edo segurtasun pertsonala kaltetu dezaketen delituetan, esaterako).

| EZARRITAKO NEURRI IRMOAK | Lesioak | Indarkeriazko edo larde-riazko lapurrera | Ebasketa | Familia-inkeria | Mehatxuak | Indarrezko lapurrera | Beste batzuk | GUZTIRA |
|----------------------------------|---------------------------|--|-------------------------|--------------------------|-------------------------|-------------------------|---------------------------|----------------------------|
| Barneratzea | 8 | 38 | 3 | 15 | 3 | 11 | 30 | 108 |
| Asteb. egonaldiak | --- | 3 | 4 | 2 | 1 | --- | 11 | 21 |
| Hezkuntza-zentroa | 8 % 6 | 41 % 32 | 7 % 5 | 17 % 13 | 4 % 3 | 11 % 9 | 41 % 32 | 129 % 19 |
| Zaintzapeko askatasuna | 63 | 70 | 20 | 24 | 19 | 13 | 102 | 311 |
| Gizartearentzako lanak | 30 | 11 | 11 | 1 | 6 | 3 | 24 | 86 |
| Gizarte- eta hezkuntza-zereginak | 39 | 10 | 11 | --- | 10 | 4 | 32 | 106 |
| Eguneko zentrorra joatea | 3 | 10 | 9 | 3 | 1 | 3 | 12 | 41 |
| Tratamendu ambulatorioak | --- | 1 | --- | --- | --- | --- | 2 | 3 |
| Ingurune irekia | 135 % 25 | 102 % 19 | 51 % 9 | 28 % 5 | 36 % 7 | 23 % 4 | 172 % 31 | 547 % 81 |
| GUZTIRA | 143 % 21 | 143 % 21 | 58 % 9 | 45 % 7 | 40 % 6 | 34 % 5 | 213 % 32 | 676 % 100 |

10. Taula. Neurri irmoen eskaeren banaketa 2024an, «Delitu-egitateak» aldagaiaren arabera. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza

3.4.4 EAEko eta beste autonomia-erkidego batzuetako neurri irmoen eskaria

Hurrengo ataletan, Adingabeen epaitegi bakoitzean aplikatzen diren neurriak banaka aztertuko dira. Hala ere, ikuspegi orokorra emate aldera, 11. taula egin da; bertan, EAEko epaitegien araberrako neurri irmoen banaketa ikusten da 2024an.

Beste autonomia-erkidego batzuetako epaitegiek ezarritako neurriak alde batera utzita (neurri guztien % 6, 2023an baino bi puntu gehiago), Donostiako Epaitegia da aurten neurri gehien ezarri dituen: 188 neurri (neurri guztien % 28). Ondoren, Bilbo 1 (% 25), Vitoria-Gasteiz (% 23) eta Bilbo 2 (% 18) daude. Banaketa horrek islatzen duenez, joera apur bat aldatu da, eta nabarmentzekoa da Donostian eta Gasteizen neurriek gora egin dutela; Bilbo 2n, berriz, 2023arekin alderatuta, nolabaiteko jaitsiera egon da.

Betetze-motari dagokionez (hezkuntza-zentroa vs. ingurune irekia), joera orokorra mantentzen da epaitegi guztietan; hots, ingurune irekiko neurriak ezartzeko joera. Bereziki nabarmentzekoak dira:

- Vitoria-Gasteiz: neurrien % 96 ingurune irekikoak dira.
- Donostian, % 79.
 - Bilbo 1 eta 2 epaitegiek hezkuntza-zentroetan gauzatu beharreko neurrien proportzio handiagoa dute: % 29 Bilbo 1 epaitegian, eta % 23 Bilbo 2 epaitegian. Ehuneko horiek Bizkaiko erabaki judizialak zorrotzagoak direla –EAEko gainerako lurraldeekin alderatuta– adierazten dute.

Neurrien profila epaitegika laburki aztertuz gero, honako hau ikusten da:

- Bilbo 1 epaitegian, zaintzapeko askatasuna eta barneratzea dira nagusi (neurrien % 68), eta erantzun judizial nagusiak izaten jarraitzen dute.
- Bilbo 2 epaitegiak antzeko joera du, bi neurri horiek guztizkoaren % 76 baitira.
- Donostiako epaitegiari dagokionez, berriz, ikuspegia anitzagoa da: zaintzapeko askatasunaren neurriak eta gizarte- eta hezkuntza-zereginak ugarriagoak dira, eta, oro har, ezarritako neurrien % 65 dira.
- Bestalde, Gasteizko epaitegiak are gehiago indartzen du joera hori, neurrien % 92 zaintzapeko askatasunean, gizartearentzako lanetan eta gizar-

te- eta hezkuntza-zereginetan oinarritzen baitira (guztiak ingurune irekian betetzekoak).

| NEURRIAK/ EPAITEGIAK | Bilbo 1 | | Bilbo 2 | | Donostia | | Gasteiz | | Beste batzuk | | GUZTIRA |
|---|------------|-------------|------------|-------------|------------|-------------|------------|-------------|--------------|------------|------------|
| Barneratzea | 45 | | 29 | | 24 | | 5 | | 5 | | 108 |
| Asteburuko egonaldia | 5 | | 0 | | 15 | | 1 | | 0 | | 21 |
| Hezkuntza-zentroa | 50 | % 39 | 29 | % 22 | 39 | % 30 | 6 | % 5 | 5 | % 4 | 129 |
| Zaintzapeko askatasuna | 70 | | 66 | | 80 | | 80 | | 15 | | 311 |
| Gizartearentzako lanak | 18 | | 11 | | 14 | | 36 | | 7 | | 86 |
| Gizarte- eta hezkuntza-zereginak | 18 | | 11 | | 42 | | 27 | | 8 | | 106 |
| Eguneko zentrorako joatea | 12 | | 8 | | 13 | | 6 | | 2 | | 41 |
| Tratamendu ambulatorioa | 2 | | 0 | | 0 | | 0 | | 1 | | 3 |
| Ingurune irekia | 120 | % 22 | 96 | % 18 | 149 | % 27 | 149 | % 27 | 33 | % 6 | 547 |
| GUZTIRA | 170 | % 25 | 125 | % 18 | 188 | % 28 | 155 | % 23 | 38 | % 6 | 676 |

11. Taula. 2024ko neurri irmoen eskaera EAEko adingabeen epaitegietan. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza

Datu horiek honako ideia hau babesten dute: epaitegi guztiek neurri hezitzaileak eta ingurune irekikoak lehenesten badituzte ere, Bizkaiko epaitegiek (Bilbo 1 eta 2) maiz erabiltzen dituzte barneratze-neurriak; eta Gipuzkoako eta Arabako epaitegiek (Donostia eta Gasteiz), berriz, neurri irekia eta dibertsifikatuagoak erabiltzeko joera dute.

3.4.5 Neurri irmoen eskariaren mota

Jarraian, EAEko adingabeen epaitegiek ezarritako neurri irmo bakoitzaren azterketa aurkezten da, neurri-kopuruaren arabera ordenatuta.

3.4.5.1 Zaintzapeko askatasuna

12. taulak zaintzapeko askatasunaren neurri irmoari buruzko informazio xehatua ematen du (2024. urteari dagokionez), eta funtsezko hiru parametro hartzen ditu kontuan: neurrien iraupena (egunak), neurriok ezartzen dituen epaitegia, eta neurri horiek jasan dituzten adingabeen guztizko kopurua.

Aurten, zaintzapeko askatasuneko 311 neurri ezarri dira guztira, aurreko urtean baino pixka bat gutxiago (323 neurri 2023an). Neurrien iraupenari dagokionez, ez dago kopuru finkorik, baina multzo nagusiak antzematen dira:

- Neurri gehien barne hartzen dituen tarteak 91-180 egunekoak da: 90 neurri (% 29).
- Ondoren, 181-270 eguneko tarteak: 85 neurri (% 27).
- Gero, 271-360 eguneko tarteak: 69 neurri (% 22).
- 1-90 eguneko tarteak (laburrenak) 44 neurri (% 14) hartzen ditu barne.
- Azkenik, urtebetetik gorako neurriak (361 egun edo gehiago) guztizkoaren % 8 baino ez dira (23 neurri).

Zifra horiek islatzen dutenez, iraupen ertaineko neurriak ohikoagoak dira (91-270 egun artekoak, bereziki), guztizkoaren % 56 biltzen baitute. Oso iraupen laburreko edo luzeko neurriak oso gutxi erabiltzen jarraitzen dira.

Epaitegien araberrako banaketari dagokionez, aurreko urtean baino lurralde-ekitate handiagoa ikusten da. 2024an:

- Gasteizko eta Donostiako epaitegiek ezarri dituzte neurri gehien: 80 bakoitzak; hots, neurri guztien % 26.
- Ondoren, Bilbo 1 epaitegia (70 neurri, % 23), eta Bilbo 2 epaitegia (66 neurri, % 21) daude.
- Beste autonomia-erkidego batzuetako epaitegiek 15 neurri ezarri dituzte guztira (% 4).

| Egun kopurua / Epaitegia/Pertsonak | 1/90 | 91/180 | 181/270 | 271/360 | 361 edo + | GUZTIRA |
|---------------------------------------|-------------|-------------|-------------|-------------|--------------|------------------|
| <i>Gasteiz</i> | 14 | 31 | 22 | 9 | 4 | 80 (% 26) |
| <i>Donostia</i> | 8 | 35 | 13 | 15 | 9 | 80 (% 26) |
| <i>Bilbo 1</i> | 16 | 7 | 22 | 22 | 3 | 70 (% 23) |
| <i>Bilbo 2</i> | 6 | 13 | 28 | 15 | 4 | 66 (% 21) |
| <i>Beste batzuk</i> | 0 | 4 | 0 | 8 | 3 | 15 (% 4) |
| GUZTIRA | 44 | 90 | 85 | 69 | 23 | 311 |
| | % 14 | % 29 | % 27 | % 22 | % 8 | % 100 |

12. Taula. «Zaintzapeko askatasuna» neurri irmoaren eskaera 2024an. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

Banaketa hori eta 2023koa ez datoz bat; izan ere, azken horretan, Bizkaiak biltzen zuen zaintzapeko askatasunaren neurrien % 47. 2024an, lurraldeen arteko banaketa hori orekatuagoa da, eta Arabako eta Gipuzkoako epaitegiek iguera proportzionala izan dute neurri hori erabiltzeari dagokionez.

Oro har, datu horiek islatzen dutenez, zaintzapeko askatasuna EAEko epaitegi guztiek asko erabiltzen duten tresna da oraindik; hala, iraupen ertainak lehenesten dira, eta modu orekatuan aplikatzen da lurralde osoan.

3.4.5.2 Barneratzeak¹⁰

2024an, 108 barneratzeko neurri aplikatzeko eskatu da, aurreko urtean baino nabarmen gutxiago (196 neurri 2023an). Azterketa egiteko, «Zaintzapeko askatasuna» neurriaren kasuan erabili diren parametro berberak hartu dira kontuan: neurrien iraupena, horiek ezartzen dituzten epaitegiak eta neurri horiek jasan dituzten adingabeen guztizko kopurua.

¹⁰ «Barneratzea» izeneko neurriari buruzko informazioa jasotzen da, zentroan betetzeko fasea eta ingurune irekian betetzeko fasea (zaintzapeko askatasuna) kontuan hartu gabe.

Barneratzeko neurrien iraupenari dagokionez, honako banaketa hau ikus daiteke:

- 271-360 eguneko tartea izan da ohikoena, eta 41 neurri hartzen ditu barne (% 38).
- Ondoren, 181-270 eguneko tartea dago: 34 neurri (% 31).
- 15 kasutan (% 14) ezarri dira iraupen laburrena izan duten neurriak (91-180 egun).
- Bestalde, 18 kasutan (% 17) ezarri dira iraupen luzeena izan duten neurriak (361 egun baino gehiago).

Hala, oro har, neurrien % 69k 181-360 eguneko epea barne hartzen du, eta horrek islatzen duenez, iraupen ertaineko barneratzeak aplikatzeko joera egonkorra da. Bestalde, iraupen luzeko neurriak apur bat murriztu dira 2023arekin alderatuz gero (urte horretan % 18 baitziren), eta iraupen gutxiagokoak ere bere horretan mantentzen dira nolabait.

Neurrien lurralde-banaketa dagokionez, Bizkaiko epaitegien nagusitasuna mantentzen da, guztizkoaren % 69 biltzen baitute:

- Bilbo 1 epaitegiak 45 neurri eman ditu, hots, neurri guztien % 42.
- Bilbo 2 epaitegiak 29 neurri ezarri ditu (% 27).

Ondoren, Donostiako Epaitegia dago, zeinak 24 neurri (% 22) ezarri dituen; izan ere, igoera nabarmena izan du 2023arekin alderatuta, neurrien kopurua % 13 baino ez baitzen urte horretan.

Vitoria-Gasteizko epaitegiak 5 neurri eman ditu (% 5), eta beste autonomia-erkidego batzuetako epaitegiek ere 5 neurri ezarri dituzte (% 4).

| Egun kopurua / Epaitegia/Pertsonak | 91/180 | 181/270 | 271/360 | 361 edo + | GUZTIRA |
|---------------------------------------|-------------|-------------|-------------|-------------|------------------|
| <i>Bilbo 1</i> | 8 | 14 | 12 | 11 | 45 (% 42) |
| <i>Bilbo 2</i> | 3 | 8 | 14 | 4 | 29 (% 27) |
| <i>Donostia</i> | 3 | 11 | 10 | 0 | 24 (% 22) |
| <i>Gasteiz</i> | 0 | 1 | 2 | 2 | 5 (% 5) |
| <i>Beste batzuk</i> | 1 | 0 | 3 | 1 | 5 (% 4) |
| GUZTIRA | 15 | 34 | 41 | 18 | 108 |
| | % 14 | % 31 | % 38 | % 17 | % 100 |

13. Taula. «Barneratzea» neurri irmoaren eskaera 2024an. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

Datu horien arabera, aurreko urtearekin alderatuta barneratzeen kopurua nabarmen murriztu bada ere, joera finkatuari eutsi zaio: Neurri gabetzaile horri dagokionez, Bizkaiak biltzen ditu erabaki judizial gehienak, baina Gipuzkoak bere parte-hartzea handitu du aurreko urteekin alderatuta. Arabak, aldiz, zifra baxuak ditu neurri horren erabilerari dagokionez.

3.4.5.3 Gizartearentzako lanak

14. taulan ageri da 2024an ezarritako gizartearentzako lanen 86 neurri buruzko informazioa. Neurri honetarako soilik adieraziko da iraupena ordutan, eta, ikus daitekeenez, neurri honetako gehienak 21-40 orduko tartean daude (guztizkoaren % 62).

Jarraian, neurrien iraupenari buruzko datu garrantzitsuenak nabarmentzen dira:

- 21-40 ordu: 53 neurri (% 62).
- 41-60 ordu: 26 neurri (% 30).
- 1-20 ordu: 3 neurri (% 3).
- 61 ordu edo gehiago: 4 neurri (% 5).

Horrek agerian uzten du iraupen ertaineko neurrien alde egiten dela argi eta garbi, aurreko urteetan gertatutakoarekin bat etorriz. Iraupenik laburrena (20 ordu baino gutxiagokoak) edo luzeena (60 ordu baino gehiagokoak) izan duten neurriek oso gutxi izaten jarraitzen dute.

Epaitegien araberrako banaketari dagokionez, aldaketa nabarmena antzematen da 2023arekin alderatuta. Orain, Vitoria-Gasteizko Adingabeen Epaitegia da neurri hori gehien ezartzen duena: 36 kasu (% 42); ondoren, Bilbo 1: 18 kasu (% 21), eta, azkenik, Donostia: 14 kasu (% 16); Bilbo 2: 11 kasu (% 13); eta beste epaitegi batzuk: 7 kasu (% 8).

Horrek aldaketa nabarmena dakar; izan ere, 2023an, Donostiako eta Gasteizko epaitegiak ziren nagusi (% 29 eta % 28, hurrenez hurren). 2024an, Vitoria-Gasteiz da neurri horri gehien ezartzen duena, eta Donostia, berriz, hirugarren postura jaitsi da.

Aldaketa hori esku-hartze judizialeko irizpideetan izandako aldaketen ondorio, lurraldean baliabide gehiago izatearen ondorio edo artatutako kasuen profil-aldaketaren ondorio izan daiteke. Nolanahi ere, berretsi egiten da «Gizartearentzako lanak» neurri garrantzitsuak eta ohikoak direla neurri irmoen taldean; hala, irizpide proportzionalen arabera aplikatzen dira, eta – ahal den neurrian– iraupen ertaineko tarreak ezartzen dira.

| Ordu-kopurua / Epaitegia/Pertsonak | 1/20 | 21/40 | 41/60 | 61 edo + | GUZTIRA |
|---------------------------------------|------------|-------------|-------------|------------|------------------|
| <i>Gasteiz</i> | 0 | 26 | 9 | 1 | 36 (% 42) |
| <i>Bilbo 1</i> | 0 | 10 | 7 | 1 | 18 (% 21) |
| <i>Donostia</i> | 2 | 10 | 1 | 1 | 14 (% 16) |
| <i>Bilbo 2</i> | 1 | 4 | 6 | 0 | 11 (% 13) |
| <i>Beste batzuk</i> | 0 | 3 | 3 | 1 | 7 (% 8) |
| GUZTIRA | 3 | 53 | 26 | 4 | 86 |
| | % 3 | % 62 | % 30 | % 5 | % 100 |

14. Taula. «Gizartearentzako lanak» neurri irmoaren eskaera 2024an. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

3.4.5.4 Gizarte- eta hezkuntza-zereginak

15. taulan daude jasota 2024an ezarritako gizarte- eta hezkuntza-zereginen 106 neurriei buruzko datuak. Taula horretan, neurrien kopuruari, iraupenari (egunetan), inplikaturako adingabeei eta neurri horiek eskatu dituzten epaitegiei buruzko informazioa jasotzen da.

Iraupenari dagokionez, honako hau ikusten da:

- Neurri gehienak 91-180 eguneko tartean kokatzen dira: 53 neurri (% 50), eta tarte horrek ohikoena izaten jarraitzen du (aurreko urteetan bezala).
- Ondoren, 1-90 eguneko tarte dago: 26 neurri (% 25).
- 181-270 eguneko neurriak 21 kasutan aplikatu dira (% 20).
- Soilik 6 neurri (% 5) dute 270 egun baino gehiagoko iraupena, eta horrek berresten du iraupen luzeko neurriek gutxiengoa izaten jarraitzen dutela.

Banaketa horren arabera, iraupen ertaineko edo laburreko neurrien alde egiten da argi eta garbi, guztizkoaren % 75 metatzen baita lehen bi tarte horietan.

Epaitegien araberrako banaketari dagokionez, 2024ko datuek berretsi egiten dute Donostiako eta Gasteizko epaitegien nagusitasuna, horiek baitira neurri gehien ezarri dituztenak:

- Donostia: 42 neurri (% 42).
- Gasteiz: 27 neurri (% 27).
- Bilbo 1: 18 neurri (% 18).
- Bilbo 2: 11 neurri (% 11).
- Beste epaitegi batzuk: 8 neurri (% 8).

Datu horiek islatzen dutenez, Bilboko parte-hartzea apur bat handitu da 2023arekin alderatuta, batez ere Bilbo 1 Epaitegian. Dena den, Gipuzkoako eta Arabako epaitegiak dira neurri hori gehien erabiltzen dutenak; zehazki, Donostiak lidergoari eusten dio (guztizkoaren % 40 baino gehiago), eta Gasteizek bigarren postua du. Horrek agerian uzten du erantzun nagusi gisa -delitu-profil jakin batzuen aurrean- neurri hezitzaile egituratuak sustatzen dituen esku-hartze judizialeko eredua.

Laburbilduz, gizarte- eta hezkuntza-zereginen neurria: ohiko tresna gisa finkatzen da berriz ere, iraupen ertaina izaten du, Gipuzkoan eta Araban asko aplikatzen da, eta izaera hezitzaile nabaria duen esku-hartze ereduaren jarraipena berresten du.

| Egun kopurua / Epaitegia/Pertsonak | 1/90 | 91/180 | 181/270 | 271 edo + | GUZTIRA |
|---------------------------------------|-------------|-------------|-------------|------------|--------------|
| <i>Donostia</i> | 9 | 23 | 8 | 2 | % 42 |
| <i>Gasteiz</i> | 12 | 12 | 3 | 0 | % 27 |
| <i>Bilbo 1</i> | 5 | 7 | 4 | 2 | % 18 |
| <i>Bilbo 2</i> | 0 | 6 | 5 | 0 | % 11 |
| <i>Beste batzuk</i> | 0 | 5 | 1 | 2 | % 8 |
| GUZTIRA | 26 | 53 | 21 | 6 | 106 |
| | % 25 | % 50 | % 20 | % 5 | % 100 |

15. Taula. «Gizarte- eta hezkuntza-zereginak» neurri irmoaren eskaera 2024an. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

3.4.5.5 Eguneko zentrora joatea

2024an, eguneko zentrora joateko 41 neurri ezarri dira guztira; aurreko urtean, kopurua oso antzekoa zen (44 neurri 2023an). Taula honetan, neurrien iraupenari, inplikaturako adingabeen kopuruari eta neurriak eman dituzten epaitegiei buruzko informazioa jasotzen da.

Neurri horien iraupenari dagokionez, banaketa nahiko metatua ikusten da:

- Neurri gehienak (% 56) 181-270 eguneko tartean daude: 23 kasu.
- Ondoren, 91-180 eguneko tartea dago: 13 kasu (% 32).
- Iraupen laburrena duten neurriek (1-90 egun) kasu 1 baino ez dute barne hartzen (% 2).
- Iraupen luzeko neurriak ere oso urriak dira: 3 kasu (% 7) 271-360 eguneko tartean, eta neurri bat baino ez (% 3) 361 egunetik gorako tartean.

Laburbilduz, neurrien % 88 91-270 eguneko tartean metatzen dira; eta, beraz, tarte hori da ohikoena neurri-mota honetarako.

Epaitegien araberrako banaketari dagokionez, nabarmentzekoa da Donostiako Epaitegiaren parte-hartzeak gora egin duela 2024an (13 kasu, % 32), eta, hala, lehen postua bereganatzen du neurri horren aplikazioari dagokionez. Horren atzetik daude:

- Bilbo 1: 12 neurri (% 29).
- Bilbo 2: 8 neurri (% 20).
- Vitoria-Gasteiz: 6 neurri (% 15).
- Beste epaitegi batzuk: 2 neurri (% 4).

Aldaketa horrek aldaketa nabarmena adierazten du 2023 urtearekin alderatuz gero, orduan Bizkaiko epaitegiek neurrien % 62 biltzen baitzituzten. 2024an Bizkaiak pisu handia izaten jarraitzen badu ere (% 49 Bilbo 1 eta 2 epaitegien artean), lurraldeen arteko dibertsifikazio handiagoa antzematen da; hala, Donostia da neurri hori gehien ezartzen duen epaitegia, eta gainerrako epaitegiek parte-hartze orekatuagoa dute.

Oro har, eguneko zentrorra joateko neurria: neurrizko erabilera duen tresna da oraindik ere, iraupen homogenea du, eta 2024an modu ekitatiboagoan banatu da EAeko lurraldeen artean.

| Egun kopurua / Epaitegia/ Pertsonak | 1/90 | 91/180 | 181/270 | 271/360 | 361 edo + | GUZTIRA |
|---|------------|-------------|-------------|------------|------------|------------------|
| <i>Bilbo 2</i> | - | 6 | 2 | - | - | 8 (% 20) |
| <i>Bilbo 1</i> | 1 | 5 | 6 | - | - | 12 (% 29) |
| <i>Gasteiz</i> | - | - | 5 | - | 1 | 6 (% 15) |
| <i>Donostia</i> | - | 2 | 10 | 1 | - | 13 (% 32) |
| <i>Beste batzuk</i> | - | - | - | 2 | - | 2 (% 4) |
| | 1 | 13 | 23 | 3 | 1 | 41 |
| <i>GUZTIRA</i> | % 2 | % 32 | % 56 | % 7 | % 3 | % 100 |

16. Taula. «Eguneko zentrora joatea» neurri irmoaren eskaera 2024an. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

3.4.5.6 Asteburuko egonaldia

«Asteburuko egonaldia hezkuntza-taldean» neurria ez da egunetan zenbatzen, asteburuetan baizik. 2024an, 21 aldiz eskatu da; hots, nabarmen murriztu da aurreko urtearekin alderatuta (37 2023an).

Epaitegien araberako banaketari dagokionez, honako hau ikusten da:

- Donostiako epaitegia da –gainontzekoekiko alde handiarekin– neurri horretara gehien jotzen duena: 15 kasu (% 71).
- Ondoren, Bilbo 1 epaitegia: 5 kasu (% 24).
- Eta, azkenik, Vitoria-Gasteiz: neurri 1 (% 5).

Nabarmenezkoa da 2024an Bilbo 2 epaitegiak eta beste autonomia-erkidego batzuetako epaitegiek ez dutela ezein neurri ezarri, eta horrek agerian uzten du lurralde-kontzentrazioa dagoela (Gipuzkoan, bereziki).

Neurrien iraupenari dagokionez, eta 2023koarekin alderatuta, banaketa orekatuagoa da, muturreko balioetan zertxobait apalagoa izanez:

- Neurrien % 33k (7 kasu) 3-4 asteburuko iraupena dute, eta tarterik ohikoena da hori.

- 1-2 asteburutako neurriak % 24 dira (5 kasu).
- 5-6 asteburukoak % 24 dira (5 kasu).
- Azkenik, 7 asteburu edo gehiagoko iraupena duten neurriak kasuen % 19 dira (4 kasu); horrek esan nahi du jaitsiera txiki bat izan dela aurreko urtearekin alderatuta, orduko tarte luzeena % 35 baitzen.

Oro har, 2024ko datuek islatzen dutenez, neurri hori gutxiago erabiltzen da eta kontzentrazio geografiko handiagoa du (bereziki Donostiako Epaitegian, guztizkoaren bi heren baino gehiago hartzen baititu). Iraupenari dagokionez, aplikazio orekatua eta proportzionala nagusitzen da, eta iraupen ertaineko neurriak lehenesten dira.

| Egun kopurua / Epaitegia/Pertsonak | 1/2 | 3/4 | 5/6 | 7 edo + | GUZTIRA |
|------------------------------------|-------------------------|-------------------------|-------------------------|-------------------------|---------------------------|
| <i>Donostia</i> | 2 | 4 | 5 | 4 | 15 (% 71) |
| <i>Bilbo 1</i> | 3 | 2 | 0 | 0 | 5 (% 24) |
| <i>Gasteiz</i> | 0 | 1 | 0 | 0 | 1 (% 5) |
| GUZTIRA | 5 % 24 | 7 % 33 | 5 % 24 | 4 % 19 | 21 % 100 |

17. Taula. «Asteburuko egonaldia» neurri irmoaren eskaera 2024an. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

3.4.5.7 Tratamendu ambulatorioa

2024an, tratamendu ambulatorioko 3 neurri baino ez dira ezarri, 2 Bilbon 1 epaitegian eta beste bat Bartzelonan («Beste batzuk» kategoria).

Iraupenari dagokionez, horietako bat 180 egunekoa izan da, beste bat 540 egunekoa, eta bestea 1905 egunekoa.

3.5 Delitu-egitateak

3.5.1 Neurri irmoak jaso dituzten delitu-egitateak, «Sexua» aldagaia- ren arabera

2024an ezarritako 676 neurri irmoetatik, % 19 neskei aplikatu zaizkie, eta gainerako % 81, berriz, mutilei (aurreko urteko datuen oso antzekoak; % 18 vs. % 82).

Betetze-motari dagokionez, sexuaren arabera aldea argiak dira oraindik ere:

- Hezkuntza-zentroan betetzeko neurriei dagokionez, % 90 mutilei ezarri zaizkie, eta % 10, berriz, neskei.
- Ingurune irekiko neurriei dagokionez, % 79 mutilei aplikatu zaizkie, eta % 21, berriz, neskei.

Ehuneko horiek islatzen dutenez, nahiz eta neskek neurri gutxiago jasotzen jarraitzen duten –oro har–, presentzia zertxobait handiagoa dute ingurune irekiko neurrietan; barneratze-neurrietan, berriz, mutilak nagusitzen dira berriz ere.

Delitu-egitate ohikoenak aztertzen baditugu («Beste batzuk» kategoria kontuan hartu gabe), ikus dezakegu aurreko urteetako joerari eusten zaiola: neurri gehienak mutilei ezartzen zaizkie.

- Indarkeriaz edo larderiaz egindako lapurretetan, neurrien % 85 mutilei aplikatu zaizkie, eta % 15 neskei.
- Lesioetan, % 73 mutilei dagozkie, eta % 27 neskei.
- Ebasketetan, neurrien % 86 mutilei aplikatu zaizkie, eta % 14 neskei.
- Familia-indarkeriari dagokionez, banaketa orekatuagoa da: mutilak % 67, eta neskek % 33; izan ere, delitu ohikoenen artean, hori da emakumeek gehien egiten dutena.
- Mehatxuetan, neurrien % 85 mutilei ezarri zaizkie, eta % 15 neskei.

Laburbilduz, 2024ko datuek berresten dute neurri irmo gehienak oraindik ere mutilei ezartzen zaizkiela, bereziki delitu larrietan edo indarkeriaz egiten direnetan. Hala ere, nesken presentzia handiagoa mantentzen da familia-indarkeria eta antzeko delituetan, eta hori familia-dinamika konplexuen edo sexuaren arabera esku-hartze profilen adierazle izan daiteke.

| DELITU-EGITATEAK ETA NEURRI IR- MOAK | Sexua | Barner. | AE | Hezkunt- za-zentroa | Zaintz. Ask. | GL | GHZ | EZJ | Tratam. Anbulat. | Ingurune irekia | | GUZTIRA | | |
|--|----------|-----------|-----------|------------------------|-----------------|------------|-----------|-----------|---------------------|--------------------|------------|-------------|------------|-------------|
| | | | | | | | | | | | | | | |
| Indarkeriazko edo larderiazko lapurreta | H | 36 | 3 | 39 | % 32 | 54 | 9 | 9 | 9 | 1 | 82 | % 68 | 121 | % 85 |
| | M | 2 | --- | 2 | % 9 | 16 | 2 | 1 | 1 | --- | 20 | % 91 | 22 | % 15 |
| Lesioak | H | 8 | --- | 8 | % 8 | 47 | 19 | 28 | 3 | --- | 97 | % 92 | 105 | % 73 |
| | M | --- | --- | --- | --- | 16 | 11 | 11 | --- | --- | 38 | % 100 | 38 | % 27 |
| Ebasketa | H | 3 | 4 | 7 | % 14 | 15 | 10 | 10 | 8 | --- | 43 | % 86 | 50 | % 86 |
| | M | --- | --- | --- | --- | 5 | 1 | 1 | 1 | --- | 8 | % 100 | 8 | % 14 |
| Familia-indarkeria | H | 9 | 2 | 11 | % 37 | 15 | 1 | --- | 3 | --- | 19 | % 63 | 30 | % 67 |
| | M | 6 | 0 | 6 | % 10 | 9 | --- | --- | --- | --- | 9 | % 60 | 15 | % 33 |
| Mehatxuak | H | 3 | 1 | 4 | % 12 | 14 | 6 | 9 | 1 | --- | 30 | % 88 | 34 | % 85 |
| | M | --- | --- | --- | --- | 5 | --- | 1 | --- | --- | 6 | % 100 | 6 | % 15 |
| Beste batzuk | H | 37 | 10 | 47 | % 23 | 96 | 24 | 25 | 13 | 2 | 160 | % 77 | 207 | % 84 |
| | M | 4 | 1 | 5 | % 13 | 19 | 3 | 11 | 2 | --- | 35 | % 87 | 40 | % 16 |
| GUZTIRA | H | 96 | 20 | 116 | % 21 | 241 | 69 | 81 | 37 | 3 | 431 | % 79 | 547 | % 81 |
| | M | 12 | 1 | 13 | % 10 | 70 | 17 | 25 | 4 | --- | 116 | % 90 | 129 | % 19 |

18. Taula. Neurri irmoen eskaeren banaketa 2024an, «Delitu-egitateak» eta «Sexua» aldagaien arabera. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza

3.5.2 Neurri irmoak jaso dituzten delitu-egitateak, «Jaioterria» aldagaiaren arabera

Jaioterria kontuan hartuta, 2024an ezarritako 646 neurri irmoetatik, % 33 atzerritarrei aplikatu zaizkie, eta % 67, berriz, EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoei. Horrek esan nahi du jaiotsiera txiki bat izan dela aurreko urtearekin alderatuta, atzerritarren ehunekoa % 40 baitzen.

Aplikaturako neurri motari dagokionez, alde nabarmenak daude:

- Atzerritarrei ezarritako 213 neurrietatik, % 73 ingurune irekiko neurriak dira, eta % 27 hezkuntza-zentrokoak.
- Aitzitik, EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoei ezarritako 433 neurrietatik, % 83 ingurune irekikoak dira, eta soilik % 17 hezkuntza-zentrokoak.

Datu horien arabera, atzerritarrek neurri guztien herena hartzen badute ere, askatasunaz gabetzeko edo murrizketa handiagoko neurriak (hezkuntza-zentroan betetzeko neurriak, esaterako) jasotzeko aukera gehiago dituzte. Izan ere, lurralde nazionalen jaiotako pertsonetik alde argia da: pertsona horiei askoz neurri hezitzaile eta ez hain murriztaile gehiago ezartzen zaizkie.

Oro har, «Beste batzuk» kategoria kontuan hartu gabe, delitu bakar batean nagusitzen dira atzerritarrek bertakoen aurrean: indarkeriaz edo larderiaren egindako lapurretak; izan ere, delitu horri dagokionez, ezarritako neurri guztien % 55 barne hartzen dute. Datu horrek aurreko urteetan ikusitako joera berresten du, non delitu-mota hori ohikoagoa den atzerritarren artean.

Gainerako delitu-egitate ohikoenetan, atzerritarren proportzioa nabarmen txikiagoa da. Nabarmentzekoa da, bereziki, familia-indarkeriaren kasua. Bertan, neurrien % 9 bakarrik ezarri zaie atzerritarrei eta, aztertutako bost delituen artean, ehuneko hori da txikiena. Horrek berresten du EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako biztanleek delitu hori egiteko aukera gehiago dituztela.

Laburbilduz, 2024ko datuek eutsi egiten diote neurrien aplikazioan dagoen arrakalari (adingabearen jatorriaren arabera). Hezkuntza-zentroko neurrien ehuneko handiagoa aplikatzen zaizkie atzerritarrei, eta presentzia handiagoa dute delitu-egitate jakin batzuetan (bereziki, zuzeneko indarkeria dakartenetan: larderiaren egindako lapurreta, esaterako).

| DELITU-EGI-TATEAK ETA NEURRI IR-MOAK | Jaioterrria | Bar-ner. | AE | Hezkuntza-zentroa | | Zaintz. Ask. | GL | GHZ | EZJ | Tratamendu anbulu. | Ingurune irekia | | GUZTIRA | |
|--------------------------------------|--|-----------|-----------|-------------------|-------------|--------------|-----------|-----------|-----------|--------------------|-----------------|-------------|------------|-------------|
| | | | | | % | | | | | | | % | | % |
| Indark. edo lar-der. lapurreta. | EAE + Beste au-tonomia-erkide-go batzuk | 13 | 1 | 14 | % 18 | 42 | 4 | 9 | 7 | 0 | 62 | % 82 | 76 | % 55 |
| | Atzerria | 23 | 2 | 25 | % 41 | 25 | 6 | 1 | 3 | 1 | 36 | % 59 | 61 | % 45 |
| Lesioak | EAE + Beste au-tonomia-erkide-go batzuk | 3 | 0 | 3 | % 3 | 42 | 23 | 20 | 2 | 0 | 87 | % 97 | 90 | % 76 |
| | Atzerria | 5 | 0 | 5 | % 17 | 16 | 4 | 3 | 1 | 0 | 24 | % 83 | 29 | % 24 |
| Ebasketa | EAE + Beste au-tonomia-erkide-go batzuk | 1 | 3 | 4 | % 13 | 9 | 6 | 8 | 4 | 0 | 27 | % 87 | 31 | % 54 |
| | Atzerria | 1 | 1 | 2 | % 8 | 11 | 5 | 3 | 5 | 0 | 24 | % 92 | 26 | % 46 |
| Familia-indar-keria | EAE + Beste au-tonomia-erkide-go batzuk | 14 | 2 | 16 | % 40 | 20 | 1 | 0 | 3 | 0 | 24 | % 60 | 40 | % 91 |
| | Atzerria | 1 | 0 | 1 | % 25 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 3 | % 75 | 4 | % 9 |
| Mehatxuak | EAE + Beste au-tonomia-erkide-go batzuk | 1 | 0 | 1 | % 6 | 11 | 1 | 4 | 1 | 0 | 17 | % 94 | 18 | % 46 |
| | Atzerria | 1 | 1 | 2 | % 10 | 8 | 5 | 6 | 0 | 0 | 19 | % 90 | 21 | % 54 |
| Beste batzuk | EAE + Beste au-tonomia-erkide-go batzuk | 28 | 6 | 34 | % 19 | 81 | 32 | 18 | 11 | 2 | 144 | % 81 | 178 | % 71 |
| | Atzerria | 17 | 5 | 22 | % 31 | 28 | 11 | 8 | 3 | 0 | 50 | % 69 | 72 | % 29 |
| GUZTIRA | EAE + Beste autonomia-erkidego batzuk | 60 | 12 | 72 | % 17 | 205 | 67 | 59 | 28 | 2 | 361 | % 83 | 433 | % 67 |
| | Atzerria | 48 | 9 | 57 | % 27 | 91 | 31 | 21 | 12 | 1 | 156 | % 73 | 213 | % 33 |

19. Taula. Neurri irmoen eskaeren banaketa 2024an, «Delitu-egitateak» eta «Jaioterrria» aldagaien arabera¹¹. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza

¹¹ Jaioterrri aitortua duten pertsonen aplikatutako neurrien datuak aurkezten dira.

3.6 Neurrien aldaketak

Jarraian aurkezten dugun taulak iaz neurri judizialetan izandako aldaketak barne hartzen ditu. Aldaketa horiek Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege penalaren hainbat artikulutan jasota daude. Zehazki, 13., 15., 40., 50. eta 51. artikuluez ari gara, eta haien deskribapena erantsitako txostenetan jasota dago.

Aldaketa horiek aztertzea garrantzitsua da Justizia Zuzendaritzaren kudeaketarako; izan ere, jarraian ikusiko dugun bezala, neska-mutilei ingurune irekian betetzeko ezarritako neurri askok aldaketak izaten dituzte, bai epaian bertan, bai epaia betetzen den bitartean, azkenean zentroan betetzeko neurriak izaten amaitzen dutelarik. Beste batzuk, aldiz, hezkuntza-zentroan betetzekoak ziren, eta azkenean ingurune irekian betetzeko neurriak izaten amaitzen dute.

100 aldatu dira guztira (2023an baino nabarmen gutxiago: 141 neurri); horietatik % 65 ingurune irekikoak dira, eta % 35 hezkuntza-zentrokoak. Guzrat, oso berri ona da hezkuntza-zentroko 35 neurri horietatik 29 ingurune irekiko neurri bihurtzea.

| | Eraginik gabe | Beste batzuk | Ingurune irekia | Hezkuntza-zentroa | GUZTIRA |
|-------------------|---------------|--------------|-----------------|-------------------|-------------|
| Ingurune irekia | 4 | 1 | 16 | 44 | 65 (% 65) |
| Hezkuntza-zentroa | --- | --- | 29 | 6 | 35 (% 35) |
| GUZTIRA | 4 (% 4) | 1 (% 1) | 45 (% 45) | 50 (% 50) | 100 (% 100) |

20. Taula. Neurrien aldaketak 2024an. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

3.7 Adingabe arau-hausleak

3.7.1 Delitu-jarduera

Justizia Zuzendaritzan 2024. urtean jasotako jarduera aztertzean, halaber, nabarmentzekoa da guztizko kopuru hau: hezkuntza-neurriak ezarri zitzaizkien neska-mutilena. Orain arte, EAEko adingabeen epaitegiek edo beste autonomia-erkidego batzuek egindako neurrien eskariari buruzko informazioa aurkeztu da, baina atal honetan lehen aipatutako adingabeen epaitegietako neurrien eskariaren xede diren arau-hausle adingabeei buruzko datuak ematen dira.

Taulan ikusten den bezala, guztira 760 neurri ezarri zaizkie (irmoak eta kautelazkoak) 553 neska-mutili.

| <i>NEURRI MOTA ETA KOPURUA</i> | <i>PERTSONA EZBERDINEN KOPURUA</i> | <i>APLIKATUTAKO NEURRIEN KOPURUA</i> |
|--------------------------------|------------------------------------|--------------------------------------|
| IRMOAK bakarrik | 473 (% 86) | 621 (% 82) |
| KAUTELAZKOAK bakarrik | 45 (% 8) | 46 (% 6) |
| IRMOAK + KAUTELAZKOAK | 35 (% 6) | 93 (% 12) |
| GUZTIRA | 553 (% 100) | 760 (% 100) |

21. Taula. 2024. urtean neurriak jasotzeko eskaeraren xede diren adingabeen kopurua. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

Aipatu 553 pertsonen artean, 473i (% 86) neurri irmoak bakarrik ezarri zaizkie (guztira, 621 neurri irmo), 45 pertsonari (% 8) kautela-neurriak bakarrik ezarri zaizkie (guztira, 46 kautela-neurri) eta, azkenik, 35 adingaberi (guztira, % 6) 93 neurri irmo nahiz kautelazkoak jarri zaizkie (neurrien guztizkoaren % 12).

Beraz, datu orokorrak kontuan hartuta (neurri irmoak zein kautelazkoak), adingabe bakoitzak 1,37 neurri izan ditu (2022an izan genuen datu bera). Datu hori egia bada ere, are zehatzagoa izan dadin, alde batera utziko ditugu soilik kautela-neurriak jaso dituzten adingabeak. Hau da, neurri irmoak baino ez dituzten neska-mutilak soilik hartuko dira kontuan. Horrela, 2024. urtean, adingabe bakoitzari ezarritako neurrien proportzioa 1,4 da (aurreko urtean 1,6koa izan zen).

| NEURRI MOTA ETA KOPURUA | PERTSONA EZBERDINEN KOPURUA | APLIKATUTAKO NEURRIEN KOPURUA |
|--------------------------------|------------------------------------|--------------------------------------|
| Neurri 1 | 376 (% 68) | 376 (% 50) |
| 2 neurri | 70 (% 13) | 140 (% 18) |
| 3 neurri | 14 (% 3) | 42 (% 5) |
| 4 neurri edo gehiago | 13 (% 3) | 63 (% 8) |
| Irmoak bakarrik | 473 | 621 |
| 2 neurri | 22 (% 4) | 44 (% 6) |
| 3 neurri | 6 (% 1) | 18 (% 2) |
| 4 neurri edo gehiago | 7 (% 1) | 31 (% 5) |
| Irmoak eta kautelazkoak | 35 | 93 |
| Neurri 1 | 44 (% 7) | 44 (% 6) |
| 2 neurri | 1 (% ---) | 2 (% ---) |
| Kautelazkoak bakarrik | 45 | 46 |
| GUZTIRA | 553 (% 100) | 760 (% 100) |

22. Taula. 2024. urtean neurriak jasotzeko eskaeraren xede diren adingabeen kopurua. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

Adingabe bakoitzak metatzen duen neurri kopuruari dagokionez, 22. taulan ikus dezakegu pertsonen % 75ek hezkuntza-neurri irmo edo kautelazko neurri bakarria dutela (420 adingabe ezberdin), eta neurri guztien % 56 barne hartzen dutela. Beste 37 subjektuk (% 17) bi hezkuntza-neurri jaso dituzte, guztira 186 neurri, guztizkoaren % 24. Hiru hezkuntza-neurri jaso dituzten adingabeen kopurua % 4ra jaitsi da (20 neska-mutil), 60 neurri metatuz (% 7). Eta, azkenik, lau neurri edo gehiago jaso dituzten adingabeak adingabe guztien % 4 dira. Hala ere, nabarmendu behar da 20 pertsona horiek 94 neurri metatzen dituztela; hots, 2024an eskatutako neurri guztien % 13 (datu hori 2023ko % 18a baino nabarmen txikiagoa da).

3.7.2 Arrisku-faktoreak eta babesa¹²

Adingabe arau-hausleen profil psikosozialari buruz jarraian aipatuko ditugun datuak 2024. urtean talde psikosozialek egindako aholkularitza-txosten psikosozialetatik lortutako informazioari dagozkio.


Garrantzitsua da zehaztea 2024an neurri bat baino gehiago izan duten neska-mutilei aurreko txostenak eguneratu dizkietela talde psikosozialek. Hori dela eta, aurreko urtean neurri bat eskatu zaien adingabeen profil psikosoziala lortze aldera, eskuragarri dauden txostenetako bat baino ez da hautatu (zehazki, aztertutako pertsonari buruzko informazio gehien zuena eta berriena zena). Era berean, kontuan izan behar da kautela-neurriak zituzten adingabeei, memoria hau prestatzeko unean, ez zitzaiela oraindik txosten psikosozialik egin. Aurrekoaz gain, txosten psikosozialik ez duten hainbat pertsona aurkitu ditugu. Beraz, atal hau egiteko, 2024an neurri bat ezarri zaien neska-mutilei buruzko 329 txosten psikosozialak ditugu lagin.

Txosten psikosozial guztietan modu homogeneoenean ahalik eta gehien errepikatzen diren aldagaiak eta horiek jasotzeko modua hautatu dira azterketa egiteko. Honako hauek dira:

- Sexua
- Jaioterria
- Adopzioa
- Bizikidetzeta-nukleoa
- Familiari buruzko datuak: familiako *per capita* errenta, etxean bizi diren pertsonen kopurua, osasuna (fisikoa eta mentala), krimen-kopurua eta toxikomania, etxeko indarkeria eta gizarte-zerbitzuekiko harremana.
- Adingabearen datuak: esku-hartzeari dagokionez duen jarrera, oldarkortasuna, 1., 2. eta 3. mailako lotura-haustekak (gurasoen heriotza, gurasoen arretariketza eta banantze/dibortzio gatatzak, hurrenez hurren), gurasoen gainbegiratze-maila, substantzia toxikoen kontsumoa, osasun mentala, eskolatzea (lortutako eskola-maila, uneko ikasketak eta errendimendua), berdinen taldea, bikotea eta aisialdi antolatua.


¹² Nabarmendu nahi dugu puntu honetako informazioa 329 txosten psikosozialetatik lortu dela soilik.

Sexuari dagokionez, 257 gizonezkoak dira (% 78), eta 72 neskak (% 22). Hurrengo taulan ikus daitekeenez, gehienak EAEn jaiotakoak dira (197 pertsona), eta beste 28 pertsonarekin batera –beste autonomia-erkidego batzuetatik etorritakoak–, Espainian jaiotako neska-mutilak % 68 dira. Beraz, % 32 atzerritarak dira, eta Magrebeko herrialdetik etorritakoak dira ohikoenak (% 15). Gainerako taldeen ehunekoak % 6tik beherakoak dira.




1. grafikoa. 2024. urtean neurriak jasotzeko eskaeraren xede diren adingabeen jaioterria. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

Bizikidetzeta-nukleoa aztertuz gero, esan dugun bezala, talde psiko-sozialarekin elkarrizketa egin zen unean lortu zen informazioa eta, hori kontuan hartuta, % 60 jatorrizko familiarekin bizi dira, eta % 21 babes-zentro batean bizi dira. Era berean, 16 adingabe Gazte Justiziako zentro batean zeuden (guztien % 5). Gainerako aukerek (familia zabala, harrera-familia, etab.) oso ehuneko txikiak izan dituzte.



2. grafikoa. 2024. urtean neurriak jasotzeko eskaeraren xede diren adingabeen bizikidetzanukleoa. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

Neska-mutilen familien maila sozioekonomikoari buruzko aldagaiak aztertuz gero, hasieran ikusten dugunez kasuen % 50ean ez dakigu aldagai horri buruzko informaziorik, ez delako informazio hori jasotzen talde psikozialen txostenetan. Bestalde, mutil eta neska horien % 23aren senideek lan egonkorra dute, batzuetan laguntzaren bat behar duten arren. % 12k lan prekarioak dituzten gurasoak edo erreferenteak dituzte, eta -horiek ere- laguntza ekonomikoak behar dituzte zenbaitetan.



3. grafikoa. 2024. urtean neurriak jasotzeko eskaeraren xede diren adingabeen familiaren lan-egonkortasuna. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

Etxebizitza berean bizi diren pertsonen kopuruari dagokionez, espedienteen % 32an informazio hori falta da berriz ere. Lau edo bost pertsonako bizikidetzak nukleoak guztikoaren % 27 dira, eta hiru pertsonak edo gutxiagok osatutako nukleoak % 26. Askoz urriagoak dira, berriz, bost pertsonatik gorako familiak (% 15).

Familiari buruzko beste aldagai batzuk aztertuz gero, ikus daiteke familien % 10ek espezialista batek diagnostikatutako arazo fisikoren bat duela, eta beste % 10ek, berriz, osasun mentalekin lotutako arazoren bat (guztira, 10 pertsonak soilik dituzte bai osasun mentaleko, bai osasun fisikoko arazoak familian). Familia-kriminalitateari dagokionez, halakotzat hartuta espetxeratzea eragin duen deliturik egin izana, adibidez, aldagai hori familien % 11an ikusten da. Halaber, familia guztien % 11an toxikomania-arazoak daude.


Azkenik, alderdi azpimarragarriak dira gurasoen aldetik etxean indarkeria egotea, nahiz eta, neska-mutilen % 12k soilik ikusi dituen indarkeriazko gertakariak noizean behin edo modu kroniko edo larrian. Adingabeek edo haien zuzeneko familiek gizarte-zerbitzuen gainean egiten duten erabilera, bestalde, % 61ekoa da.

Aztertutako esku-hartze judizial eta hezitzailearen aurrean neska-mutilek izan duten jarrerari dagokionez, ikusten dugu % 72k jarrera positiboa izan dutela hasiera batean, % 7k ez dutela esku hartzeko premiarik ikusten, eta kasuen % 21ean ez dela informazio hori agertzen.

Nesken eta mutilen eboluzio-etapa honetan aztertzeko aldagai garrantzitsu bat inpulsibiltatea da. Hala, aztertutako adingabeen % 54k arriskuak hartzeko edo inpulsibiltateko jokabide garrantzitsuak dituzte, araurik eta kontrolrik ezari berezko zaizkionak; % 3k halako portaera txikiak edo garrantzi txikikoak ditu, adinari dagozkionak (edo baliteke txostenak arlo horretako arazo-eza berariaz adieraztea). Gainerako % 43ren txostenek ez dute informazio hori barne hartzen.


Loturak hausteari buruzko kontuei dagokienez, lehenik eta behin ikusten da aztertutako adingabeen % 9k ama, aita edo bi gurasoak galdu dituztela. Era berean, adierazi behar dugu ebaluatutako pertsonen % 47 modu gatazkatsuan banandutako edo dibortziatutako bikoteen seme-alabak direla.

Interesgarriak dira, halaber, familia-arretarik ezari buruzko datuak; izan ere, neska-mutilen % 46ak amaren (% 2), aitaren (% 15) edo bi gurasoen (% 29) arreta falta handia jasan dute edo pairatzen du. Adingabeen % 22ak ez du gabeziarik alde horretatik, argi eta garbi, eta gainerako % 32an ez da informazio hori txosten psikosozialean jasotzen.




4. grafikoa. 2024. urtean neurriak jasotzeko eskaeraren xede diren adingabeek gurasoen arretarik ez jasotzea. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

Arestian azaldutako guztiaz gainera, gurasoen kontrola funtsezko elementua da aztergai diren neska-mutilen artean. Eskura dugun informazioaren arabera, % 16k argi eta garbi ez dute gurasoen inolako kontrolik, eta % 29k ere ez dute kontrol zorrotzik, baina gurasoek, gutxienez, kontrolatzeko ahalegin batzuk egiten dituzte. Adingabeen % 20k gurasoen kontrola dute, baina koherentziarik gabeko kontrola (hau da, gurasoek ez dute irizpide bera, edo gertaera berean erantzun desberdinak ematen dituzte), eta % 22k gurasoen kontrola dute, ohikotasunez eta etengabe.



5. grafikoa. 2024. urtean neurriak jasotzeko eskaeraren xede diren adingabeen gaineko gurasoen kontrola. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.


Beste aldagai batzuk ere aztertu ditugu, neska-mutilek kontsumitzen dituzten toxikoen aldagaia, adibidez; kasu horretan, % 54k diote ohikotasunez kontsumitzen dituztela toxikoak, kontsumo horrek eragin desberdina badu ere haien eguneroko bizitzan. Beheko grafikoa ikus daiteke zein diren kontsumo-motak. Dena den, kasuen % 27an ez daukagu horri buruzko informaziorik.



6. grafikoa. 2024. urtean neurriak jasotzeko eskaeraren xede diren adingabeek egindako toxikoen kontsumoa. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.


Era berean, garrantzitsua da jakitea adingabeen artean osasun mentalarik lotutako arazorik dagoen: % 30ek dute espezialista batek behar bezala egindako diagnostikoren bat, edo bizitzako unerik batean osasun mentaleko espezialista batengana jo dute (askotariko patologiekin).

Eskola-mailari dagokionez, datu hauek ikusten dira taulan: adingabeen % 40k lehen hezkuntza gainditu dute (131 pertsonak); % 22k, DBHko 1. Zikloa (72 pertsonak), eta % 10ek, DBHko 2. Zikloa (32 pertsonak). % 6 neska eta mutil analfabetoak dira, edo irakurtzen eta idazten baino ez dakite. Nabarmentzekoa da, alabaina, ez dagoela adingabeen % 22ari buruzko informaziorik.



7. grafikoa. 2024. urtean neurriak jasotzeko eskaeraren xede diren adingabeen ikasketamaila. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

Txosten psikosoziala egiteko unean garatzen ari ziren ikasketak sakonago aztertuz gero, ikusten dugu % 44 enplegurako prestakuntza (LHI, HLPP, etab.), erdi-mailako edo goi-mailako prestakuntza-moduluak (% 6) eta DBH edo Batxilergoa (% 28, 91 pertsona) egiten ari zirela. Hala ere, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, datu kezkarri bat daukagu: % 22 (71 pertsona) eskolatu gabe daude. Badaude 21 pertsona (% 6) zeinei buruz ez dugun ezein datu.




8. grafikoa. 2024. urtean neurriak jasotzeko eskaeraren xede diren adingabeak egiten ari ziren ikasketak. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

Era berean, prestakuntza motaren bat egiten ari badira, ikasgelako errendimendua nolakoa den jakitea garrantzitsua da (ikastetxera joaten den, arauak betetzen dituen, jokabide okerrik duen, etab.). Hala, ikusten dugu gehienek (% 59k) errendimendu txarra dutela, eta, horien atzetik, errendimendu 'ez ona, ez txarra' dutenak (% 23) daude. Soilik % 8k du ikasgelan ontzat jo genezakeen portaera. Gainontzeko % 10ari dagokionez, ez dugu informaziorik.

Amaitzeko, beste aldagai sozialago batzuk aztertu dira, hala nola berdinen taldea edo aisialdi antolatua. Bada, berdinen taldeari dagokionez arrisku-aldagaiak aurkitu dira; izan ere, % 51ek (167 pertsonak) adierazi dute gizarte-arriskuko egoeran dauden lagunak dituztela, eta % 64k (208 pertsonak) adierazi dute ez dutela egiten aisialdi antolatuko inolako jarduerarik (kirolen bat edo jolas- eta musika-jardueraren bat...).



9. grafikoa. 2024. urtean neurriak jasotzeko eskaeraren xede diren adingabeen berdinkideen taldea. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.



10. grafikoa. 2024. urtean neurriak jasotzeko eskaeraren xede diren adingabeen aisialdi-jarduera antolatuak. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

3.8 Neurriak betearazteko baliabideak: Egoitza-zerbitzuak eta ingurune irekiko zerbitzuak

Adingabeen jurisdikzioan ezarritako neurriak betearazteko, edozein nerabek edo gaztek gure erkidegoan eskura dituen baliabide ia guztiak erabiltzen dira. Hezkuntza-sareko zerbitzuez ari gara, baita osasun-zerbitzuez, enplegura jotzeko zerbitzuez, enplegu-zerbitzuez, prestakuntza, aisia eta denbora libreko zerbitzuez, gizarte-prestazioez, haurrak babesteko zerbitzu eta programez, eta abarrez ere.

Zerbitzu komun horiez gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan badaude neurri judizialak betetzeko berariazko baliabide batzuk. Horiek, eskemati-koki, bi kategoriatan azpisailka ditzakegu:

- A. Egoitza-zerbitzuak = Gazte Justiziako hezkuntza-zentroen sarea.
- B. Ingurune irekiko zerbitzuak.

3.8.1 Egoitza-zerbitzuak

Gazte Justiziako hezkuntza-zentroen sarean zentro espezifikoak daude, langile espezializatuekin, eta horien xedea arau-hausle adingabeak hartzea da, honelako neurri irmo edo kautelazkoren bat bete behar dutenean: barneratzea –nolanahikoa dela ere erregimena–, asteburuko egonaldiak, eta, salbuespen modura, hezkuntza-taldearekiko bizikidetza.

| MAILA | ZENTROA | PLAZA LIBREAK |
|----------------|---|---------------|
| I | IBAIONDO Hezkuntza-zentroa (mutilak) | 39 |
| II | URIBARRI Hezkuntza-zentroa (mutilak) | 16 |
| | wURGOZO Hezkuntza-zentroa (mutilak) | 10 |
| | ANDOIU/GORBEIA Hezkuntza-zentroa (neskak) | 16 |
| | TXEMA FÍNEZ Hezkuntza-zentroa, Aramaioko egoitza (mutilak) | 12 |
| | ARRATIA Hezkuntza-zentroa (mistoa) | 20 |
| III | BILBOKO Autonomia-egoitza (mistoa) | 18 |
| | TXEMA FÍNEZ Hezkuntza-zentroa, Prim eta Bremen egoitzak (mutilak) | |
| GUZTIRA | | 131 |

23. Taula. Gazte Justiziako hezkuntza-zentroyen sarea 2024an. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

Indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, ikastetxe horiek hiru mailatan sailkatzen dira: I, II eta III. Modu sinplifikatuan esan dezakegu I. mailako zentroak erantzukizun eta kudeaketa publikoko zentroak direla eta, horietan, eskubideen neurri murriztaileenak eta iraupen luzeena dutenak betetzen direla. 2024an, 39 plaza egon dira erabilgarri. II. mailakoak erantzukizun eta kudeaketa publikokoak dira, irabazi-asmorik gabeko erakunde batekin itunduta daudenak, tamaina txikikoak: erregimen erdi-irekiko eta irekiko neurriak betetzen dira, edo erregimen itxian, laburrak badira. 2024an, 86 plaza egon dira erabilgarri maila horretan. III. mailakoak, «autonomia-egoitzak», oso tamaina txikikoak dira, gehienez 6 plazakoak, erkidegoan erabat integratuta, erregimen irekiko edo erdi-irekiko azken barneratze-faseak betetzeko zentroetan.

| ZENTROA | Zuzendaritza/ Administrazioa | Koordinat- zaileak eta teknikariak | Langile hezitzai- leak | Maisu- maistrak | Zerbitzuak |
|--------------------------------|---------------------------------|--|------------------------------|--------------------|------------|
| IBAIONDO HZ | 5 | 9 | 50 | 13 | 1 |
| URIBARRI HZ | 1 | 4 | 20 | 4 | 2 |
| URGOZO HZ | 1 | 2 | 15 | 3 | --- |
| ANDOIU/GORBEIA HZ | 1 | 3 | 20 | 3 | 2 |
| TXEMA FÍNEZ | 1 | 4 | 31 | 3 | 1 |
| ARRATIA | 1 | 4 | 23 | 3 | 2 |
| BILBOKO AUTONO- MIA EGOITZA | --- | 1 | 7 | --- | --- |
| GUZTIRA: | 10 | 27 | 166 | 29 | 8 |

24. Taula. Gazte Justiziako hezkuntza-zentrozen plantillak 2024an. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

Ikus daitekeenez, gazte-justiziako hezkuntza-zentroetan lan egiten duten pertsona gehienak hezitzaileak dira. Pertsona horiek zentroko mutilekin eta neskekin bizi dira modu iraunkorrean (txandaka), «eguneroko bizitzarako» espazio esaten zaion eremuan. 2024an, 166 langile izan dira. Bigarren taldea (kopuruari dagokionez [29 pertsona]) «ikasgela» eta «tailerrez» arduratzen diren pertsonak osatzen dute, alegia, zentroko prestakuntzaz arduratzen direnak. Hirugarren taldekoek koordinazio-funtzioak betetzen dituzte: eguneroko bizitzako taldeak eta esku-hartze soziofamiliarreko eta psikologikoko arloetan esku hartzen duten teknikariak koordinatzen dituzte (27 pertsona). Azkenik, zerbitzuetako eta administrazioako eginkizunak betetzen dituztenak daude (18 pertsona).

Zuzenean diharduten langileez gainera, I. eta II. mailako zentro batzuek segurtasuneko langileak dituzte, hezkuntza-taldeei laguntza emateko.

3.8.2 Ingurune irekiko zerbitzuak

Zerbitzu horien barruan, eguneko zentroak daude (eguneko zentroetara joateko neurriak betetzeko) eta ingurune irekiko taldeak (neurri hauek

betearazteko: zaintzapeko askatasunak, gizarte- eta hezkuntza-zereginak, gizartearentzako lanak, tratamendu ambulatorioak eta asteburuak etxean ematea).

EAEko eguneko zentroen sareak 48 plaza izan zituen 2024an: 22 plaza Bizkaiko «Zabalik» eguneko zentroan, 18 Gipuzkoako «Ireki» eguneko zentroan eta, azkenik, 8 plaza «Uribarri» eguneko zentroan (Araba).

| ZERBITZUAK | Artatutako biztanleria (mistoa) |
|-------------------------------------|---------------------------------|
| «ZABALIK» EGUNEKO ZENTROA (BIZKAIA) | 22 |
| «IREKI» EGUNEKO ZENTROA (GIPUZKOA) | 18 |
| «URIBARRI» EGUNEKO ZENTROA (ARABA) | 8 |
| Plazak, guztira | 48 |

25. Taula. 2024an eguneko zentroetan artatutako biztanleak. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

Plantillari dagokionez, hurrengo taulan ikusten da Bizkaian 8 profesional daudela guztira, eta Gipuzkoan, berriz, beste 6. «Uribarri» eguneko zentroko langileak ez dira taulan ageri, Uribarri hezkuntza-zentroko langile gisa zenbatu baitira.

| PLANTILLA | Zerbitzuko arduraduna | Tailerreko maisu-maistrak | Langile hezitzaileak | GUZTIRA |
|--------------------------------|-----------------------|---------------------------|----------------------|---------|
| ZABALIK (BIZKAIA) | 1 | 2 | 5 | 8 |
| IREKI (GIPUZKOA) | 1 | 1 | 4 | 6 |
| URIBARRI (ARABA) ¹³ | --- | --- | --- | --- |

26. Taula. Eguneko zentroetako plantilla 2024an. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

Ingurune irekiko zerbitzuei dagokienez, hezitzaileak eta zerbitzu-arduradunek osatzen dituzte. Pertsona horiek arduratzen dira zuzenean ingurune irekiko neurriak betearazteaz, neska-mutil bakoitzarekiko eta haren inguruarekiko hezkuntza-harreman pertsonalaren bidez. Hitzartutakoari jarraituz, irabazi-asmorik gabeko elkarteek kudeatzen dituzte zerbitzu horiek. 16 pertsona ditugu Bizkaian, 8 Gipuzkoan eta, azkenik, 5 Araban.

13 «Uribarri» eguneko zentroko langileak Uribarri hezkuntza-zentroko langile gisa zenbatu dira.

| ZERBITZUAK | Plantilla |
|----------------------------|-----------|
| BIZKAIKO INGURUNE IREKIA | 16 |
| GIPUZKOAKO INGURUNE IREKIA | 8 |
| ARABAKO INGURUNE IREKIA | 5 |

27. Taula. Ingurune irekiko zerbitzuetako plantilla 2024an. Egilea: CRIM-AP Ikerketa Taldea (Euskal Herriko Unibertsitatea). Iturria: Justiziako Zuzendaritza.

3.9 Ondorioak

3.9.1 Neurri irmoak eta kautelazkoak: alderdi orokorrak

- 760 neurri betearazteko eskatu da (iaz 876 neurri izan ziren). Horietatik 84 kautelazkoak izan dira (% 11), eta 676 (% 89) neurri irmoak.
- % 78 ingurune irekian betetzeko neurriak dira (590 neurri), eta % 22, berriz, hezkuntza-zentroan betetzekoak (170).

2024an, neurrien eskaria **murriztu** egin da (2023an 876, eta 2024an 760).

Hala eta guztiz ere, kautela-neurrien eskaerak **gora egin du**: % 8 2023an (73 neurri), % 11 2024an (84 neurri).

Halaber, ingurune irekian betetzeko neurrien eskaerak **gora egin du** ere (% 69 2023an, eta % 78 2024an).

3.9.2 Kautela-neurriak

- 73 kautela-neurri betearazteko eskatu da. Horietatik 43 zaintzapeko askatasunekoak izan dira (% 51), 30 barneratzeko neurriak (% 46) eta 2 hezkuntza-taldearekiko bizikidetzakoak (% 3).
- Gehienak gizonezkoen ezarri zaizkie (71 neurri, % 85), eta 13 neurri emakumezkoen (% 15).
- Kautela-neurriak ezarri zaizkien pertsonen nazionalitateari dagokionez, neurrien % 64 EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako pertsonen ezarri zitzaizkien, eta % 36 atzerrian jaiotakoen.

Kautela-neurriek pixka bat **egin dute gora**: 73 neurri 2023an (% 8) vs. 84 neurri 2024an (% 11). Zaintzapeko askatasunak eta barneratzeak gora egin dute, eta hezkuntza-taldearekiko bizikidetzak, berriz, zertxobait behera.

Emakumezkoei ezarritako kautela-neurrien ehunekoa nabarmen jaitsi da: % 23tik % 15era.

Kautela-neurriak ezartzen zaizkien pertsonen nazionalitateari dagokionez, atzerrian jaiotako pertsonen aplikatutako neurriak % 30etik (2023an) % 36ra (2024an) igo dira.

3.9.3 Neurri irmoak

- Ezarri diren 676 neurrien artean, zaintzapeko askatasunaren neurria izan da gehien ezarri dena: 311 neurri (% 57); barneratzeak: 108 neurri (% 16), gizarte- eta hezkuntza-zereginak: 106 neurri (% 16) eta gizartearentzako lanak: 86 neurri (% 13).
- Gehienak ingurune irekian betetzekoak dira (547 neurri, % 81), eta 129, berriz, hezkuntza-zentroan (% 19).
- 129 neurri (% 19) emakumezkoei ezarri zaizkie, eta gainerako 547 neurriak (% 81), berriz, gizonezkoei.
- Neurri irmoak aplikatu zaizkien pertsonen nazionalitatea kontuan hartuta, % 67 EAEn edo estatuko beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoak izan dira, eta % 33 atzerrian.
- Lau delitu-egitate ohikoenak hauek izan dira: indarkeriaz eta larderiez egindako lapurretak (143, % 21), ingurune irekiko neurriak –erantzun judizial nagusi gisa– jaso dituztenak (% 71), eta lesioak (143, beste % 21), batez ere ingurune irekiko neurriak jaso dituztenak (% 94). Bigarrenik, ebasketa egon da (58, % 9), eta kasu horretan ingurune irekian betetzeko neurriak ezarri dira gehienbat (% 88). Jarraian, familia-indarkeria (45, % 7) dago, berriz ere ingurune irekian betetzeko neurriak gailentzen direlarik (% 62). Gainerako delitu-egitateak gutzitzkoaren % 6 edo gutxiago dira.
- Bizkaian ezarri dira neurri gehien (% 43); gero, Donostian (% 28); eta azkenik, Vitoria-Gasteizen (% 23). Era berean, neurrien % 6 beste autonomia-erkidego batzuetako epaitegiek ezarri dituzte. Bilbo 1 eta Donostiako adingabeen epaitegiek ezarri dituzte hezkuntza-zentroan betetzeko neurri gehien (% 39 eta % 30, hurrenez hurren), eta, horien atzetik, Bilbo 2 epaitegiak (% 22). Vitoria-Gasteizek askoz gutxiago ezarri ditu (% 5).

- 100 neurri aldatu dira eta, horietatik, % 65 ingurune irekian betetze-koak dira eta % 35 hezkuntza-zentrokoak. Ingurune irekiko neurrien artean, % 68 aldatu eta hezkuntza-zentroko neurri izatera igaro dira; % 25, berriz, ingurune irekiko beste neurri ezberdinak izatera igaro dira. Gainerako aukeren ehunekoak oso txikiak dira. Hezkuntza-zentroko neurriei dagokienez, gehienek «ingurune irekia» izaera bereganatu dute (% 83).

Neurri irmoen eskaerak **behera egin du** (803 2023an vs. 676 2024an). Gora egin dute, berriz, zaintzapeko askatasunak (% 40tik % 57ra), gizarte- eta hezkuntza-zereginak (% 13tik % 16ra) eta gizartearentzako lanak (% 11tik % 13ra); barneratzeak murriztu egin dira (% 24tik % 16ra).

Ingurune irekian betetzeko neurriek **gora egin dute** (% 69 2023an vs. % 81 2024an).

Emakumezkoei ezarritako neurrien eskaerak **gora egin du** (% 18 2023an vs. % 19 2024an).

Behera egin du atzerrian jaiotako pertsonen ezarritako neurrien eskariak (% 40 2023an vs. % 33 2024an).

2023arekin alderatuta, lau delitu-egitate ohikoenak bere horretan **mantentzen** dira (indarkeria edo larderia bidezko lapurreta, lesioak, ebasketak eta familia-indarkeria). 2024an, indarkeriazko edo larderiazko lapurretei ingurune irekian betetzeko neurri judizial gehiago ezarri zaizkie zigor-erantzun gisa (% 51 2023an eta % 71 2024an).

Neurri irmoen eskaerak **gora egin du** Donostiako (% 24tik % 28ra) eta Gasteizko (% 19tik % 23ra) epaitegietan.

Hezkuntza-zentroan betetzeko neurri irmoen eskaerak **gora egin du** Donostiako Epaitegian (% 24tik % 30era). Gainerako epaitegietan, behera egin dute.

Neurri irmoak aldatzeko eskaerak **behera egin du**.

3.9.4 Adingabe arau-hausleak

- 760 neurri irmo eta kautelazko neurri ezarri zaizkie 553 neska-mutili (iaz 601 neska-mutil izan ziren), hau da, batez beste 1,4 neurri ezarri da adingabe bakoitzeko.

- Pertsona gehienek (% 75) hezkuntza-neurri bakarra dute (420 pertsona), neurri guztien % 56. Beste 37 pertsonek bi hezkuntza-neurri dituzte (% 17); guztira, 186 neurri dira, guztizkoaren % 24. Hiru hezkuntza-neurri jaso dituzten adingabeen kopurua % 4ra jaitsi da (20 neska-mutil, 60 neurri metatuz (% 7)).
- Lau neurri edo gehiago jaso dituzten adingabeak adingabe guztien % 4 dira (20 pertsona). Hala ere, nabarmendu behar da neurri guztietatik 94 barne hartzen dituztela, hau da, neurri guztien % 13.
- Adingabe arau-hausleen profil psikosozialari dagokionez, honako ezaugarri hauek nabarmentzen dira: gehienak mutilak izan dira (% 78, nesken % 22aren aurrean), EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaioak (% 68), jatorrizko familian bizi dira (% 62), gizarte-zerbitzuekin harremana dute edo izan dute (% 61), inpultsibitate-portaera nabarmenak dituzte (% 54; aurreko urtean, berriz, % 44), eta toxikoak ohikotasunez kontsumitu dituzte, arazoak izateraino batzuetan (% 54; aurreko urtean, berriz, % 68). Halaber, ebaluatutako pertsonen % 22 eskolatu gabe daude (aurreko urtean, berriz, % 36). Adingabeen % 51ek arrisku sozialeko portaerak dituzten berdinkideen taldea dute (aurreko urtean, berriz, % 47), eta, azkenik,
- % 63k ez dute aisialdi egituratuko inolako jarduerarik egiten (aurreko urtean, berriz, % 60). Gurasoen ohiko ikuskapen jarraituari dagokionez, iazko ehunekoa ia berdin mantentzen da (% 21 vs. gaur egungo % 22).

Murriztu egin da neurri irmoak edo kautelazkoak jaso dituzten pertsonen kopurua (572 2023an eta 553 2024an).

Adingabe bakoitzeko neurrien batezbestekoa **murriztu** egin da (1,5 2023an eta 1,4 2024an).

Hezkuntza-neurri irmo edo kautelazko bakarra jaso duten pertsonen kopuruak **gora egin du** (% 71 2023an eta % 75 2024an).

Behera egin du lau neurri irmo edo kautelazko neurri baino gehiago jaso dituzten pertsonen kopuruak (31 pertsona 2023an eta 20 pertsona 2024an), eta behera egin du, halaber, metatzen dituzten neurrien kopuruak (162 neurri 2023an, % 18; 94 neurri 2024an, % 13).

lazko neska-mutilen ehunekoa **mantendu** da, iazko «atzerrian jaiotako pertsonen» ehunekoa **mantendu** da, eta jatorrizko familiarekin bizi diren pertsonen kopuruak **gora egin du** (% 58tik % 62ra).

Behera egin dute Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin harremana duten pertsonen kopuruak (% 69tik % 61era), toxikoak kontsumitzen dituzten pertsonen kopuruak (% 68tik % 54ra) eta eskolatu gabe dauden pertsonen kopuruak (% 36tik % 22ra).

Handitu egin dira arrisku sozialean dagoen berdinen taldea duten pertsonak (% 47tik % 51ra) eta aisialdi egituratuko jarduerarik egiten ez dutenak (% 60tik % 63ra).

Gurasoen ohiko ikuskapen jarraituari dagokionez, iazko ehunekoa ia berdin **mantentzen da** (% 21 vs. gaur egungo % 22).

3.9.5 Neurriak betearazteko baliabideak: Hezkuntza-zentroak

— Hezkuntza-zentroetan, 131 plaza egon ziren. Zentro horietan, 240 langile daude guztira.

3.9.6 Neurriak betearazteko baliabideak: Ingurune irekiko zerbitzuak

— Eguneko zentroetan, 48 plaza egon ziren.

— Eguneko zentroetako eta ingurune irekiko taldeetako langileak 43 dira guztira (nahiz eta Uribarri eguneko zentroko langileak Uribarri hezkuntza-zentrokoak diren).

4 EAE-KO GAZTE JUSTIZIAREN JOERAK

Gazte Justiziaren V. Planaren (2020-2024) eta Gazte Justiziaren Zerbitzuaren 2025eko Memoriaren ondorio nagusiak aztertuta, EAEko gazte-justizian ikusten diren joera nagusiak honako hauek dira:

Ta: Neurriak betetzeko eskaria pixka bat igo da.

Tb: Arau-hausleen kopuruak gora egin du pixka bat.

Tc: Gorakada txikia izan da neska arau-hausleen kopuruan.

Td: Atzerrian jaiotako pertsonak neurriak jasotzeko eskaera askoren xede izan dira.

Te: Esku hartzeko ikuspegia finkatu da ingurune irekiko neurrietan.

Tf: Kontziliazio- eta konponketa-prozesuak indartu egin dira.

Tg: Berrerortze-tasaren beherakada jarraitua antzematen da.

Th: Azaleratzen ari diren edo errotuta dauden erronkak:

- Th1: Teknologia berriak zeharkako faktorea dira gazteen delitu-profila eraldatzerako orduan.
- Th2: Osasun mentaleko arazoak dituzten gazteen prebalentzia esanguratsua eta gero eta handiagoa antzematen da.
- Th3: Arrisku psikosozialeko hainbat aldagai dago.
- Th4: Hezkuntza-zentroetan betetzeko neurrien iraupen luzea eta oso luzea.
- Th5: Sexu-askatasunarekin lotutako delituak ageri dira, eta gazteak barne hartzen dituzte.
- Th6: Pertsona batzuek ez dituzte gizarteratzeko benetako aukerarik esku-hartze judiziala amaitzen denean.
- Th7: Behin baino gehiagotan berrerori diren pertsonen taldearekin lortutako emaitzak nabarmen mugatuta daude.
- Th8: Profesionalen etengabeko prestakuntzaren beharra.



5 JAURLARITZAREN PROGRAMAN SARTZEA

Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak– Gobernu Programaren ildo nagusiak ezarri ondoren, Administrazio Orokorren sailen egitura eta sailen arteko eskumen-esleipena egokitzen ditu. Hala, jada desagertu den Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren eskumenak Justizia eta Giza Eskubideen Sailari eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailari egokituko zaizkie.

Bestalde, Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 326/2024 Dekretuak, honako hau aipatzen du Justizia Zuzendaritzaren eginkizunei dagokienez: «gazte-justiziaren arloko jarduketak diseinatu, planifikatu, antolatu eta ebaluatzea, Jaurlaritzako sailen lana koordinatuz».

XIII. Legegintzaldirako (2024-2028) Gobernu Programa horretan –non Gazte Justiziaren VI. Plana kokatzen den–, Eusko Jaurlaritzak bost jarduera-ardatzetan egituratzen ditu bere gobernu-konpromiso programatikoak, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta, bereziki, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarrirako 17+1 Helburuekin. Hauexek dira ardatz horiek:

- I. ardatza. Pertsonak, erdian
- II. ardatza. Hazkundera eta ongizatean oinarritutako ereduak
- III. ardatza. Eraldaketa energetikoa eta jasangarritasuna
- IV. ardatza. Bizikidetzak, memoria eta giza eskubideak
- V. ardatza. Autogobernu gehiago eta hobea

Izan ere, IV. ardatzak hartzen du barne VI. Gazte Justizia Plana (2025-2029); zehazki, **29. jarduketa-arloan** («Justizia eta espetxe-erakundeak»). Plana JUSTIZIA UNIBERTSALA ETA IRISGARRIA BULTZATZEA izeneko 140. konpromisoaren 3. ekimenean jasota dago: «Justizia irisgarria bultzatzea, ho-

rren laguntza behar duten haur eta nerabeen esku jartzea, eta Gazte Justiziarren VI. Plana abian jartzea».

Hala ere, badira adingabeekin eta gazteekin lotura zuzena duten beste ardatz batzuen ekintzak, arau-hausleak diren alde batera utzita. Taula honetan, konpromiso programatikoak ageri dira, sailen arabera ordenatuta:

| SAILA | ZK. | KONPROMISOA |
|--|-----|--|
| Justizia eta Giza Eskubideak | 117 | Justizia irisgarria bultzatzea, horren laguntza behar duten haur eta nerabeen esku jartzea, eta Gazte Justiziaren VI. Plana abian jartzea |
| | 141 | Birgizarteratzea sustatzen duten espetxe modernoak sustatzea (genero-ikuspegia eta adingabeen behar espezifikoak kontuan hartuta) |
| Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa | 12 | Kalteberatasun bereziko eta babesgabetasuneko egoerei arreta ematea (haurren eta nerabeen pobrezia barne) |
| | 51 | Kalitatezko enplegua sustatzea eta gazteen proiektu ekintzaileak laguntzea |
| | 54 | Familiak laguntzea eta jaiotza-tasa sustatzea (zuzeneko laguntzak seme-alaba bakoitzeko, kontziliazioa, seme-alaba adingabeak zaintzea) |
| | 56 | Migratzaileak eta errefuxiatuak gizarteratzen laguntzea (familia-laguntzako sarerik ez duten gazte etorkinak helduarora igarotzeko laguntza-programak) |
| Hezkuntza | 22 | Kalitatezko hezkuntza-sistema inklusiboa eta bidezkoa sustatzea, gure ikasleen eskola-arrakasta bermatze aldera |
| | 23 | Ekitatearen eta gizarte-kohesioaren aldeko apustu argia egitea (hezkuntza inklusiboa, haurtzaroa, eskolatze goiztiarra) |
| | 24 | Euskal hezkuntza inklusiboaren eredu propioa (ikasleen laguntza-premia espezifikoer arreta ematea, goi-mailako gaitasunak, arreta goiztiarra) |
| | 29 | Goi Errendimenduko Prestakuntza Lanbide Heziketan |
| | 31 | Garapen jasangarri eta inklusiboaren helburuekin lerrokatutako lanbide-heziketa (behartsuei edo premia bereziak dituztenei laguntzea) |
| Osasuna | 2 | Osasuna sustatzea (haurrak eta nerabeak barne) |
| | 9 | Euskal Herriko gizartean eragin handia duten patologiei buruzko jarduera espezifikoak zabaltzea (osasun mentala eta emozionala lehenetsiz, batez ere gazteen artean) |
| Etxebizitza eta Hiri Agenda | 18 | Gazteei bizitza-proiektu berri bati ekiten laguntzea |
| Sailartekoa | 52 | Gazteei bizitza-proiektu berri bati ekiten laguntzea (etxebizitza, laguntzak, alokairua, emantzipazioa) |
| | 53 | Gazteen lehentasunak artatuko dituen gazte-politika integrala garatzea |
| | 127 | Emakumeen kontrako indarkeria desagerraraztea haurtzaroan eta gaztaroan |
| | 129 | Balio-aldaketa eta emakumeen eta neskatuen ahalduntzea bultzatzea |

28. Taula. Konpromisoak, sailen arabera. Egilea: Justiziako Zuzendaritza.

Konpromiso horietatik abiatuta planteatutako helburuak VI. Plan honen zeharkako izaeraren erakusgarri dira. Azaldutako guztiaz gain, plan asko martxan daude, baita gazte-justiziaren jarduketa-arloekin lotuta laster onartuko diren beste batzuk ere. Horien printzipioak eta jarduketa-lerroak VI. Plan honetako beste atal batzuetan deskribatuta daude. Era berean, plan horiek zeharkako gaiak hartu behar dituzte kontuan, hala nola genero-ikuspegi, hizkuntza-normalizazioa, klima-aldaketa, politiken koherentzia, osasuna, enplegua eta hirugarren sektorea. XIII. legegintzaldiko plan estrategiko hauek aipatu behar dira, besteak beste:

- Justiziaren Plan Estrategikoa (2022-2028)
- EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa (2023-2026)
- Aniztasuna lantzeko plan estrategikoa, eskola inklusiboaren esparruan
- Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra
- Osasun Plana 2030
- V. Gazte Plana
- Demografiaren Erronka eta Immigrazioa lantzeko Euskal Estrategia 2030
- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna lortzeko Estrategia 2030
- Kulturaren Plan Estrategikoa 2028

6 GAZTE JUSTIZIAREN PRINTZIBIOAK EUSKALAUTONOMIA ERKIDEGOAN

Gazte-justiziaren jarduera-eremua oso mugatuta dagoen pertsona-talde bati zuzentzen zaio. Talde horren ezaugarriak honako hauek dira:

- Zigor-legeekin bat, delitua dakarren jokabideren bat izan dute, eta hamalau urtetik gora eta hemezortzitik behera dituzte.
- Fiskaltzekin eta adingabeen epaitegiekin harremanetan egon dira, aurretik jarritako salaketa baten bidez.
- Zehapen- eta hezkuntza-erantzunen bat jaso dute.

Zehaztu behar da zigor-arloan tipifikatuta dauden egitateengatik esku hartzen hasten dela gazte-justizia, pertsona adingabea denean, baina esku-hartzea adin-nagusitasuna beteta ere luza daiteke. Une horretatik aurrera, neurria betetzen jarraituko da epaian –Gazte Justiziaren sistemari– proposatutako helburuak lortu arte, betiere pertsonen portaerak helburu horiei erantzuten badie.

Garatu beharreko jarduketara ororen erreferentziazko abiapuntua honako hau da: pertsona horiek nerabeak dira.

Eremu guztietan –psikologikoa, afektiboa, emozionala, soziala, familiarra, prestakuntzako, biologikoa etab.– aldaketez beteriko bizitzako aldi batean daude, eta helduen munduarekiko konfrontazioa eta bere izaera banezinak dira. Errealitate horretatik abiatuta baino ez du zentzua gazte-justiziaren esku-hartzeak eta, beraz, erantzunek pertsonalizatuak izan behar dute, eta helduentzat aurreikusitakoez bestelakoak. Sormena, dinamismoa, eraldaketa pertsonala eta soziala, segurtasuna, aniztasuna, berdintasuna eta antzeko printzipioak dira ereduaren DNA.

Jarraian garatzen diren printzipioak azken urteotan pilatutako esperientziaren emaitza dira: arrakasta izan duten beste eredu batzuk konparatu dira, indarreko ordenamendu juridikoa eta nazioartean egindako ikerketak aztertu dira, eta, batez ere, kontuan hartu da Justiziarekin harremanak dituzten nerabeekiko eguneroko kontaktua.

Haur eta Nerabeen 2/2024 Legeak haurren eta nerabeen osasunerako, hezkuntzarako, ongizate materialerako eta gizarteratzeko kaltegarriak diren mota guztietako egoerak prebenitzearen, detektatzearen eta artatzearen garrantzia azpimarratzen du. Euskal administrazio publiko guztiek gauzatu behar dituzte egoera horiek saihesteko prebentzio-, detekzio- eta arreta-ekintzak, bakoitzak bere eskumenen eremuan, eta haur eta gazte guztiei zuzenduta. Ekintza horiek gizarte-, eskola-, osasun-, familia- eta komunitate-babesa oinarritzat hartuta gauzatzeak adingabeen eskubideak bermatzen ditu, eta, hortaz, prebentzio-estrategia egokia da. Era berean, adingabe arau-hausleek jaso ohi dituzten *ad hoc* esku-hartzeen ondoriozko estigmatizazioa saihesten du.

Planaren ildo estrategikoak egiaztatutako hezkuntza- eta gizarte-paradigmetan oinarritzen dira, eta esku-hartzearen erdigunean jartzen da nerabea. Ereduak izaera eklektikoa du, eta jokabidean eragina duten harreman-faktoreen gaineko jardun integrala sustatzen du (harreman-sistemako edozein aldaketak sistemaren osotasunean eragiten duela kontuan hartuta).

Printzipioak abiapuntu dinamiko gisa aurkezten dira, globalitatera eta etorkizunean agertzen doazen egoera eta eskari berrietara zabalik, gazte-justiziaren eragileen jarduketak arautu behar dituzten printzipio gisa: epaiketak, fiskaltzak, talde psikosozialak, neurriak betearazteko erakunde publikoa eta 14 eta 18 urte bitarteko nerabeei arreta emateko beste erakunde batzuk; izan ere, gaur egun, 70 000 baino pixka bat gehiago dira.

6.1 Legezkotasunaren printzipioa

Adingabeen zigor-erantzukizuna arautzen duen 5/2000 Lege Organikoak zigor-prozedura 'formalki penala baina benetan hezigarria eta zehatzailea' ezartzen du.

5/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzen duen 1774/2004 Errege Dekretuak ezartzen duenez, neurriak betearazten diren bitartean, adingabeek eta gazteek Konstituzioak, Espainiak berretsitako nazioarteko itunek eta indarrean dagoen gainerako ordenamendu juridikoak guztiei aitortzen dizkieten eskubideak eta askatasunak izango dituzte (legeak, kondenatuen epaiaren edukiak edo ezarritako neurriak berariaz mugatutakoak izan ezik).

Hala ere, lege horrek nolabaiteko malgutasuna eskaintzen duten elementuak txertatzen ditu, neurriak adingabearen inguruabar pertsonaletara egokitze aldera. Legezkotasunaren printzipioa hainbat alderditan adierazten da:

- Aurretiazko tipifikazioa: Zigor Kodean delitutzat jotzen diren egitateak zigortzeko bakarrik ezar daitezke neurriak.
- Proporzionaltasuna: Neurriak proporzionalak izan behar dira egitatearen larritasunarekiko eta adingabearen inguruabarrekiko.
- Kontrol judiziala: Epaille espezializatu batek ezarri eta gainbegiratu behar du neurri oro.
- Defentsarako eskubidea: Adingabeak abokatu baten laguntza izateko eta erabaki judizialak aurkaratzeko eskubidea du.

6.2 Zigor-erantzukizuneko eredia: izaera zehatzaile-hezitzailea

Espainiako Estatuan, Konstituzio Auzitegiaren 1991ko otsailaren 14ko epaiaz geroztik (epai horretan Adingabeen Tutoretza Auzitegien jarduna arautzen zuten lege-manu batzuk "konstituzioaren aurkakotzat" jo zituen) eta Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 1989ko azaroaren 20ko Konbentzioa indarrean sartu zenetik (1990eko abenduaren 31ko BOE) hasi zen funtsean aldatzen Gazte Justiziaren kontratua.

Aldaketa horrek herritar-agiriaren izaera hartu zuen, Adingabeen Zigor Erantzukizunari buruzko 5/2000 Lege Organikoa indarrean jarri zenean.

Legez ezarritako eta gaur egun indarrean dagoen eredia erantzukizuneko eredia da, hau da, botere judizialak, zigor-lege baten aplikazioaren ondorioz, zigor-arloan legez kanpoko den egitate bat egiteagatik arduradun gisa hartuko ditu 14 urtetik gorako eta 18 urtetik beherako gazteak. Adingabeak askatasunez jokatzeko eta, beraz, beren ekintzez arduratzeko gaitasuna duten pertsona gisa onartzen dira. Onarpen horrek hezkuntza-erantzun baten katalizatzaile gisa dihardu, eta nerabea aldaketako hezkuntza-prozesuaren arduraduntzat hartzen du.

5/2000 Lege Organikoaren Arrazoiaren Azalpenak «adingabe arau-hausleei aplikatzekoak diren neurrien eta prozeduraren izaera formalki penala eta materialki zehatzaile eta hezitzailea» deklaratu du.

Aintzat hartzen da «zehapen-xedapenaren izaera, adingabeko arau-hausleekiko benetako erantzukizun juridikoaren eskakizuna garatzen baitu, Zigor Kodeak eta gainerako lege penal bereziek delitu gisa tipifikaturiko ekintzak egiteari berariaz badagokio ere. Adingabe arau-hauslearentzako erreakzio juridikoa hezkuntzako esku-hartzea izatea nahi denez, intentsitate berezikoa betiere, helduen zigor-zuzenbidearen beste helburu batzuk espre-suki baztertuz, hala nola ekintzaren eta zehapenaren edo arauaren hartzai-leengan sorturiko larderiaren arteko heinekotasuna, adingabekoarentzako kaltegarria izan daitekeen guztia saihestu nahi da, biktimak edo beste partikular batzuk akzioa baliatzea, esaterako».

Hortaz, adingabeen zigor-zuzenbidea lehenik eta behin Zigor Zuzenbidea da, hau da, Kode Zibilak delitu gisa kalifikatutako egitate baten aurreko erantzun zehatzailea ezartzen duten arauen multzoa da. Hala ere, ez dugu nahi zehapenak soilik eduki ordainarazlea izatea, eta ez du eduki hori soilik izan behar, baizik eta zehapenaren aplikazioak eta betearazpenak adingabearen interesa bete behar dute, inplikaturiko besteen gaintetik, eta helburu hezitzailea izan behar dute.

Hezkuntza-erantzun egokia emateko bilaketak orientazioa zehazten du neurriak betearaztean. Orientazio hori gorabehera, argi izan behar dugu gazte-justiziak duen funtzioa ez dela adingabeak heztea edo babestea, ezin dugu «zigor-kodearen edo erreformaren bidez babestu», ezin dugu aprobe-txatu zigor-zehapen baten ezarpena hezkuntza-, babes-, gizarteratze-lana egiteko, xede horietarako instantzia komunek egin ez dutelako.

Era berean, proportzionaltasun-printzipioa nabaria da; izan ere, adingabearekin hezkuntzako esku-hartzea egiteko beharrak ezin du gainditu egindako egitatearen larritasunaren arabera adingabeari legez ezarri behar zaion eskubide-muga. 5/2000 Lege Organikoak, 7.3. artikuluan adingabearen bi egoera ezartzen ditu. Horiek ezin dute justifikatu egitatearen larritasunak ahalbidetzen duenaren gaintetik adingabearen eskubideak murrizten dituen neurri bat ezartzea; norberaren egoerek, familiakoek, gizartekoek, pres-takuntzakoek eta abarrek aukera ematen dute neurriaren izaera eta iraupe-na hezkuntza-interesera egokitu, finkatu eta modulatzeko, baina pertsona-ren proportzionaltasunerako eskubide konstituzionala ezin da urratu.

6.3 Sistema berme-emailea: eskubide guztiak zorrotz baino zorrotzago errespetatzea

Otsailaren 15eko 2/2024 Legeak, Haur eta Nerabeei buruzkoak, EAEko administrazio publikoek haurren eta nerabeen sustapenari, prebentzioari, arretari eta babesari dagokienez dituzten eskumenak baliatzeko lehen printzipiotzat honako hau ezartzen du: «eskubideak bermatzea, jarduketan ardatz nagusi gisa; horren arabera, adingabeak eskubideen subjektu gisa aitortu eta haien eskubide indibidual eta kolektiboak errespetatu, sustatu eta defendatuko dira. Hala, jarduketa eta erabaki guztien erdigunean kokatu behar dira, bai familia-ingurunean eta gainerako bizitza- eta harreman-testuinguruetan, bai eskuratzen dituzten zerbitzuen eta esku hartzen duten prozeduren esparruan».

5/2000 Lege Organikoaren Arrazoiaren Azalpenak, era berean, honako hau ezartzen du: «eskubide konstituzionalen eta adingabearen intereseko eskaera berezien errespetutik ondorioztatzen diren berme guztien esanbidezko errekonozimendua». Eta «Konstituzio Auzitegiak aitortutako orientazioekin bat –aurretik aipatu dira–, uzi prozesalera egokitutako berme-sistema ezartzen da, zehapena inozentzia-presuntzioaren ondoren ezarriko dela ziurtatuz, baina prozesu honen buru den adingabearen interesaren hezkuntza- eta balioespen-irizpideak oztopatu gabe, aldi berean gutxieneko esku-hartzearen printzipioaren erabilera malgua eginez».

Nazioarteko eta estatuko legediak adierazitakoaren arabera, adingabeen interesak beste edozeinen gainetik egon behar du. Araudi autonomikoari dagokionez, Haur eta Nerabeei buruzko 2/2024 Legeak adingabearen interes gorena gailentzeko eskubidea ezartzen du, eta «funtsezkotzat jo behar da adingabeari dagozkion ekintza eta erabaki guztietan, bai eremu publikoan, bai pribatuan». Interes horrek lehentasuna izango du, halaber, «adingabeei eragiten dieten legeak eta gainerako arauak egitean eta aplikatzean, bai eta haien gurasoek, legezko ordezkariak edo pertsona harreragile eta zaintzaileak eta erakunde publiko zein pribatuak, auzitegiak edo organo legegileak hartzen dituzten neurrietan ere; hala, adingabeen interes gorena lehenetsiko da, egon daitekeen beste edozein interes legitimoren gainetik».

«Adingabe»aren izaerak ez du inolaz ere justifikatzen estatuaren aurrean pertsona gisa dauzkan eskubideak gutxitzerik edo murrizterik – polizia-jarduketaren, fiskalaren, judizialaren edo neurriak betearazteko jarduketaren aurrean–. Izan ere, 2/2024 Legeak aurrerapausoa eman du bizitzaren hainbat eremu pribatu zein publikotan (hezkuntza, osasuna, familia, gizartea, arlo judiziala, etab.) adingabeen eskubideak aitortzeko, sustatzeko, prebenitzeko, lehengoratzeko edo itzultzeko bidean.

6.4 Erantzukizuna hartzea

5/2000 Lege Organikoak garrantzi berezia ematen dio kalteak konpontzeari eta delitugilearen eta biktimaren arteko adiskidetzeari; izan ere, mekanismo horiek –gutxieneko esku-hartzearen printzipioaren pean eta bitartekaritza teknikoarekin– espediente bat irekitzea, largestea edo ezarritako neurri bat amaitzea saihestu dezakete. Mekanismo horiek hezkuntzan eta gizarteratzean oinarritutako irizpideak lehenesten dituzte, eta ez prebentzio orokorrean oinarritutako gizarte-defentsa.

Bi prozesuek adingabe arau-hauslearen eta biktimaren arteko akordioa dakarte. Adiskidetze-prozesuan, adingabeak damua adierazi eta barkamena eskatu behar du, eta biktimak, berriz, onartu eta barkatu egin behar du. Konponketari dagokionez, damua adierazteaz gain, adingabeak kalteak konpontzeko konpromisoa bete behar du, dela komunitate-lanen bidez, dela biktimari zuzendutako ekintzen bidez (haren beharretara egokituta).

Bestalde, Haur eta Nerabeei buruzko otsailaren 15eko 2/2024 Legeak ezartzen duenez (administrazio-jarduketa arautzen duten printzipioen esparruan), zigor-legearekin gatazkan dauden adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta eman ahal izateko eta aplikatutako neurri judizialak betearazteko, komunitateak parte hartu beharko du, bereziki ingurune irekiko neurrien eta justizia errestitutiboko prozesuen esparruan (bitartekaritza-lanak, taldeak edo konferentzia errestitutiboak, esaterako).

Ildo horretan, kontuan izan behar da Gazte Justiziaren esku-hartzea honako ideia honetan oinarritzen dela: «zigor-erantzukizuna garapen pertsonalerako funtsezko baldintza da». Adingabe arau-hausleak eskubideen eta erantzukizunen arteko lotura zatiezina ulertu behar du.

Biktimaren bizipenari aurre egitea teknika oso erabilgarri eta funtsezkoa da, kalte-konponketa –zuzena edo sinbolikoa– eta gatazkaren konponbide baketsua sustatuz. Adiskidetze-jarrerak eta eragindako kaltearen aitorpenak presente egon behar dute neurriak betearazteko prozesu osoan.

Ereduaren xedea protagonismoa bere tokira bueltatzea da, eskubide-defentsaren eta norberaren betebeharrak betetzearen arteko oreka bermatuz. Hala, printzipio horiek bereizezinak dira hezteko jardueretan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Errestauratiboari buruzko Etor-kizuneko Legea onartzeari esker, horrelako prozesuak garatu eta bultzatu ahal izango dira Gazte Justiziaren eremuan. Lege horren aurreproiektua jendaurrean jarri da, gizarte-eragile interesdunek ahalik eta gehien parte har dezaten bermatzeko.

6.5 Behar den gutxieneko esku-hartzea

Haur eta Nerabeei buruzko 2/2024 Legearen printzipio gidari horiek jasotzen dute, halaber, neurri judizialen betearazpena justiziaren eremutik beharrezkoa den gutxieneko esku-hartzearen printzipioan oinarrituta egin behar dela, eta horrek esan nahi du jarduketak beste arreta-sistema batzuekin koordinatu behar direla –bereziki hezkuntza-sistemarekin eta haurrak eta nerabeak babesteko sistemarekin–, eta, hala badagokio, eremu horietatik esku hartzea eska dezaketen kasuak sistema horietara bideratu behar direla.

5/2000 Lege Organikoaren Arrazoiaren Azalpenak honako hau egitea ezartzen du: «gutxieneko esku-hartzearen irizpidea malgutasunez erabiltzea, hau da, honakoei gailentasuna ematea: prozedura ez zabaltzeko edo prozedurari uko egiteko aukerei, kalte-ordain aurreratuari edo arau-hauslearen eta biktimaren arteko adiskidetzeari, eta ezarritako neurria baldintzapean eteteari edo betetzen ari den bitartean neurri hori ordezkatzeari».

Gutxieneko esku-hartzearen printzipioa Zuzenbide Penalaren aplikazioan oinarritzen da; hala, Zuzenbide hori azken baliabide gisa soilik erabili behar da, eta eraginkortasun bereko beste biderik ez dagoenean bakarrik. Berehalakotasunaren, gutxieneko esku-hartzearen, adingabearen interesaren eta justizia berrezartzailearen printzipioak eta bestelako printzipioak aplikatzeak, zalantzarik gabe, nagusiki Fiskaltzaren esku geratzen

diren esku-hartze ez zehatzaileen aukera indartzea dakar, lantalde teknikoen laguntzarekin.

Apustu horrek ikuspegi-aldaketa bat dakar operadore juridikoengan, bai eta esku hartzen duten profesionalen kualifikazio berezia ere, biktimarekiko kontziliazioa etengabeko erreferentzia izanez. Hala, ukatu egiten da bide penala erabiltzea laguntza-helburuetarako, praktika horrek nerabe kalteberak kriminalizatuko baititu eta gizarte-erantzukizuna kenduko baitie.

5/2000 Lege Organikoak esku hartzeko mugak eta arauak ezartzen ditu, eta gazte-justiziaren esku lagatzen du arau-hauste penalari lotutako erantzun hezitzailea; babes eta arreta integrala, berriz, hezkuntza-, gizarte- eta osasun-sistemei dagokie. Normalizazio-printzipio horri esker, adingabeen jurisdikzioa ez da babes-instantzia hertsatzaile bihurtuko, eta berretsi egiten du gazteen erantzukizun penalaren eremuan duen zeregin eksklusiboa.

6.6 Goi-mailako interesa: banakako egokitzapena

5/2000 Lege Organikoak honako hau deklaratu du: «Adingabekoen Zuzenbide penalean adingabekoaren interesaren nagusitasuna lehenetsi behar dela, prozeduraren eta hartzen diren neurrien elementu erabakigarri gisa. Interes hau zientzia ez-juridikoen arloko profesional espezializatuen ekipoek irizpide teknikoak eta ez-formalistak erabiliz balioetsi behar dute, betiere neurrien aplikazioa honako printzipio berme-emaila orokor eztabaida ezinetara egokitzea alde batera utzi gabe: akusazio-printzipioa, defentsa-printzipioa edo erugabetasun-presuntzioaren printzipioa».

Helduen jurisdikzioan ez bezala, 5/2000 Lege Organikoaren 7.3. artikulua, neurria eta horren iraupena hautatzeko, arau-haustearen larritasuna kontuan hartzera behartzen du, eta baita adingabearen zirkunstantzia pertsonalak eta hezkuntza-interesak aintzat hartzera ere. Era berean, betearazpenean zehar etengabeko arreta eman behar zaio adingabe bakoitzaren interes indibidualari, arau-haustearen erantzun gisa adingabearen hezkuntza integralerako egokiena dena kontuan hartuta.

Erabakiak hartzerakoan interesak haztatu behar direnean, adingabearen interesak bestelako baldintzen gaintetik egon behar duela ezartzen da araubidez.

Atal honetan, egiteko garrantzitsua dute talde teknikoen eta neurriak betearazteko eskumena duen erakunde publikoaren txostenek; horietan, adingabearen egoera pertsonalak, familiakoak, gizartekoak eta abar zehazten dira erabakiak hartzeko une bakoitzean.

Beraz, gazte-neurriak aplikatu eta betearazteko bide bakarra neska eta mutil bakoitzaren errealitaterako erantzun egokiena bilatzea eta horren bilakaerari egokitzea da, gaztearen testuingurua kontuan hartuta.

6.7 Erkidegoaren ikuspegiaren normalizazioa

Haur eta Nerabeen 2/2024 Legeak ezartzen du -bere printzipio nagusietan- komunitateak esku hartu behar duela arau-hausle adingabeei aplikatutako neurri judizialak betearazteko; bereziki, ingurune irekiko neurrien eta justizia berrezartzaileko prozesuen esparruan (bitartekaritza-lanak, taldeak edo konferentzia errestauratiboak, esaterako).

Adingabe batek neurri judizial bat bete behar izateak ez du urruntze sozialik edo erkidegoaren eta herritar garen aldetik aitortuta ditugun zerbitzuen urruntzerik ekarri behar. Horretarako, edozein neurri betearaztean, neurriak betearazteko eskumena duen erakunde publikoaren eta hezkuntzako, osasuneko, etxebizitzako, enpleguko, prestakuntzako, gizarteratzeko, eta abarreko erakundeen artean, lankidetzat trinkoa eta eraginkorra behar da.

Ahal den guztietan, neurriak betearazteko herritar guztiei zuzendutako baliabide orokorrak izango dira (baliabide bereziak sortzeak salbuespena ekarriko du). Komunitatearekin eta komunitatearentzat lan egitea gazte-justiziaren oinarritzko euskarrietako bat da, garapen pertsonala ingurunearekin hertsiki lotuta baitago. Horregatik, esku-hartzeek pertsona horien ingurua eraldatzera bideratu behar dituzte ahaleginak. Helburu hori bilatzen ez duten gainerako ereduak ez dira inoiz eredu ontzat hartuko.

Aukera-berdintasunen printzipiotik arrakastarako eskubidera igarotzeak lanean eta, argiago, defizit edo gabezia gehiagoko testuinguruetan dauden erreferentziak dauzkaten pertsonekin lanean jarraitu beharreko ildoak markatzen du. Itxaropenak murrizteko eta ingurune defizitarioetara egokitze joera saihestu behar da, horrek desberdintasunak betikotzen baititu. Gizartearen tolerantzia handitzean, alarma sozialak itzaltzean, partaidetza aktiboa eragitean, aniztasunari eta aniztasunaren berdintasunari

baliozkotasuna ematean, arrakasta hobetzeko aukerak sortzean, eta abarretan lan egitea ezinbestekoa da solidaritatea eta gatazken konponketa baketsua lortzeko.

7 ILDO ESTRATEGIKOAK

Plan berri honen ildo estrategikoek azken planak –aztertu ondoren– bideratutako ibilbidetik jarraitzen dute. Horregatik, EAEko lege-testuinguruak eskaintzen duen ikuspegi berritik, eta Haur eta Nerabeei buruzko 2/2024 Legea indarrean jarri zenetik urtebete igaro ondoren, ildoetako batzuk jarraitzeko eta hobetzeko asmo argiarekin hartzen eta birformulatzen dira.

7.1 Prebentzioa eta gutxieneko esku-hartzea

Lege horrek ezartzen duenez, oro har, zigor-legea urratzen duten jokabideak saihesteko jarduerak haurren eta nerabeen ongizatea sustatzeko ekintzaren eta prebentzio-ekintzaren esparruan egin behar dira; hori guztiori osasunerako, hezkuntzarako, ongizate materialerako, gizarteratzeko, indarkeria-egoeretarako eta haurren eta nerabeen babeserako kaltegarriak diren egoerei dagokienez. Jarduera inklusibo horiek guztiei esker, behar bezala gizarteratuko dira, eta, beraz, gazte-justiziaren sistemak ez du esku hartu behar izango.

Hala ere, arauak aurreikusi behar du zer egoeratan prebentzio-politikak ez diren nahikoak adingabe guztiak gizarteratzeko eta integratzeko, eta bereziki familiaren bidez, erkidegoaren, berdinen taldearen, lanbidea gauzatzeko edo lan-merkatuarentzat gaikuntza-eskolaren bidez (gehienek ustez laneratzea bide pribilegiatua da arazoak/gatazka judizialak dituzten neska-mutilek integrazioko eta egonkortasuneko espazioetara jo dezaten). Aurreko planak deskribatzen zuen bezala, «prebentziorik onena da adingabeei jaiotzen direnetik 18 urte betetzen dituzten arte dagozkien eskubideak betetzea...».

Adingabe guztiekin lan egiten duten erakundeak dira modurik erabakigarrienean eragingo duten adingabeengan eta uneren batean gazte-justiziarekin harremanetan jartzen direnen arazoetan. Eskolaren, familiaren, osasunaren, erakunde-babesaren eta abarren eremuan lan egiten dutenez ari gara.

Gazte-justizian lan egiten duten erakundeetatik sistema orokorretan esku hartzea lehenetsi beharko da, eta salbuespen-egoeretan bakarrik jo es-

ku-hartze espezializatura eta bereizira, betiere kontuan hartuta herritar guztientzako sistema komunitara "itzultzeko" helburua.

7.2 Politika publikoen integrazioa

Haur eta Nerabeei buruzko 2/2024 Legeak ezartzen duenez, EAEko administrazio publikoek –besteak beste– «komunitatearen kapital sozialaren garrantziaren printzipiora egokituko dute beren jarduketa, sustapeneko, prebentzioko, arretako eta babeseko eragile diren aldetik; izan ere, printzipio horren arabera, 'haztea eta heztea' erantzukizun kolektibotzat jotzen da, eta komunitateko gizarte-eragile guztiek aktiboki parte hartu behar dute bertan, familiez eta hezkuntza-eragileez gain».

Gazte Justiziaren eremuan, lege horrek –arau-hausleei aplikatutako neurri judizialak betearazteko orduan– ikuspegi komunitarioaren garrantzia ere nabarmentzen du. Komunitate-egiturek eragile ofizial eta ez-ofizialez osatutako laguntza-sare bat eskaintzen dute, zeinari esker, aipatutako neurriak betearaztea eta ondorengo gizarteratze-prozesuak gauzatzea erraztuko diren.

Beste erakunde batzuen ekintzak –hala nola foru-aldundiak eta udalak– eta Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekiko lankidetzak funtsezko elementuak dira Plan hau eta Gazte Justiziaren eguneroko jarduerak iraunkorrak izan daitezen. Haurren eta nerabeen babesa, laguntza eta familiako esku-hartzea, oinarrizko gizarte-zerbitzuak, larrialdikoak eta gizarte-larrialdietakoak, emakumea... egunero alternatibak eraikitzeko zerbitzu eta programetako batzuk dira.

7.3 Esku-hartzearen kalitatea: ebidentzian oinarritutako tratamendu-programak

Azken urteotan, adingabeentzako tratamendu-programen eraginkortasunari buruzko ebidentzia enpirikoa erakutsi duten zenbait azterketa egin dira. Horrela, erkidego zientifikoa berrerortzearen murrizketan arrakasta-tasarik onenak dauzkaten programak identifikatzen hasi da, Redondoren (2011) hitzetan, honako ezaugarriak dituztenak:

- Oinarri teoriko sendoa, jokabide antisozialaren azalpenaren eta prebentzioa erraztu ditzaketen eragile garrantzitsuen berri ematen

duena. Oinarri sendoa da tratamenduaren programetarako ikaskuntza sozialaren teoria, jokabidearen modelatuaren, jokabidearen indartzearen, komunitate sozialean bertan subjektuekin lan egitearen eta zigor-estrategien saihestearen dimentsioetan.

- Programa egituratuak eta gidatuak.
- Subjektuak trebetasunetan eta ohitura prosozialetan trebatzen dituztenak.
- Pentsamenduaren, jokabideen eta balioen berregituraketa sustatzen dutenak.
- Aplikazio-denbora gehiago, intentsitate handiagoa eta integritate gehiago tratamenduaren osagai guztien administrazioan.
- Alderdi anitzeko programak, alegia, arrisku dinamikoko alderdietara –bai banakakoak, bai familiakoak eta sozialak– bideratutako teknikak eta osagaiak dituztenak.
- Subjektuen arrisku-mailak ebaluatzen dituztenak eta, maila horien arabera, tratamenduen intentsitatea modulatzeko dutenak (arriskurik handienak programa intentsiboagoak inplikatu behar ditu).
- Trebetasun pertsonal eta tekniko egokiak dituzten terapeutak dauzkatenak, programaren aplikazioan modu berezian trebatuak izan direnak.
- Eskuliburu estandarizatuak dituztenak, lan terapeutikoa behar bezala bideratzeko.
- Ahalik eta osotasun gehienarekin aplikatuak; horrek eskatzen du erakunde-arduradunak tratamenduekin konprometituta agertzea.
- Erkidegoari orokortzeko estrategia bereziak sartzea, besteak beste, berrerortzeak prebenitzeko teknikak.

Ilido horretatik, azterketek erakusten dute berrerortzea prebenitzeko programa batzuek jardunbide egokiak partekatzen dituztela eta horiek gure ingurunean ezarri beharko lirakeela.

Planaren indarraldian, praktika horien onarpenean eta berrerortzeko jokabideen prebentzioan emaitzarik onenak ematen dituen prozesuaren onarpenean edo delituaren atzera-egitean sakondu beharko da.

7.4 Erantzukizun publikoa eta kudeaketa-eredua

Haur eta Nerabeei buruzko 2/2024 Legeak ezartzen duenez, haurren eta nerabeen ongizatea bermatzera, haien eskubideak eraginkortasunez egikaritzera eta betebeharrak eta erantzukizunak beren gain hartzera bideratutako sustapen-, prebentzio-, arreta- eta babes-jarduketak erantzunkidetasunean oinarritutako betebeharrak baten barruan sartzen dira; eta behar horrek, berriz, adingabeei, haien familiei, botere publikoei, EAeko administrazio publikoei, sektore pribatuari, hirugarren sektore sozialeko entitateei bereziki eta, oro har, gizarte osoari eragiten die.

Adingabeen epaitegiek ezarritako neurrien betearazpena justizia-arloan eskuduna den Gobernu Sailarena da, baina zeregina partekatu egingo da, garapenerako lankidetzan gisa, beste sail batzuekin. Sailaren zeregin berria Planaren ekintzak Gobernuaren beraren beste instantzia batzuetan inplikatzekeko lidergo-modua gauzatzearekin lotuta egongo da.

Kudeaketari dagokionez, jarraitzen da kudeaketa-eredu mistoaren alde egiten (titulartasun publikoko eta kudeaketa publikoko zerbitzuak eta titulartasun pribatuko eta kudeaketa pribatuko zerbitzuak), bai eta erantzukizun publikoaren alde ere.

8 HELBURU OROKORRAK

Jarraian azalduko diren Gazte Justiziaren VI. Planaren (2025-2029) helburu orokorrek aurreko ataletan deskribatutako hiru zutabe dituzte funtsean: V. Planaren (2020-2024) ebaluazioa, Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-justiziaren printzipioak eta ildo estrategikoak. Hauexek dira:

- O1: EAEko Administrazio Orokorraren eskumenekoak diren Adingabeen Epaitegiek emandako ebazpen judizial guztiak betearaztea, betearazpenak hasteko epeak murriztuz.
- O2: Gazte-justiziarekin zerikusia duten pertsona guztiei adiskidetze-programetarako sarbidea erraztea eta justizia errestitatiboko programetan sartzen diren pertsonen ehunekoa handitzea.
- O3: Neurri judizialak betetzeko zentroetako protokoloak berrikustea, hobetzea eta homologatzea kalteberatasun-egoera posiblei erantzuteko.
- O4: Gazte-justiziaren erantzunak erabiltzaileen profil desberdinetara eta delitu-testuinguruetara egokitzea, esku-hartze psikosozioedukati-
boak zorrotasun zientifiko eta tekniko gauzatuz.
- O5: Jokabide arau-hausleen arrisku-faktoreak detektatzea eta zehaztea, eta horien aurka babestea (gizarte- eta hezkuntza-eremuetatik).
- O6: Berrerortzea eragiten duten kontrako faktoreei aurre egitea, administrazio bakoitzaren erantzukizunetik abiatuta.
- O7: Gazte-justizian inplikaturik dauden eragileei prestakuntza espezializatua eta espezifikoa eskaintzea.
- O8: Erabiltzaileei buruzko informazio-bilketa zabaltzea eta hobetzea esku-hartze efizientea eta eraginkorra ahalbidetzeko eta datu-ustiapen estatistikoa arina eta denbora errealekoa egin ahal izateko.
- O9: Gainerako erakundeek osatzen duten sarearekin harremanetan egoteko eta modu koordinatuan lan egiteko eremuak zehaztea eta garatzea.



9 PARTE HARTZEN DUTEN SAILAK

Aurreko ataletan ikusi dugun bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-justizia esku-hartze publikoko sistema nagusiki hezitzailea da, eta arau-hauste penal bat egin duten adingabeek erantzukizuna bere gain hartzera eta haiek gizarteratzera bideratuta dago. Helburu horiek lortzeko, adingabe arau-hausleen bizi-ibilbideetan eragina duten faktore pertsonal, familiar, hezitzaile, sozial, osasun-faktoreak eta faktore komunitarioen aniztasuna kontuan hartzen dituen jardun integrala behar da. Izan ere, faktore horiek, askotan, Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren eskumen-eremuaz haratago doaz.

Testuinguru horretan, adingabe arau-hausleen gaineko esku-hartzea gauzatzeko, ezinbestekoa da zeharkako eta sailarteko ikuspegia izatea neurri judizialak betearazteko –bai ingurune irekikoak, bai hezkuntza-zentrokoak– prozesu osoan zehar jarduketa publikoen koherentzia eta jarraitutasuna bermatzeko. Horretarako, segurtasunaren, osasunaren, hezkuntzaren eta enpleguaren arloan eskumena duten sailen parte-hartze koordinatua erabakigarria da biztanleria horren premia espezifikoek eraginkortasunez heltzeko eta gizarte-bazterkeriako eta berrerorketako egoerak eta jokabide arau-hauslearen kronifikazioa prebenitzeko.

Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren Gazte Justiziaren Planaren atal honen helburua da sailen arteko lankidetzaz-esparrua ezartzea Eusko Jaur-laritzako gainerako sailekin eta, hala badagokio, beste autonomia-, foru- eta toki-administrazio publiko batzuekin. Esparru horren helburua da jarduketa-ildo partekatuak, koordinaziorako, informazio-trukerako eta erakundeen erantzunkidetasunerako mekanismo egonkorak eta esku hartzeko irizpide komunak definitzea; hori guztiori eskura dauden baliabideak optimizatzeko eta adingabe arau-hausleei zuzendutako erantzunen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko.

Gazte-justiziaren ikuspegi integratu hori indarrean dagoen arau-esparruarekin bat dator; bereziki, adingabeen erantzukizun penala arautzen duen 5/2000 Lege Organikoarekin, eta Euskal Autonomia Erkidegoan giza eskubideen, haurren eta nerabeen, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarteratzearen

arloan sustatutako politika publikoekin. Era berean, ikuspegi horrek legearekin gatazkan dauden adingabeei zuzendutako jarduketa publiko ororen buru izan behar diren printzipio hauek barne hartzen ditu: adingabearen interes gorenaren, hezkuntza-arloko esku-hartzea, proportzionaltasuna, gutxieneko esku-hartzea eta gizarteratzeko xedea.

Ikuspegi hori kontuan izanda, sailen arteko koordinazioa funtsezko elementu estrategikoa da gazte-justiziako politika publikoak diseinatu, ezarri eta ebaluatzeko, eta gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak eraikitzen, familia- eta komunitate-inguruneak indartzen, eta gazte-justiziaren eredu koherente, jasangarri eta pertsonarengan zentratua garatzen laguntzen du; hori guztiori Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan.

9.1 Segurtasun Saila

9.1.1 Sarrera

Segurtasun Sailarekiko harremana ezinbestekoa da, eredu koordinatua, prebentzioan oinarrituta eta hezitzailea ahalbidetzen baitu. Eredu horrek herritarren segurtasuna babesten du, adingabe arau-hausleak garabidean dauden pertsonak direla eta birgizarteratzea lehenetsi behar dela ahaztu gabe, eta funtsezko hainbat elementutan oinarritzen da:

Prebentzioa eta segurtasun publikoa

Segurtasun Sailak (hari dagokio, besteak beste, Ertzaintza) funtsezko zeregina du arrisku-jokabideak goiz detektatzeko eta delitua prebenitzeko; beraz, bi sailen arteko lankidetzari esker, jokabideak trinkotu baino lehen jardun daiteke, prebentzioa –eta ez zehapena– lehenetsiz.

Koordinazio orokorra

Adingabe gehienak polizia-jarduketan ondorioz sartzen dira justizia-sisteman. Bi sailen arteko harreman zuzenak protokolo argiak, jarduketa koherenteak eta adingabearen adinera eta egoerara egokitutako erantzuna errazten ditu; eta, hala, bikoiztasunak edo neurritz kanpoko esku-hartzeak saihesten dira.

Ikuspegi integrala eta hezkuntzan oinarrituta

EAEan, gazte-justiziaren eredu berreziketean eta birgizarteratzean oinarritzen da, eta ez soilik zigorlean. Segurtasun Sailarekin lankidetzan aritzeari esker, neurri judizialak prebentzio-, komunitate- eta hezkuntza-ekintzekin integra daitezke, adingabearen interes gorenari eutsiz beti.

Arrisku- eta babes-egoeren kudeaketa

Adingabe arau-hausle batzuk indarkeria-, gizarte-bazterkeriako edo babesgabetasun-egoeretan daude. Segurtasun Sailarekiko loturak kasu horiek identifikatzen eta erantzunak beste sistema batzuekin koordinatzen laguntzen du (gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, adingabeen babesa...).

Informazioa hobeto erabiltzea eta analisiak egitea

Segurtasun Sailak delitu-motei, arrisku-eremuei eta fenomeno jakin batzuen bilakaerari buruzko datuak ditu. Informazio hori gazte-justiziako plana diseinatzeko erabiliz gero, ebidentzietan oinarritutako politikak lortuko dira, EAEko lurraldearen benetako egoerara egokituta.

Eskubideak bermatzea eta proportzionaltasuna

Plangintza bateratuari esker, poliziak eta epaileak adingabeei dagokienez egiten duten esku-hartzea proportzionala, berme-emailea eta espezializatua izango da; eta, hala, ez dira adingabeak estigmatizatuko eta euren eskubideak errespetatuko dira.

9.1.2 Gazte Justiziarekin bat datozen ekintzak

2025-2029 aldian adingabe arau-hausleei aplikatu dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren ekintzak, planak eta lan-ildoak segurtasun-eredu integral, prebentibo eta koordinatu baten barruan kokatzen dira, eta eredu hori bizikidetzan babestera eta kolektibo kaltebetei arreta ematera bideratuta dago. Poliziaren esku-hartzea eta segurtasun-politikak adingabe arau-hausleek sistemarekiko duten lehen harremana dira, baita funtsezko elementuak ere gazteen delitu-jokabideak prebenitzeko, goiz detektatzeko eta laguntzeko.

Jarraian aurkezten ditugun jarduketan helburua adingabearen eskubiak errespetatzen dituen neurriko erantzun espezializatua bermatzea da; eta, horretarako, segurtasun-indarren, gazte-justiziaren, gizarte-zerbitzuen eta hezkuntza-zerbitzuen arteko koordinazioa indartuko da. Horrela, Segurtasun Sailari esker, bere esku-hartzea ez da kontrol-jardueretan edo zehapenean soilik oinarrituko; aitzitik, estrategia zabalago baten esparruan (Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-errealitatera egokituta) txertatuko da adingabearen interes gorena prebenitzeko eta hura gizarteratzeko eta babesteko.

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Integrala/ Segurtasuneko Plan Orokorra

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra (2025) adingabe arau-hausleez bestelako gaiak jaso arren, segurtasun integraleko esparru estrategikoa ezartzen du; izan ere, bertan, 'delituaren prebentzio orokorra' jorratzen da, eta horrek zeharka eragiten die adingabe arau-hausleei. Gazteen arteko delitu-jokabideen ondoriozko arriskuak prebenitzeko estrategiak eta ekintzak antolatzen dituen segurtasun-eredu integrala proposatzen du, poliziaren, justiziaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioa bilatzen du, eta bizikidetzakaltetzen duten mehatxuei aurre egiteko politika publikoak integratzen ditu. Koordinazio hori funtsezkoa da poliziek (Ertzaintzak eta udaltzaingoak) gazte-justiziako, gizarte-zerbitzuetako eta hezkuntzako zerbitzuekin estuki lan egin dezaten adingabearen arrisku-faktoreak detektatzeko eta horiei heltzeko; hori guztia arau-hauste larriagoak eman aurretik, edo gazteek delituak egiteari usteko xedez (helduak izan aurretik).

2026-2030 Segurtasun Plan Integralaren aurkezpena

Segurtasun Saila 2026-2030 Segurtasun Plan Integral berria egitea bultzatzen ari da. Plan hori hausnarketa estrategikoko prozesu baten bidez («Basque Segurtasun Foroa») eraikitzen ari da, eta erakundeek, gizarte-eragileek eta adituek parte hartzen dute bertan. Plan honek gaur egungo segurtasun-erronkak jasotzen ditu, bizikidetzak soziala eta justizia barne; hala, horrek esan nahi du –herritarren segurtasunaren testuinguru globalean– gazte-ara-zoei aurre egin behar zaiela. Oraindik ez dago ez amaituta, ez biztanle-talde arabera esplizituki egituratuta; baina, dena den, segurtasun integralean eta

gizarte-kohesioan oinarritutako bere ikuspegiari esker, berebiziko garrantzia bereganatzen du gazteen artean delituzko jokabideak prebenitzeari eta kudeatzeari dagokienez.

Gazteen delituak prebenitzeko poliziaren jarduketa espezifikoak

Jarduketak ez dira beti politika orokorreko dokumentu gisa argitaratzen, baina herritarren segurtasunerako planek barne hartzen dituzten Ertzaintzaren eta udaltzaingoen jarduketa operatiboek honako hauek barne hartzen dituzte:

- Egoera prebenitzea gazteek arau-haustea egiteko aukera gehien dituzten espazioetan (adibidez, polizia auzoetan egotea, jaietan edo gaueko aisiko jardueretan arma zuriak kontrolatzea, eremu gatazkatsuetan patruilatzea...).
- Adingabeei zuzenean eragiten dieten kasuetan esku-hartzea (delituak ikertzea, esaterako: sexu-delituak edo adingabeak barne hartzen dituzten beste egitate batzuk); Ertzaintzak polizia-jarduerako protokoloen arabera burutzen ditu esku-hartze horiek.

Jarduketa horiek, adingabe arau-hausleei bideratutako plan publiko zehatzak ez badira ere, delituak prebenitzea eta talde kalteberak (adingabeak barne) babestea helburu duen segurtasun-eredu batean kokatzen dira.

Segurtasunaren eta justiziaren arteko koordinazio-protokoloak

Segurtasun Sailaren protokolo espezifiko guztiak publikoak ez badira ere, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeako Legeak eskatzen duenaren arabera, Segurtasun Sailak erakundeen arteko lankidetzak eta koordinazio-mekanismoak antolatu behar ditu, besteak beste:

- epaileen eta polizialen arteko informazio-trukea,
- adingabeak babesteko zerbitzuekin koordinatzea,
- erantzun integratuak ematea, adingabe arau-hausleen kasuetan.

Lege-esparru horrek oinarri gisa dihardu polizia-kidegoek, gazte-justiziako zerbitzu espezializatuek eta gizarte-zerbitzuek batera lan egin dezaten.

9.2 Osasun Saila

9.2.1 Sarrera

VI. Gazte Justizia Planak (2025-2029) Osasun Sailarekiko lotura zuzena du; izan ere, nerabezaroan ematen diren delitu-jokabide asko osasun mentaleko eta emozionaleko faktoreekin lotuta daude, eta erantzun espezializatua eta koordinatua behar dute. Nerabezaroan, kalteberatasuna bereziki nabarmena da; eta, etapa horretan, osasun mentaleko arazoak, substantzien kontsumoa, jokabide-nahasmenduak edo estres- eta trauma-egoerak eman daitezke. Gainera, badakigu faktore horiek zuzenean eragiten dutela gazteen portaeran.

Osasun Sailarekin harremanetan egoteari esker, arazo horiek goiz detektatu ahal dira, eta prozesu judizialaren hasieratik arreta egokia bermatu daiteke; hala, erantzuna ez da soilik zehapenetan oinarrituko. Osasun-zerbitzuekiko koordinazioak ebaluazio klinikoak, jarraipen psikologikoa eta tratamendu jarraituak erraztu egiten ditu, eta beroriek funtsezkoak dira neurri judizialek benetako hezkuntza- eta errehabilitazio-eragina izan dezaten.

Gainera, delituetan parte hartzen duten pertsona asko euren osasunerako arriskutsuak diren egoeretan daude, hala nola adikzioak, autolezioak edo familia-testuinguru konplexuetatik eratorritako arazo emozionalak. Osasun-ikuspegia gazte-justiziaren planean txertatzeak errealitate horiei modu integralean heltzeko aukera ematen du, adingabearen interes gorena babestuz eta berrerortzea murriztuz.

Azkenik, gogorarazi nahi dugu gazte-justiziaren euskal eredia berreziketan, gizarteratzean eta prebentzioan oinarritzen dela, eta helburu horiek ezin direla osasun-arreta egokirik gabe lortu. Osasun Sailaren parte-hartzeak eremu judizialaren eta osasun-sistema publikoaren arteko laguntza-jarraitutasuna bermatzen du, ekitatea sustatzen du osasun-zerbitzuak eskuratzeari dagokionez, eta esku-hartze gizatiarrago, eraginkorrago eta jasangarriagoa lortzen laguntzen du.

9.2.2 Gazte Justiziarekin bat datozen ekintzak

2025-2029 aldirian, Osasun Sailak herritarren osasun integrala sustatzeko politikak eta programak garatuko ditu, haur, nerabe eta gazteei arreta

berezia eskainiz. Jarduketa horiek ez dira eremu judizialera soilik bideratzen, baina oso garrantzitsuak izango dira adingabe arau-hausleentzat, horietako askok osasun mentalari, substantzien kontsumoari edo zailtasun psikosozialei lotutako arrisku-faktoreak baitituzte. Adierazi den bezala, osasun-politika horiek gazte-justiziarekin bat egiteari esker, delitu-jokabidearen oinarri diren zergatiei modu osoagoan heldu ahal izango zaie, eta adingabeen errehabilitazioa eta gizarteratzea babestuko dira.

Hauek dira aldi horretan indarrean dauden tresna eta ildo estrategikoetako batzuk:

Euskadiko Osasun Plana 2030

Plan hau Euskadiko osasun-sistemaren ibilbide-orri estrategikoa da, eta haurren eta nerabeen osasuna sustatzea, arriskutsuak izan daitezkeen jokabideak prebenitzea, eta osasun-arloko aldeak murriztea barne hartzen dituzten helburuak eta lan-ildoak ditu. Hala, gazteen garapen osasungarria sustatzea da horren helburuetako bat, eta, horretarako, ingurune sozial eta komunitarioan gazteen jokabidean eragina izan dezaketen ingurune osasungarri eta erresilienteak lortzeko neurriak aplikatuko dira. Haurtzaroari, nerabezaroari eta osasun mentalari buruzko helburu eta ildo estrategiko espezifikoak biltzen ditu. Izan ere, horietako asko garrantzitsuak dira adingabe arau-hausleentzat: Funtsezko helburuak eta programak:

- Haurren eta nerabeen garapen osasungarria sustatzea arriskutsuak izan daitezkeen jokabideak murrizten dituzten ingurune fisiko, emozional eta sozialak sustatuz.
- Adingabeen osasun fisiko eta emozionalerako arriskuen prebentzioa sustatzea substantzien kontsumoa eta bestelako adikzio-jokabideak murrizteko diseinatutako programen bidez.
- Osasun mentaleko arazoak goiz detektatzeko programak garatzea, antsietate, depresio, jokabide-nahasmendu edo estresaren (jokabide gatazkatsuak izateko probabilitate handiagoarekin lotuak) aurkako esku-hartze goiztiarrak pertsonen esku jarritz.
- Osasun afektibo-sexuala sustatzea nahi ez diren infekzioen edo haurdunaldien prebentzioa eta harreman osasungarrien eta autoestimua-ren alderdiak zainduz.

- Adingabeek kalitatezko osasun- eta gizarte-zerbitzuak eskuratu ahal izatea bermatzea (horrek arreta espezializatua barne hartzen du premia konplexuak ematen direnean).

Ildo horiek ingurune osasungarriak sustatzen dituzte, eta gazteen arau-hausteeekin lotutako arrisku-faktoreak (hala nola substantzien kontsumoa, arazo emozionalak edo jokabide oldarkorrak) murrizten dituzten estrategiak indartzen dituzte.

Euskadiko Osasun Mentaleko Estrategia (2023-2028)

Estrategia honek barne hartzen ditu: haurtzaroan eta nerabezaroan osasun mentala sustatzea, nahasmendu mentalak prebenitzea eta goiz detektatzea, eta birgaitzean oinarritutako arreta ematea komunitate-eremuan. Hori bereziki garrantzitsua da adingabe arau-hausleentzat, maiz pairatzen baitituzte osasun mentaleko eta portaerako arazoak.

Adikzioei aurre egiteko Euskadiren Plana

Osasun Sailak kalteak prebenitzeko, tratatzeko eta murrizteko plan espezifikoak bultzatzen ditu, bai mendekotasun kimikoei lotutakoak, bai substantziarik gabeko adikzio-jokabideei lotutakoak (alkohola, drogak eta jokia barne), arrisku-faktoreak baitira adingabe arau-hausleentzat. Jarduketa horiek bizi-modu osasungarriak sustatzeko eta arrisku-jokabideak murrizteko erkidegoko programak barne hartzen dituzte. Adikzioei buruzko EAEko VIII. Plana (2023-2027) biztanleria osoan substantzien kontsumoaren eta adikzio-jokabideen aurkako ekintzak biltzen dituen Osasun Sailaren tresna estrategikoa da, eta arreta berezia jartzen du gazteetan.

Alderdi garrantzitsuak:

- Gizarte-kalteberatasuneko egoerekin eta jokabide arau-hausleekin lotuta egon daitezkeen droga-kontsumoa eta beste adikzio batzuk prebenitzea (hala nola joko patologikoa edo pantailen erabilera problematikoa).
- Bizimodu osasungarriak sustatzea eta substantzien kontsumoarekin lotutako kalteak murriztea.

- Beste sektore instituzional batzuekin koordinatzea (justizia, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak) prebentzio- eta tratamendu-jarduerak batera gauzatzeko.

Prebenitzeko eta jokabide osasungarriak sustatzeko programak

Sailak, halaber, dirulaguntza publikoak jartzen dizkie eskuragarri adikzioak prebenitzeko eta ohitura osasungarriak sustatzeko proiektuei. Proiektu horien helburua portaera positiboak sustatzea eta substantzien kontsumoari lotutako arriskuak murriztea da herritarren artean, gazteak barne.

Lankidetzeta eta arreta komunitarioa osasun mentalean eta adikzioetan

Ekimen asko foru- eta toki-mailan ere kudeatzen badira ere, gazteen arazoak goiz detektatzeko eta horiei laguntzeko sareak indartzeko xedea duten osasun publiko komunitarioko politiken aldeko apustua egiten da (osasun mentaleko programak ikastetxeetan edo esku-hartze komunitarioa, adibidez).

Batera, Osasun Sailaren tresna horiek prebentzioan, komunitate-lanetan eta laguntzan oinarritutako esparrua osatzen dute, eta esparru horrek:

- gazteen delitu-jokabideekin lotuta egon daitezkeen arrisku-faktoreak murrizten laguntzen du (substantzien kontsumoa, arazo emozionalak edo antsietatea, adibidez),
- detekzio goiztiarra eta osasun-arreta egokia sustatzen ditu,
- gazteen erresilientzia eta ongizate emozionala indartzen duten inguruneak garatzen laguntzen du,
- eta beste politika publiko batzuekin batera dihardu (hezkuntza, justizia, gizarte-zerbitzuak) justizia-sistemarekin harremanetan jartzen diren adingabeei erantzun zabalagoa eta integralagoa emateko.

9.3 Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila

9.3.1 Sarrera

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila eta VI. Gazte Justizia Plana (2025-2029) elkarrekin lotuta daude zuzenean, gizarteratzea eta laneratzea funtsezko elementuak baitira adingabeak berrezteko, gizarteratzeko eta gazteen delinkuentzian berrerortzea prebenitzeko. Eskola-uzteak, familiaren prekariedade ekonomikoak edo etorkizunerako itxaropenik ezak markatutako

dute justizia-sisteman murgiltzen diren adingabe askoren historia. Hala, faktore horiek eragin zuzena dute jokabide arau-hausleen agerpenari dagokionez.

Sail horrekiko harremanari esker, gizarteratze-prozesuan dauden adingabeen eta gazteen beharretara eta gaitasunetara egokitutako enplegu-politika aktiboak, lanbide-heziketa eta lan-orientazioa txerta daitezke gazte-justiziaren planean. Errealitatearekin bat datozen prestakuntza- eta lan-ibilbide pertsonalizatuak eskaintzea lagungarria da adingabeen gaitasunak garatzeko, autoestimua indartzeko eta etorkizunerako alternatiba legalak eta egonkorak aurkitzeko.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak gazteen enplegarritasuna, lanbide-kualifikazioa eta lan-mundurako trantsizioa hobetzeko programak kudeatzen ditu. Politika horiek gazte-justiziaren eremuan integratzeak erraztu egiten du neurri judizialak gizarteratzeko benetako aukerekin osatzea, esku-hartzea prozesu judiziala amaitu ondoren jarraipenik gabe zehapenak betetzera mugatzea saihestuz.

Koordinazio horrek «Erantzukizuna, hezkuntza eta gizarteratzea» oinarri dituen gazte-justiziaren EAEko eredia indartu egiten du, eta, horri esker, gazte-delinkuentziaren funtsezko zergatiak landu daitezke (berdintasunik eza eta bazterketa ekonomikoa, esaterako). Horrela, Gazte Justiziaren VI. Plana (2025-2029) tresna eraginkorragoa eta jasangarriagoa da, eta bat dator gure inguruneko kohesio sozialeko eta garapen ekonomikoko politikekin.

9.3.2 Gazte Justiziarekin bat datozen ekintzak

Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak 2025-2029 aldirako indarrean dituen plan eta jarduketak ez dira adingabe arau-hausleei soilik zuzentzen, baina enplegu-, prestakuntza- eta inklusio-politikak barne hartzen dituzte, eta horiek funtsezkoak dira gazte horien gizarteratzea eta laneratzea errazteko. Enplegu-politika horiek benetako enplegu-aukerak, prestakuntza-ibilbideak, laguntza pertsonalizatua eta laneratzeako enpresentzako babesa eskaintzen dituztenez, gazte-justiziaren sistematik igaro diren adingabeek proiektu profesional eta sozial egonkorra aurkitu ahal izango dute; horrela, berrerortzeko aukerak murriztuko dira, eta gizartean erabat integratzeko prozesua erraztuko da.

Tokiko enplegu- eta garapen-planak

Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak abian jarri ditu tokiko enplegu- eta garapen-planak. 2026tik aurrera hasiko dira ezartzen, eta 2029ra arte luzatuko dira. Plan horiek udalekin eta tokiko erakundeekin batera egiten dira, eta enplegu-politikak lurralde bakoitzaren premia espezifikotara egokitzeko, kontratazioa sustatzeko eta kolektibo kalteberen gizarteratzea bultzatzeko (enplegua lortzeko zailtasunak dituzten gazteak barne) xedekak izango dituzte.

Helburua kalitatezko enplegua eta gizarte-kohesioa sortzea da tokiko eremuetan; hala, enplegarritasuna sustatzeko eta babesak emateko estrategiak aplikatuko dira, gazte-justiziaren sistematik igaro diren gazteen laneratze-ibilbideak erraztuz eta irtenbide sozial egonkorra eskainiz.

Enplegu-politika aktiboak eta enplegu publikoko zerbitzuak (Lanbide)

Sailaren aurrekontuaren zati handi bat «Lanbide: Euskal Enplegu Zerbitzua»-k kudeatzen dituen enplegu-politika aktiboetara bideratzen da, eta arreta berezia ematen zaie gazteei eta egoera ahulean dauden kolektiboari (prestakuntzaren plangintza, lan-orientazioa, enplegua bilatzeko laguntza eta kontratazioaren sustapena barne).

Arau-hausle askoren prestakuntza- edo lan-ibilbideak eten egin dira; beraz, enplegurako laguntza pertsonalizatua eskuratzea erabakigarria izan daiteke neurri judizialak bete ondoren gizarteratzeko eta ekonomikoki birgizarteratzeko.

Laneratze-jarduerak burutzen dituzten enpresentzako laguntza

Eusko Jaurlaritzak gizarteratze- eta laneratze-prozesuan dauden pertsonak (gazte kalteberak barne) kontratatzen eta laguntzen dituzten 'laneratze-enpresen' aldeko apustua indartzen du. Hala, laguntza horrek bi ondorio dakartza: enplegua sortzea eta lan-merkatu arruntera itzultzeko trantsizioa erraztea.

Baliabide horiek «lan-zubi» moduan funtziona dezakete, zailtasunak dituzten pertsonak sozialki eta ekonomikoki integratzen dituzten enpresetan esperientzia, prestakuntza eta laguntza eskaintzen baitituzte.

Enpleguaren Euskal Estrategia 2030 eta harekin lotutako planak

Beti ez dira berez Sailarenak, baiian V. Gazte Planaren 2025eko Plan Operatiboak, besteak beste, Enpleguaren Euskal Estrategia 2030 eta Gazteen Emantzipaziorako Euskal Estrategia jasotzen ditu; eta, izan ere, estrategia horiek eragina zuzena dute lan-politketan. Euskadiko gazteen enplegarritasuna hobetzeko eta gazteen kalitatezko enplegurako sarbidea sustatzeko helburuak jasotzen ditu.

9.4 Hezkuntza Saila

9.4.1 Sarrera

Eusko Jaurlearitzako Hezkuntza Sailak funtsezko zeregina du adingabeen delitu-jokabideen arreta eta prebentzioari dagokienez, hezkuntza gazteen garapen integralerako eta gizarteratzeko faktore erabakigarria baita. Adingabe arau-hausleek hezkuntza-premia espezifikoak izan ohi dituzte, eta premia horiek, berriz, esku-hartze koordinatuak eskatzen dituzte gizarteratzea sustatzeko eta berrerortzea prebenitzeko.

Hezkuntza Saila beste erakunde publiko batzuekin lankidetzan ari da – hala nola Justizia eta Giza Eskubideen Sailarekin eta gizarte-zerbitzuekin– neurri judizialak jaso dituzten edo bazterketa-arriskuan dauden adingabeek ikasteko, prestakuntza jasotzeko eta garapen pertsonalerako aukerak izan ditzaten; eta hori guztiori hezkuntza-programa espezializatuen, eskola-laguntzako baliabideen, orientazio psikopedagogikoaren eta inklusio-neurrien bidez.

Harreman horretatik ondoriozta daiteke hezkuntzak –ezagutza akademikoak transmititzeaz gain– delitu-jokabideak prebenitzeko tresna gisa ere diharduela, eta adingabeak beren ingurunean eta etorkizuneko lan-merkatuan modu positiboan integratzea errazten duten gizarte-trebetasunak, balio zibikoak eta lan-konpetentziak sustatzen ditu.

9.4.2 Gazte Justiziarekin bat datozen ekintzak

Ez dago adingabe arau-hausleak soilik barne hartzen dituen Hezkuntza Sailaren plan espezifikorik; aitzitik, arrisku-faktoreak, bizikidetzak, inklusioa eta prebentzioa (adingabe horiek eskola-sistemaren barruan duten egoerarekin eta haien gizarteratze- eta hezkuntza-prozesuarekin lotura estua duten alderdiak) lantzen dituzten hezkuntza-planak eta -programak garatzen dira.

Euskal Eskola Publikoaren Plan Estrategikoa 2025-2028

Hau da Hezkuntza Saila 2025-2028 aldirako garatzen ari den esparru estratetikoa nagusia, eta euskal hezkuntza-sistema eraldatzea eta indartzea ditu helburu. Arriskuan dauden eta jokabide okerrak dituzten gazteekin eta gizarte-kohesioarekin lotutako erronka nagusien artean, honako hauek topa ditzakegu besteak beste:

- Gazte-indarkeria eta eskolako bizikidetzak: planak lehentasunezko erronkatzat hartzen ditu gazte-indarkeria eta ikasleen arteko bizikidetzak-ara-zaok, eta bertan adierazten denari jarraikiz, hezkuntza-sistemak estrategia pedagogikoen, bizikidetzak positiboaren eta ikaskuntza sozioemozionalaren bidez heldu behar die.

- Ikasleen ongizate emozionala: ikasleen ongizate soziala eta emozionala lantzea funtsezkotzat jotzen da, eta, horretarako, bazterketari edo jokabide okerrekin lotutako arriskuak murriztu ditzaketen estrategiak aplikatuko dira.

- Aniztasunari arreta ematea: planak ikasleen aniztasuna kontuan hartzeko eta eskola-porroteko eta hezkuntza-bazterkeriako egoerak prebenitzeko ekintzak jasotzen ditu; izan ere, faktore horiek jokabide problematikoekin lotuta egon daitezke.

Hezkuntza inklusiboko eta aniztasunari arreta emateko programak

Hezkuntza Sailak ikasle guztien hezkuntza-iraunkortasuna eta -arrakasta bermatzeko xedea duten hezkuntza inklusiboko politikak ditu (ikasteko zailtasunak, gizarte-testuinguru kaltebera edo jokabide problematikoak dituzten ikasleak barne):

- Bizikidetzak- eta gatazkak konpontzeko planak: eskola-indarkeriako, absentismoko, jazarpeneko edo jokabide okerretako egoeretan hezkuntza-zentroetan jarduteko tresnak eta protokoloak.

- Aniztasunari arreta emateko programak: premia zehatzak dituzten ikasleentzako hezkuntza-laguntzak; izan ere, zenbaitetan, ikasle horiek gizarte-bazterketako esperientziak edo jokabide problematikoak -arriskuan dauden adingabeei lotutakoak- izan ditzakete.

Hezkuntza-bizikidetzarako eta prebentziorako estrategiak

Hezkuntza-zentroetako bizikidetzaren kudeaketa garatzean, gatazkak,

indarkeria, absentismo larria edo portaera arriskutsuak prebenitzeko eta kudeatzeko politikak eta protokoloak txertatzen dira. Bizikidetza-planek, orientazio-taldeek eta programa sozioemozionalek ezartzen dituzte tresna horiek hezkuntza-zentroetan.

- Indarkeriaren edo babesgabetasunaren aurrean jarduteko protokoloak: hezkuntzaren esparruan egoera arriskutsuei aurre egiteko jarraibideak.
- Irakasleak prestatzeko ekintzak: bizikidetza, arrisku-faktoreen detekzio goiztiarra eta banakako hezkuntza-laguntza eskaintzeko trebetasunak lantzeko prestakuntza.

Helburu nagusia eskolako bizikidetza bada ere, estrategia horiek portaera problematikoak goiz identifikatzen eta artatzen laguntzen dute, eta laguntzak bideratzen dituzte 'arau-hauste' edo 'prozesu judizial' bihurtu baino lehen.

Estrategia pedagogiko osagarriak

Adingabe arau-hausleei soilik zuzendutako ekintzak ez badira ere, gizarte-bazterkeriaren aurkako babes-faktoreetan eragiten duten prestakuntza sozioemozionaleko, eskola-laguntzako eta hezkuntza-indargarriko programak badaude. Gaitasun sozioemozionaleko prestakuntza jasotzea eta eskola-errendimendua hobetzea jokabide antisozialen arriskua murrizten duten eta hezkuntza- eta gizarte-integrazioa errazten duten faktoreak dira.

9.5 Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila

9.5.1 Sarrera

Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak funtsezko zeregina du Gazte Justiziaren VI. Planean, sail horren esku-menak haurren eta nerabeen gizarte-babesa eta gazteen garapen integralaren sustapena barne hartzen baititu. Sail horrek kalteberatasuneko eta gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko programak kudeatzen ditu; izan ere, faktore horiek maiz daude lotuta nerabeen delitu-jokabideekin. Familia-laguntzako zerbitzuen, gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza-programen eta gazteak integratzeko estrategien bidez, Sailak laguntza eskaintzen du legearekin gatazkan dauden adingabeek gizarteratzeko, hezkuntza-sisteman

berriz sartzeko, eta emozionalki birgaitzeko. Horrela, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren eta Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren arteko harremana arriskuan dauden gazteei arreta ematean, aukera-berdintasuna sustatzean eta gazteen gizarteratzea eta inklusio pertsonala erraztuko duten baliabideak garatzean oinarritzen da.

9.5.2 Gazte Justiziarekin bat datozen ekintzak

Adingabe arau-hausleekin zerikusia duten Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren planak eta estrategiak (2025-2029) prebentziorako, babeserako eta familia- eta komunitate-laguntzarako zeharkako politikak dira gehienbat, eta gazteen arau-hausteak eragin ditzaketen zergatiak eta inguruabarrak jorratzen dituzte; hots, ez dira jokabide arau-hausle hori zentzu juridikoan soilik tratatzen dituzten programak. Horrek barne hartzen ditu: familia kalteberei laguntzea, gazteen ongizate emozionala eta soziala sustatzea, entzuteko eta laguntzeko zerbitzuak, eta haurrak babesteko politika zabaletan parte hartzea.

Haurren eta nerabeen babes integrala

Ongizate, Gazteria, Ongizate eta Erronka Demografikoaren Sailak proposamenak egin ditu Adingabeak Ingurune Digitaletan Babesteko Lege Organiokoaren proposamenaren inguruan, eta proposamen horiek honako hauetan oinarritzen dira:

- Ongizate emozionala eta osasun mentala.
- Prebentzioko eta familiari laguntzeko estrategiak.
- Haur eta nerabeen parte-hartzea politiken diseinuan.

Ekimen hori adingabe arau-hausleei soilik zuzenduta ez badago ere, gazte-kalteberatasuneko egoeretan eman ohi diren arrisku-faktoreak jorratzen ditu (ongizate emozionala, teknologiaren erabilera eta gazteen parte-hartzea).

Kalteberatasun-egoeran dauden adingabeak dituzten familientzako arreta

2025erako ezarritako Oinarrizko Laguntza Materialaren Programak –Eusko Jaurlaritzaren gizarte-kohesioko helburuekin bat datorrenak– kalteberatasun-egoeran dauden adingabeak dituzten familientzako laguntzak eskaintzen

ditu oinarrizko premiak asetzeko (elikadura, higiena, etab.); hala, gizarte-bazterkeriarekin lotutako faktoreak murriztea du helburu, adingabeen artean jokabide problematikoak agertzeko arriskua areagotu baitezakete.

Haur eta nerabeei laguntzeko ekintzak eta zerbitzuak

Sailaren programa eksklusiboa ez izan arren, sailaren politikek Zeuk Esan eta antzeko zerbitzuak (adingabeei eta haien inguruneari zuzendutakoak, ondoez psikologikoa, familia-gatazkak, eskolako indarkeria eta antzeko arazoak artatzeko) sustatzen dituzte, eta gazteei zuzendutako prebentzio- eta laguntza-tresnak dira (gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden adingabeak barne).

Arriskuan dauden gazteengan eragina duten zeharkako planak

Guztiak adingabe arau-hausleetan oinarritzen ez badira ere, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren konpromiso eta proposamen batzuek gazteen kalteberatasunarekin lotutako faktoreak eragiten dituzte; izan ere, komunitatearen parte-hartzea eta gazteentzako gizarte-laguntzako sareak sustatu nahi dituzte, jokabide arriskutsuak eragin ditzaketen oztopoak murriztuz.

Instituzioen arteko lankidetzaren haur eta gazteen arloko politiketan

Sailak Eusko Jaurlaritza ordezkatzeko du haur migratzaileak eta babesgabetsuna ardatz dituzten gobernuen arteko mahai-inguru eta topaketetan, eta, hala, bertako lurralde-esperientzia hori adingabeak babesteko politika zabalagoetan integratzen da.

Dena den, sailak ez du adingabe arau-hausleei soilik zuzendutako plan zehatzik 2025-2029 aldirako, baina aipatutako politikak eta programek jokabide problematikoei lotuta egon ohi diren gizarte- eta familia-arriskuko faktoreei heltzen dizkiete. Gainera, esku-hartze goiztiarrak ahalbidetzen dituzten gazteentzako laguntza- eta entzute-zerbitzuak sustatzen dituzte, eta komunitate-, familia- eta hezkuntza-laguntzako inguruneak indartzen dituzte; izan ere, ingurune horiek funtsezkoak dira jokabide antisozialak prebentzeko, eta beste sail batzuekin lankidetzan egindako gizarte-babeseko eta gazteriako tresnekin integratzen dira (arriskuan dauden edo aurrekariak dituzten gazteen errealitateari modu integralagoan heltzeko).

9.6 Justizia eta Giza Eskubideen Saila

9.6.1 Sarrera

Hurrengo taulak labur jasotzen ditu Sailak gazte-justiziaren arloan dituen helburuak, ildo estrategikoak eta joera nagusiak, eta, hura egiteko, 2020-2024 aldirako Gazte Justiziaren V. Planaren ebaluazioa eta 2025eko Gazte Justiziaren Zerbitzuaren memoria aztertu egin dira. Ikuspegi horri esker, egungo plangintza aurreko etapetan identifikatutako emaitza, ikaskuntza eta erronkekin lotu daiteke, eta, horrela, ekintza publikoaren koherentzia eta jarraitutasuna indartuko dira.

Aurkeztutako sistematizazioak islatzen duenez, metatutako esperientziei eta garatutako jardueren berrikuspen kritikoari esker, lehentasunak birdefinitzeko, jardunbide eraginkorrak finkatzeko eta esku-hartze ereduan doikuntza estrategikoak txertatzeko prozesuak bideratu dira. Beraz, agerikoa da gazte-justiziak bilakaera bat izan duela, bere ikuspegia gero eta gehiago oinarritzen baita ebidentzian, etengabeko hobekuntzan eta hautemandako premietara egokitzeko jardueretan.

Oro har, taula hau erreferentziazko tresna da Euskal Autonomia Erki-degoko gazte-justiziaren egungo esparru estrategikoa ulertzeko, eta bertan ikusten denez, helburuak (O) bat datoz plan honetan planteatutako ildo es-
trategikoekin (LE) eta identifikatutako joerekin (T).

| Helburuak | 1. Ildo Estrategikoa: PREBENTZIOA ETA GUTXIENKO ESKU-HARTZEA | Joerak ¹⁴ |
|-----------|---|---|
| O1. | Justizia errestitatiboko programetan sartzen diren Gazte Justiziaren Zerbitzuaren erabiltzaileen ehunekoa handitzea | Tf, Tg |
| O2. | Jokabide arau-hausleen arrisku-faktoreak detektatzea eta zehaztea, eta horien aurka babestea (gizarte- eta hezkuntza-eremuetatik) | Ta, Tb, Tc, Td, Te, Tg, Th1, Th2, Th3, Th5, Th6, Th7 |
| Helburuak | 2. Ildo Estrategikoa: POLITIKA PUBLIKOEN ETA KAPITAL SOZIALAREN INTEGRAZIOA | Joerak |
| O3. | Berrerortzea eragiten duten kontrako faktoreei aurre egitea, administrazio bakoitzaren erantzukizunetik abiatuta | Ta, Tb, Tc, Td, Tg, Th1, Th2, Th3, Th5, Th6, Th7 |
| O4. | Gainerako erakundeek osatzen duten sarearekin harremanetan egoteko eta modu koordinatuan lan egiteko eremuak zehaztea eta garatzea | Ta, Tb, Tc, Td, Te, Tg, Th1, Th2, Th3, Th5, Th6, Th7 |
| Helburuak | 3. Ildo Estrategikoa: ESKU-HARTZEAREN KALITATEA. EBIDENTZIAN OINARRITUTAKO TRATAMENDU-PROGRAMAK | Joerak |
| O5. | Neurri judizialak betetzeko zentroetako protokoloak berrikustea, hobetzea eta homologatzea kalteberatasun-egoera posibleei erantzuteko | Ta, Tb, Tc, Td, Th2, Th3, Th5, Th6, Th7 |
| O6. | Gazte-justiziaren erantzunak erabiltzaileen profil desberdinetara eta delitu-testuinguruetara egokitzea, esku-hartze psikosozioedukati boak zorrotasun zientifikoz eta tekniko z gauzatu z | Tb, Tc, Td, Te, Tf, Tg, Th1, Th2, Th3, Th5, Th6, Th7 |
| O7. | Gazte-justizian inplikatu ta dauden eragileei prestakuntza espezializatu ta espezifikoa eskaintzea | Tb, Tc, Td, Te, Tf, Tg, Th1, Th2, Th3, Th5, Th6, Th7, Th8 |
| Helburuak | 4. Ildo Estrategikoa: ERANTZUKIZUN PUBLIKOA ETA HIRUGARREN SEKTOREAREKIN LANKIDETZAN ARITZEKO EREDUA | Joerak |
| O8. | Euskadiko Gazte Justiziaren sarearen 'esku-hartzeko eredu komuna' indartzea | Ta, Tb, Tc, Td, Te, Tf, Th4, Th6 |
| O9. | EAEko Administrazio Orokorren eskumene koak diren Adingabeen Epaitegiek emandako e bazpen judizial guztiak betearazten direla bermatzea | Ta, Tb, Tc, Td, Te, Tf, Th4 |
| 10 | Erabiltzaileei buruzko informazio-bilketa zabaltzea eta hobetzea esku-hartze efiziente ta eraginkorra ahalbidetzeko eta datu-usti apen estatistikoa arina eta denbora erreale koa egin ahal izateko | Ta, Tb, Tc, Td, Te, Tf, Tg, Th2, Th3, Th5 |

29. Taula. Helburuak, Ildo Estrategikoak eta Joerak. Egilea: Justiziako Zuzendaritza.

¹⁴ 7. atalean deskribatutako joerak.

9.6.2 Helburu eta ildo estrategikoaren arabera Ekintzak eta Adierazleak

Atal honetan, aurreikusitako ekintzak modu antolatuan aurkeztuko ditugu, zehaztutako helburu eta ildo estrategikoen arabera egituratuak. Antolaketa horri esker, argi eta garbi ikus daiteke lortu nahi diren helburuen eta helburu horiek lortzeko diseinatutako jarduketara zehatzen arteko elkarrekotasuna.

Ekintzak helburu eta ildo estrategikoen arabera antolatzeari esker, planaren gaineko jarraipena errazago egin ahal da, barne-koherentziari mantentzen zaio, eta garapen-mailaren ebaluazioa errazago egin ahal da; izan ere, hori posible da antolaketa honek esku-hartze bakoitza planteamendu estrategiko orokorrean nola txertatzen den erakusten duelako. Era berean, lehenetsunak, esku hartzeko arloak eta jarduketan artean egon daitezkeen sinergiak identifikatzeko aukera ematen du.

